


Faustino Etxebarria

Nire gazte denpora



Nire gazte denpora

Auspoa Liburutegia

237

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OYARZUN (Gipuzkoa)

Faustino Etxebarria

Nire gazte
denpora

Auspoa Liburutegia
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-37-2

Legezko Gordailu: Na.: 665-1996

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, Lizarra

Itzaurrea

Faustino Etxebarria bertsolariak bertso-liburua eskeiñi zigun orain urte batzuk: *Nor garan azaldu* izenekoa, 1990, *Auspoa* 208.

Ondoren, denbora pasa zerbait idazten jarraitzeko gogoagertu zidan. Nik orduan prosa-liburua moldatzeko esan nion, bere aur eta gazte denborako oroipenak ixuriz. Baiña bere jaioterri Dimeko euskera jatorra baizik ez erabiltzeko.

Orrelako liburuak, izan ere, bat baiño geiago argitaratu ditu *Auspoa* liburutegi onek. Gipuzkoeraz, ordea. Bizkaiko adiskide batzuek kargu artu ere bai bein baiño geiagotan:

– Zergatik ez dituzu era ortako liburuak bizkaieraz ere agertzen?

Nere erantzuna:

– Pozik egingo nuke ori. Baiña olakorik idatziko duanik ezagutzen al dezute? Norbaiten izena emaidazute, arren.

Aiek ixilik gelditzen ziran, eta ni pentsaketan. *Auspoa* gure sail onek or utsune bat zuala garbi ikusten nuan. Baiña nola bete?

Orregatik, Faustinoren borondatea ikusitakoan, egokiera ura galdu bear etzala pentsatu nuan.

Bereala asi zitzaizkidan sobre zuri aundi batzuk korreoz etortzen. Faustinoren letra ezaguna nuan eta iriki aurretik ere banekien nork bialduak ziran. Barruan lau-bost orri aundi izaten ziran. Esan bezela, bertsolari onek prosaz idatziak. Baiña bertso-gintza ezin aaztu eta bertsoak ere sartzen zituan tar-teka.

Orri oietan bere oroipenak adierazten zizkigun: aurtzaroa, eskola, artzai-bizitza, baso-lanak, Arratia aldeko erromeriak, gerra-ibillerak, gerra ondoa, ez-kontza...

Nere lenengo lana oiek danak makinaz pasatzea izan da, denbora berean Bizkaiko erri-euskera bizi eta jatorra miazkatuz.

Baiña gai oietako batzuk, berak bere idazkien kopia gordetzen ez baitzuan, bi eta iru aldiz ere pape-reratu zituan Faustinok. Ala, zenbait aldiz, bi edo iru idazkera oietatik bat egin bear izan det.


Lan ori amaitutakoan, Faustinorengana joan eta beraren idazkia puntatik puntara alkarrekin irakurri eta aztertu egin genduan, okerrak zuzenduz.

Gauza berezi bat gertatzen zaie, ordea, Bizkaiko erri-idazleei: andik eta emendik aize ezberdin asko artzen dituztela. Mota askotako eragiñak eta kutsuak, alegia.

Batetik, beren jaiotetxeko bizkaiera jatorra. Bestetik, aldizkari eta liburuetan irakurtzen duten euskera, zoritxarrez bizkaieraz gero eta gutxiago idazten da eta. Azkenik, gipuzkoeraren eragiña, bertsolarien eta gipuzkoar apaizen aotik. Ala, aditza batez ere, batzuetan bizkaieraz idazten dute, beste-etan gipuzkoeraz, eta bai euskera batuan ere.

Faustinorekin ere berdin gertatzen zan. Ala, berak idatzitakoa aztertzen asi aurretik, onela galdetu nion:

- Zure idazkera ola eta ola dago. Nola nai dezu



Faustino Elxebarria.

agertzea: dagoan bezela naastuan ala dana bizkaieraz?

Berak, batere zalantzarik gabe, bizkaiera aukeratu zuan. Obeto esateko, Dime bere jaioterriko izkuntza, amaren magalean ikasitakoa. Biotz-biotzean orixe duala garbi dago. Gaiñerako guztia konpromisoz edo kanpotik beartuta bezela erantsi zaiona besterik ez da.

Andik aurrera, idazki au alkarrekin irakurtzen ari giñala, gogotik saiatu zan Faustino aditza, deklinazioa eta abar bizkaierara ekartzen. Kanpoko kutsua kendu, alegia. Eta zergatik ez aitortu? Ni ere gustora, erri-literatuta orrelaxe bear duala pentsatuz.

Gaiñontzean zer esan? Ez dala erreza izango, nere iritzirako beintzat, Bizkaiko baserrietako bizitza orain irurogei edo irurogei ta amar urte zer zan obeto adieraziko duan libururik billatzea.

Bizimodu ura ur pasea dala dudarik ez da. Mundu au asko aldatu dala badakigu. Baiña liburu au bezelako ispilluak bearrezkoak dirala derizkiot, aldaketa sakon orretaz obeto jabetu gaitezen. Galtzera dijoan mundu orren testigantza ematen baitute. Faustinek bertso batean esaten duana, alegia:

Aldakuntza au larregi da ba
gizalditxo baterako.

A. Z.

Argigarria

Antonio Zabalak egindako sarrera ederrari argigarri bat besterik ez diot erantsiko.

Liburu honen balio multibalentea begien bista-koa da. Faustino Etxebarriak bere bizitzako gazte denpora kontatzen digu bere Dimako euskera bizian. Diogun bezela, Dimako euskera da oinarri. Baina Faustinek, bere gogoetak idazterakoan, han hor hemen entzun eta irakurritako erabilera landuagoak ere erakusten dizkigu.

Antonio Zabalak, alde batetik, errespetatu egin ditu landu-bideok; eta, bestetik, orraztu, errezbidean, transkripzio hutsa eta literarioaren arteko erdibidetik bide eginik.

Liburu hau nola eskeintzen den azaldu ondoren, hizkuntzalari batek galdera hau egin dezake:

- Noraino da transkripzio hutsa eta noraino landu-bideko ikutua?

Erantzuna, alde batetik, Dimako hiztunengan dago. Beste alde batetik, fonetikarainoko azterketa zehatza egin nahi bada, hor dago lan luze bat, *Gorbeia inguruko Etno-ipuín eta Esaundak* titulupean, neronek egina. Hor bai, hor, zintarik harako transkripzio zehatza eta literario-etimolojiko pa-

rean agertzen dira, taula fonetiko eta hiztegi eta guzti.

Faustino Etxebarriaren liburu autobiografiko hau aipatutako zehaztasunera heldu ez arren, lan eder bat dugu gure herria nolakoa den jakiteko.

Gorbeia inguruko esaera zahar batek honela dio: "min bako arrana ugerrak jan" (mihi gabeko arrana ugerrak jan). Ba, Dimako arranak badaragoio edo badiardu bizi-bizi!

Juan Manuel Etxebarria

Jaiotetxea

Ume aldia

Ni, Faustino Etxebarria, Dimen jaio nintzan, Indusiko barriadan, Zamakola auzoan, Etxenagusia deitzen jakon etxean, 1917 urteko otsaillaren 14-an. Bernardo de Zamakola bizi zan etxe orretan.

Aita ta ama Andres eta Felipa ziran, eta zazpi neba-arreba giñan: Luzio, Biktoriana, Dionisia, Felisa, Feliziano, ni Faustino, eta txikerrena Julian.

Gure baserriti Dimeko plazara lau kilometro t'erdi egozan. Alan, txiki denpora guztian oso gitxi joaten giñan erriko plazara. Bateora eroango ninduen, eta akabo. Gero igual lelengo Jauna artzerarte edo komuniñorarte ez nintzan joango.

Bederatzi urtegaz egin neban lenengo Jauna artzea. Bosteun bat metrotara gendun kamiñoa baserriti, eta gero lau kilometro kamiñoz parrokira. Egun orretan, barriada guztiko umeak batera bajatu giñan Jauna artzera. Ni brusagaz jantzita eta abarketa barriakaz.

Kamiñoan goiazela, terraplenetara igon da bajatu egiten gendun. A zan abilidadea!

Ez zan oraingo moduan ez bazkaririk ez jairik egiten. Eleizati urten orduan, galleta batzuk eta

edari apur bat artu, eta etxera kamiñoz oiñez, lengo antzera.

Ordurarte, txiki denporan zer egingo neban nik gure baserrian? Iru-lau ume giñan auzo orretan: Justo eta Kalisto ziran anai bi, eta gu beste anai bi. Beste mutilak aundiagoak ziran. Gure Feliziano, ta alboan Basilio eta Teofilo.

Ba gure olgantzeak ziran ostanka, txirikelan, kastorrean, txopolan, apoka, Gabon inguruan tronpan, ze aitak Durangoti tronpak ekarten euskuzan Gabonetan.

Eskolara asi baño lenago etxean edo auzoan egoten giñan. Txakur bat be bagendun guk *Zoli* izenagaz. Ain listoa zan bera. Beti egoan etxea zaintzen, auzoko ganadurik be gure portalera etorri ez daiten. Beti balkoian egoan. Gabaz, gu falta bagara be, balkoian egoan; eta kamiñoti agertu ezkeru, etxekoai agertzen eutsen bagentozala. Naizta bosteun metrora egon oraindik, berak abisua emoten eutsen bidean gatozela. Alan, baekien etxean, etorri ordurako, zelan gentozan; eta guri atean etxoten euskun, arrera ona egiteko.

Auzoko errotara sarri joaten giñan. Aren sukaldera joan ezkeru, an Blas zan etxeko ugazaba eta aren eserlekuan jarriten giñan; eta Ramona andreak andi kentzeko agintzen euskun, ze Blas baetorren, aren eserlekua libre egon bear ebala ta.

Gero errotako pisuetara joaten giñan, balantzazko pisuak: alde batean zorroa eta bestean pisuak ipinten ziran, eta an ibilten giñan. Baña an be estorbu egiten gendun, eta andi be Blasek kentzeko agintzen euskun. Gu beti bear ez dan tokian izaten giñan.

Egun baten titiriteruak etorri ziran artzagaz, ta gero batzen etxerik etxe. Batzuk emoten eutsien diru apur bat, beste batzuk ogi zati bat. Gure al-

boko Juana zanak opatu eutsen artoa, eta titeriteru orrek ez eutsan artorik artu gure, eta Juana zanak badiñotso:

- Ara: neuk be auxe jaten dot, eta zeuk be auxe jango dozu.

Egia zan. Orduan gure auzoetan ogi gitxi jaten zan, ez zan egoten da.


Alan eldu nintzan zortzi urtera. Orduan egin zan eskola barria gure barriadan. Niretzako gomutagarri aundia da.

Maistrea etorrela eta bidera urtetan joan giñan barriadako ume guztiok kamiñoz bera, eta kilometro bira topau gendun datorrela. Gregorio Benta-txurikoak ekarri eban tibolian. Gero gu danok atzeta galapan mordo guztia. Egun orretan ez zan egon klaserik edo eskolarik. Urrengo goizerako emon euskun ordua.

Urrengo goizean joan giñan salbaje antzera eskolara. Asi sei bat urtekoak eta amazazpi urterarte-koak. Aurreti ez egoan lez eskolarik, eta nik zortzi urte euki arren, an mutil da neska asko ziran ama-lau, amabost, amasei eta amazazpi urtekoak be, zer dan letra bat jakin barik. Ze umiltasuna amazazpi urte ta iñoz eskolan sartu barik! Baña asi egin bear letrak ikasten. Bakarrik komuniñorako *agur Maria* eta dotrina apur bat, amak erakutsia.

Estaturaz nagusiak ifini ebazan batera mordo batean. Amabi urteti gorakoak, zer dan letra bat jakin barik, amar-dozena bat inguru ziran. Lelengo malla ori. Bigarren mallan, amar urteti amabira; eta zortziti amarrera irugarren malla. Or nengoan ni. Eta seiti zortzira urtera txikerrenak. Organizatu eta ifini ginduan baxotxa beren neurrian, ez genkian eskolati, edade edo estaturati baño.

Artu lapiz ta papel, baño danok asi bear "a" letrati. Danori erakutsiten ebilen, baño amasei urte-



Etxenagusia baserria, Indusi, Zamakola, Dima.

koak laster itxi bear eskola; eta, zerbait ikasi deien, premiña aundia eukienez, eurai asi zan gogorrago egiten. Baña areen buruak mukur bat baño gogorrago egozan. Arei ez jakien letrarik be sartzen. Maistra onek ez ekien zer egin. Guri, gaztetxoari, ez euskun gogor aundirik egiten.

Aundietariko mutil bat, Mariano, eskolati mendirantz la u bat kilometrora bizi zan. Oneri agindu eutsan maistreak palu on bat ekarteko, meia eta li-sua.

Urrengo goizean badator mutil ori urretxezko palu urdin eta polit-polit bategaz. Emon eutsan palu ori maistreak, eta esan eutsan maistreak:

– Ederto egin dok.

Asi zan erakusten letrak. Baña areri esatea mukur bateri esatea lez zan. Ez jaken sartzen ezer buruan, eta esan eutsan maistreak mutilari:

– Biar ez badakizue gaur nik agindutakoa...

Gu, txikitxoak, belarri zurrakaz entzuten.

– Biar ez badakizue gaur nik agindutakoa, emen daukat palua. Asiko naz nagusietati, eta arloan joko zaituet.

Eta barriro esan eutsan Marianori:

– Zuk, badaezpadan, igual au apurtu egingo da, ta biar ekarri beste bat, gaur lezko palu bat.

Urrengo goizean, badator Mariano beste palu bategaz, lengoa baño be politagoa.

Mutil nagusiok serio jarri ziran. Lelengo malla-koak ifini ebazan maistreak zutunik beren aurrean. Iladan asi zan preguntatzen. Areek atzoko antzera egozan. Esan eutsen nagusienetarik asiko zala joten palu orregaz. Baña mutil aundiak ziran, eta egun batzuk emon ebazan olan. Ez ekian joten asi ala zer egin.

Arek biguntzeko zerbait bear zan, eta esan eutsen urrenge egunean ez baekien, paluagaz joko zituala.

Urrenge egunean be, mutil nagusiok an osterabe. Arloan preguntau, baña areek mukur baten moduan egozan. Egokera larria! Maistreak gure eban zerbait ikastea eta mutilak ezin.

Egun baten asi zan joten palu orregaz, badaezpadan suabetxo, aundiak ziran da. Artu eban konfiantza. Urrenge egunean geitxuago. Mutilok asi ziran eskolara joan gure ez, eta batek esan eban etxean kriadu joan bear ebala.

Eta aitak kontestau eutsan ea andra baten bildurraz egozan. Goatu, bota lurrera ta zapuztu egiteko neska ori. Goatzeko bildur barik, a baña geiago zirala eta.

Gero mutilak esaten eban kanpoan goatu bear dautsiela maistra oni. Baña ez ziran atrebitzen goatzean, eta maistrea asi zan joten Benito Abostieta-koa. A zan aundiena. Andi asi. Arloan maistreak jotzen ebazan danak. Egun guztietan, *di-da!*, paluagaz. Arek danak dominatzen ebazan. Baña zerbait ikasteko joan egin bear zan eskolara. Gu be barrerik egin barik, badaezpadan.

Urrenge egunean be preguntau osterabe lengo antzera, eta beste jo aldikada bat.

Laster malla nagusi ori desmantelatu zan. Batzuek itxi eutsen joateari: batzuk kriadu, beste batzuk lanera. Eze be ikasi barik banandu ziran: Benito, Teofilo, Basilio, Julian, Mariano eta abar. Batzuen izenak ez dodaz buruan.

Alan, gitxituez joan zan mordo nagusi ori. Mutilok ez eukien beste erremediorik: edo palukadak artu edo itxi eskolari.

Lelengo malla ori apurtu zan eta bigarren mallakoak asi ziran zerbait ikasten. Alan oberatu zan

apur bat gure eskola. Gure gurasoak be ez ekien eskola ikastea ona izango bazan ala ez. Guri, txikerroi, ondo esaten euskun maistreak.

Eberdian etxera bazkaltzeko etorten giñan. Lupetz asko egoten zan bidean. Sarritan oñak bustirik ekarten genduzan.

Egun baten, iluntzean urten da asarratu nintzan beste lagun bategaz, Anastasio Landizolakoagaz. Edade bardinak giñan. Asi giñan burruka eta arek ni azpira bota. Nik uste neban neu geiago izango nintzala, baña ez zan alan. Baña, ni azpian naukala, etorri zan gizon bat bideti, Ezekiel Bernaolakoa, eta arek bueltau gindun ni ganera eta a azpira, eta esan eban Ezekielek:

– Faustino dok geiago.

Eta nik itxi neutsan. Gizon ori be joan zan. Oindiño etxerako bidea luze geunkan, eta badiñoste Anastasiok:

– Neu izan nok geiago.

Eta nik ezetz: Ezekielek be esan ebala ni geiago nintzala, eta esan eustan Anastasiok orduan atzera egin bear gendula burruka.

Eta asi giñan. Alan bear-edo, berak labankada bat egin eban eta jausi zan lupetz artera; eta ni ganean. Ume mordoa giñan batera, eta gero danak ni nintzala geiago. Anastasio lupetzez beterik egoan, eta egun orretan alan amaitu zan.

Baña urrengo egunean be arek bera zala burrukan ni baño geiago, eta oster a eldu eustan burrukan. Ni baño geiago zan. Alan amaitu gendun disputa.

Beste egun baten, bederatzi urtegaz, soloti natorrela, bidean topau Ezekiel Bernaolako ori, eta esan eustan:

– Mutiko, gure dok pipan fumau?



*Exerita, ezkerretik: Felix, ama, aita, Dionisia.
Zutik, ezkerretik: Julian, Luzio, Bitori, Feliziano eta Faustino.*

Berak pipan fumatzen eban, da esan neutsan:

– Bai.

Asi zan pipa ori betetan tabakorri gogorragaz, le-nago *hebra* esaten jakon kuarteroiti, eta ifini eustan ezpanetan da emon sua. Esan eustan:

– Tiretu, tiretu sano, erre arte pipekada dana!

Tiretu ta tiretu, emon eustan mareoak. Etxera nekez eldu nintzan, eta ogera sartu. Iru egunean egon nintzan ogean gaixorik, eta geiago ez dot tabakorik erre neure denpora guztian.

Ogei urtegaz bazkari bat egin gendun lagun batzuk, eta besteak puruak bazkal ostean. Nik be bat artu neban, eta mareoa etorri jatan. Tirakada bat egin da bota neban. Ez dot neuretzako iñoz zentimorik gastau tabakotan.

Ezkondu ta ogeigarren urtean, orduan Gasteizen bizi giñan da jai baten bazkari ona, eta seme zarrenak esan eban:

– Ez dogu zigarro bana erreko?

Eta esan neutsan, beian egoan bar bat eta joan da pakete bat ekarteko. Nire andreak orduan lelen-goiz ikusi nindun zigarroa ezpaneanean dodala. Baña tirakada bi egin da botako neban.

Alan, beste bodaren baten be artuko neban zigarroa, baña segiduan bota. Alan izan da nire ez fumatzeko istoria, Ezekiel Bernaolako agure zarrak egindako fetxoria.

Egun baten eskursiñoan joan giñan, an urrean dagozan Baltzolako kobatarra. Koba ondoan egozan kanpoko gizon batzuk, eta aietariko batzuk armak eukiezan. Uste dot mikeletak zirala, eta tiro batzuk bota ebezan, eta gu bildurtuta maistreagana, tiroak botaten dabizela ta. Danok mordoan koba ondoan gengoan. Ez gendun gauza aundirik ikusi. Nik gero be sarri ikusi nebazan koba orrek.

Baña beste egun baten inspetorea datorrela! Pregunta batzuk egin euskuzan, baña gauza gitxi. Galletak ekarri euskuzan, asko ganera, eta egun ona: galleta gure dana jan da trunkil etxera.

Bigarren urterako maistrea be kanbiatu zan, eta bigunago bat etorri zan. Baña eskolara etorri ez arren, ez eban ardura.

Baña nik be ez neban eskolarik ezertxo be ikasi, lau urte egin arren eskolara. Bederatzi urteti amai-kararte bitartean zan nire eskola. *Sumar* eta *restar* nekez-nekez ikasi nebazan. *Dividir*-era ez nintzan eldu, ze egun asko galtzen neban. Sei ilebete segituan iñoz ez neban egin. Urtean egunik eta erdiak galtzen nebazan, batzuetan lanean aitari eta amari laguntzen. Udan solo lanera, eta auntzak be ba-geunkazan da beste batzuetan pastore auntzakaz. Edo goizean eskolara eta arratsaldean etxean lanean. Alan ezin eskolarik ikasi.

Erderarik be ez neban ikasi. Aitak eta amak be ez ekien. Ze gutxi ikasi neban gazte denporan! Agur!

Nire aur denporari

Ume aldiko nire bizitza
gogora egiten ekarri,
eskola barik lotu nintzala
orain gogoratu sarri.
Aitak eta amak ez eben jakin
munduko eskolen barri,
eskola barik bardin zala ta
baña ez eutsen igarri.

Inorantzian jaio giñan da
inorantzian aziak,
geroko asko etzun balio
aitaren erakutsiak.
Da borondate onean ziran
nire guraso maitiak,
ez eben jakin kalte eukanik
eskola barik ixtiak.

Zortzi urtegaz ikusi neban
lelengokoz nik eskola,
arbola batek emoten duna
beren ondoan arbola.
Lengo ekanduz erentzikuak
ezin kanbiau iñola:
aita zarra lez semea bere
eskola barik dagola.

Egun batean sartu nintzan ba
ni eskolako atian,
alan da bere uts eiten neban
egun bitati batian.
“Soloan lagun eistazu, seme”
neri aitak esatian,
apaltasunez aren esana
biotza bete-betian.

Zer eingo gendun eskolatxuan
jarleku baten jarrita?
Lelengo letrak ezin ifini
alkarregaz ezarrita.
Baña eskolan zer egin laike
lantzean bein etorrita,
eta Benijnok danok joteko
palu onak ekarrita?

Mutil bateri egun batean
maistreak agindukua:
“Menditi biar ekar idazu
zeuek joteko palua”.
Eta Benijnok kunplitu eban
maistreak esandakua,
gero palua apurtuteko
ifini bear lepua.

Onelan giñan salbaje utsak
eskola baten jarriak,
basomortuko anai-arrebak
lelengokoz etorriak.
Zertzuk ziraden esperientzi
etxetikan ekarriak?
Inorantzia bakarrik artu
gure eskola barriak.

Mutil bätzuek esaten eutsen
etxean euren amari:
itxi egingo leuskiela ba
dabizen eskoleari.
Gogorik iñok ezin artuta
onelangoak ugari,
beste batzuek bildur eutsien
Benijnoren paluari.

Gure maistrea oso ona zan,
baña zerbait egiteko
palua bere bear gendun guk
apur bat bigunduteko.
Berak eskola erakutsi nai,
danok ginduzan maiteko,
gogor gengoan, jo be ein bear
guri erakutsiteko.

Gure ikasiak gazte denporan
norañokoak zirean,
orduan ez zan leziñorikan
etxean artzen gabeen.
Eskolan zerbait ikasiagaz
olan izaten giñean,
bide urrinez lupetz artian,
erropa zarrak soñean.

Trantze estuan izango ziran
aita ta ama orduan,
naizta eskola eramatea
eurak be gure bazuan.
Al ebana ta geiago bere
eurek gugaiti ein zuan,
euren orduko ezjakiña be
artuten dot nik goguan.



Eskola eta San Frantzisko ermita.

Geure bidea sarri goizean
eskolarantza arturik,
da eskolara geure abarkak
beti lupetzez beterik.
Graziak gure etxeetan an
ez zan faltatzen artorik,
euria bazan eskolara be
eldutzen giñan bustirik.

Maitasunagaz beteak ziran
aita ta ama etxian,
naiko ein eben zazpi umegaz
eurak, nire eretxian.
Ume txikerrak gosez badauz
jan barik ezin itxian,
ori egoan buruz sartuta
gure aitan kontzentzian.

Gazte denporan izan giñaden
bearrerako jarriak,
ez ebelako ezer be jakin
guraso agurgarriak.
Umeentzako ezin ifini
orduan bide barriak,
eskolarikan ez eustan emon
jaio nintzan baserriak.

Ez eskolarik, ez erderarik
aita ta amak etzuan,
bizimodua ataratzeko
egozan bide estuan.
Seme-alabak euren antzera,
ori predikatzen zuan,
baserri baten lana eginda
aita ta amaren moduan.

Gero aziaz banoian eta
artu nebanean indar,
“Auntzak zainduten zoaz, semetxu”
amak egin eustan diar.
Zeinbat olango goizetan niri
jazorik munduan zear,
aita ta amaren jakituriaz
ez zan eskolarik bear.

Zeinbat biderrez akordatu naz
eskola falta dodala,
lagun artean sarri askotan
atzeratua nazala.
Eskoladunak munduan beti
beren bentaja daukala,
ta al duanak gaztez asita
ori ikasi dezala.

Amaitzen noia kontu onegaz
gu eskolara joana,
mundu ontako ikasiakaz
ez da amaituten dana.
Gogoan eukiko dot nik ori
eskolan guri esana,
baña zedozer beti egongo da
erakutsiak emana.

Pastore

A maika-amabi urteti amalau-amabost urtera, aiatak ifini ninduan pastore auntsak zainduten egun guztian, goizetik gabera, eskola kontuari itxita, ze nire gurasoak ez ekien eskoleak faltarik egingo eustanik. Eurak ez ekien letrarik be zer zan. Ez ziran iñoz eskolan sartu, ta ni apur bat bialtzea naiko zan ordurako.

Lelengo neguan berrogei bat aunts genduzan, eta etxean lotu giñan. Baña goizean urten da sarritan eberdirako maleta sikuagaz: gaztaia eta ogia, beste zerbaitegaz, gaberarte.

Gabean etorri etxera eta aumeak emon danari, bakoxtari berena, eta esnerik batu bear bazan, ori aiatk egiten eban. Aumeak, urrusak, azi egin genduzan. Alan, urrengo negurako irurogeitamar edo geiago geunkazan, eta urte guztia eurakaz. Uda-barrian Toska aldeti, aume bakoari esneak batu arte.

Domeketan aiatk zaintzen ebazan, eta ni lagunakaz jai egunetan izaten nintzan. Baña ez beti. Batzuetan ni be lotzen nintzan auntsak zaintzen, batez be umeak egiteko orduetan. Lan asko emoten eurien.

Egun baten, aita bakarrik aumeak egiteko denporetan. Bost auntz itxi ebazan aumeak eginda. Ezin ekarri etxera, ta gero ilunduta joan giñan ekartera. Aita be umore txarrean, bera bakarrik egon zalako. Ekarki genduzan gabea aumekaz etxera.

San Pedro inguruan antzutu eta Eskuarantza, Eskua-atxa esaten dan lekurantza. An goizean joan da iluntzerarte ibilten genduzan, eta neguan etxean.

Iluntzean goizeti etxera, ze auntza gabaz ez da aldatzen iñora. An, barriz, mendi edo atx aundiak dagozan lez, ez eben iñora martxatzen.

Urri inguruan apur bat berantza etorten giñan, eta Gabon inguruan kortara.

Ni nintzan etxean pastorea. Besteak bai lagundu neguan; baña ni printzipal pastore. Zaintzen bakarrik egoten nintzan. Gero, laguna bear baneban, aita etorten zan niri laguntzera.

Bigarren neguan, umeak egiteko dagozala, joan giñan, Dimen bertan, beste barriada batera: Olazabal deritxon auzora, an Lezarra deitzen jakon etxealdera. Orti gabea etxera etorten nintzan, eta urrengo goizean maletzagaz bazkaria. Ara sarritan joaten giñan lagun bi: aita ta ni; edo anaie bat.

Goizean kortati atara basora, eta Ilunbe atxa ondoan eta arantza eroaten genduzan. Iluntzean kortan sartu ta gu etxera. Lau bat kilometro egozan andi gure etxera.

Egun baten, iluntzean, auntzak kortarantza. Sentidu neban urrus bat falta dala. Baña nik banebian umea eginda lotuko zala.

Urrengo egunean joan da atara auntzak atzo ibiliko ingurura.

Falta zan auntz orrek *Mustur-uridin* eukan izena, eta ea agertzen bazan. *Mustur-uridin* goizean ez zan agiri. Baña arratsaldean bandera etorri zan. Ezagun zan umea egin ebala, baña beragaz ez eban ekarki.

Nik banekian gordeta itxiko ebala, ze basoan jaioten dan aumea beste instinto bategaz etorten da. Itxiten dau beren amak sasipe baten ostanduta, eta ama etorri arte ez dau urtengo andi. Au da priztiren batek ez daien arrapau eta jan.

Auntz au bandagaz egon zan arratsalde guztian. Ni zain ea noiz martxatzen eban. Baña etxerako ordua eta *Mustur-urdin* trankil.

Artu errebañua, etxera eroan neban, kortara sartu eta aita lotu zan aumeak emoten besteari. Eta nik atara neban *Mustur-urdin* kanpora eta itxi libre.

Segiduan artu eban auntz orrek beren bidea basorantza. Bera aurreti ta ni atzeti, bagoiazan mendiko atxartera. Eldu zan beren tokira. Ezer be ez zan agiri. Geratu zan atx bitarte baten eta egin eban diar:

- *Beee...*

Segiduan aume bi sasipeti beragana. Esne apur bana edan eben orduan, artu nebazan nik aume biok, eta aumea atzean, eta kortara.

Aita etxoten etxerako, eta esan eban:

- Aume bigaz?

Etxe orretan bizi ziranak be bajatu portalera. Luzaroan egon giñan jazoera ori zer zan kontatzen.

Olazabal barriada orretan bi ilebete eginda etorriko giñan geure etxera. Gure kortati ataraten genduzan egunean leku desbardineta, batzuetan baso aundira, beste batzuetan Toska aldera, eta beste batzuetan Lezar ganera.

Gero, denporaldi bat etxeti egiten gendun. Orduan auntz guztiak aumeak eginda, eta batzuk saldu, beste batzuk aurrerako itxi. Esneak batu eta gaztaiak be egiten genduzan.

Egun baten, eroan genduzan amar bat aume saltzeko Dimeko plazara tratanteari, Pedro Bernao-



Dima.

lari. Dimera eldu giñan. Astoan eroan genduzan. Anak lotuta eroaten ziran. Aita ta biok joan giñan.

Eta, astoti bajatzen goiazela pisatzeko, aume bat soltau zan eta igesi. Ni mogidu nintzan atzeti, baña ezin arrapatu. Beste mutil gazte bik be lagundu eustien.

Eldu giñan Bengoetxe esaten jakon tokira. An, solo baten, iru auntz egozan lotuta. Aren ondorantza arrimatu zan. Auntzen ugazaba be etorri zan, Eusebio. Alan aume ori arrapatu gendun, eta eroan plazara. Baña lelengo Eusebiok esan eustan:

– Aitari esaiok merienda bat zor daustela.

Eta esan neutsan aitari.

– Orreri, mutil biori, konbidatu zerbait.

Serapio ta Josetxu ziran mutilok, eta Serapiok esan eustan:

– Ba, Andres, guri arrautza bina ta ardaua ta ogia naiko da.

Eta esan neutsan nik:

– Ba onek lagundu dauste. Baña Bengoetxen Joakinen soloan egon ziran auntzakaz arrapatu dogu, eta Joakinek esan daust berari merienda bat ordaintzeko.

Badiño aitak:

– Orrenbeste zor egin bajuk gaurko biajeak, porrot egin jok. Oba gendun etxean egon bagintzazan.

Alan da be, Serapio, Josetxu eta laurok armozau gendun Santxezen tabernan. Eberdirako eldu giñan etxera.

Amak esan euskun denpora asko egin gendula. Baña aitak azaldu eustan zer jazo zan, eta ezin izan nebala arinago etorri.

Etxean bazkaldu ta ni pastore arratsaldean Baso-aundira.

Iluntzean ni bearrezkoa nintzan, etxera auntsak ekarritakoan. Aumeak egoten ziran txokian, umeak eukiteko toki bateri esaten jakon *txokia*, eta nik bakotxari berena emoten neutsan. Ezagutzen nebazan aume danak. Ni sartzen nintzan txoki barrura, ta aita edo beste anaieren bateri eskura emoten neutsazan banan-banan, bakotxari beren aumea. Alan, danak ipinten genduzan esnea edaten, eta danak atzera txokira urrengo goizerarte.

Urrengo goizean, ostera iluntzeko moduan, banan-banan bakotxari, esneak emoteko. Eta armozau eta ni auntsakaz basora iluntzerarte.

Udabarrian bear geiago emoten eurien: esneak be batu eta gaztaiak egin. Alan, etxean be bear geiago, neguan baño.

Eta auntsak egun batzuetan alde baterantza eta beste egun batzuetan beste alderdirantza: kobarantza edo Larrarantza.

Kobak geure etxeti ur dagoz: kilometro batera. Koba aundiak dira. Baltzolako Kobak deitzen jakie. Gu, mutil lagunak, sarritan sartzen giñan barruko zuloetara. Zulo bateti artuta joaten da urrin.

Kanpoti datorren jenteak kordelak ekarten dabez. Baña guk, bedar batzuk artu kanpoan eta joanean botaten genduzan. Gero, bueltan, bedarretati etorten giñan. Barruan erreka bat dago, eta an buelta egiten gendun. Kandela argia zan gure argia. Kanpoti etorten ziranak, linterna onak ekarten ebezan.

Eskursionistari *txusangoak* esaten geuntsen guk. Areek gu baño obeto preparauta, baña obeto genkizan ango barriak guk.

Goazen ostera be auntszetara. Udea etorreanean, mendi alturantzta joaten nintzan. Goizean artu neure maleta bazkaria, eta mendira Eskua aldera, Mañariko ertzera. An atxetan emon eguna eta gaberrako etxera.

Alan, denporea etorreanean botaten gendun errebañua mendira.

Pastoretza zan nire lau urtetako bizimodua, amasei urterarte. Bertsotan be, pastore nabilela ikasi neban.

Lelengo, aitak ekarten eustazan kanta-papelak Urkiolati, San Antonio egunean. Guztiak buruz ikasten nebazan, eta eguna ondo pasatzen neban.

Gero, neu be aitagaz joaten nintzan Urkiolara San Antoniotara, kanta-papelak erosteko ustez, eta an gizon gipuzkoar batek eukazan asko koloreta-koak: gorriak, zuriak, berdeak, urdinak eta daneti. Gizon ori esku biak kendukoa zan. Abots ona eukan eta berak kantau egiten ebazan.

Markesaren alaba, Santa Jenobeba, Zazpi Eriotza, Juizioko eguna, "Zazpi ume txikigaz alargundu nin-tzan", Paulino Uzkuñun eta beste askorenak, mutilzar eta neskar... Gero, uda guztirako neukan ikasteko. Orti ikasi neban nik bertsotan.

Auntzak be antzutu eta Eskuarantza. Astia be zeinbat gure orretarako uda guztian.

Jai egun baten, nigaz batera Eskuako landan bazkaltzeko, etorri ziran mutil kuadrilla bat, amar edo amabiren bat. Txuletak erretzeko eta bazkari ona ekarri eben. Nik amasei urte, baña eurak ziran ogeitaka urtetakoak.

Bazkari ostean, ardua be asko edan zan eta lelengo asi ziran bata baño bestea bertsolari obeagoa zala; eta ni oraindik ixilik. Gero bertsotan asi ziran ogei urteti gorako mutilak: Luis, Jose, Luzio, Basilio, Teofilo, Karpo, Florentino eta abar. Danak bertso bana, patxada bako bertsoak. Eta ni gaztea eta esan eusten:

– Oin pastorea be asi deitela bertsoak botaten.

Asi nintzan da nik bertso onak areen aldean.

Danak arrituta lotu ziran. An ez egoan nire antzeko bertsolaririk, eta mutil batek, Luisek, esan eban:

– Tremendoa onek urten beajok! Emendik aurrrera deitu bear dautzugu *Bertsolaria*.

Alan ixilduta lotu ziran danak. Nik orduan areen ondoan asko nekian bertso kontua.

Jai baten semez Dimekoa zan bertsolari famatu bat etorri zan, Esteban Uriarte, eta an esan eutsen areri:

– Or dago mutiko bat bertsotan ondo egiten dabena.

Eta etorri zan nigana. Alan, lelengo berak eta nik erantzun. Gero esan eban:

– Ez neban sinistuko, Dimeti urten barik olango bertsolaririk egon bear ebanik.

Dana zan pastoretzan ikasia. Orrelan, errian gero ez egoan nire antzeko bertsolaririk. Orregaiti, zer-bait balio eban pastoretzak geroko be.

Ostera be eldu ziran Gabonak, eta auntzakaz etxerantza. Etxe aldean egotaldi bat eta Olazabalera, igezko lekura, Lezarra etxera. An ila bat inguru egin. Ostera etxera. Olazabalera sarritan. Lagun bi joaten giñan. Goizean joan eta gaberako etorri. Andi Ilunbe aldera joaten giñan auntzakaz egunez.

Egun baten, aita ta biok joan giñan, eta ni gana txarragaz gaixorik. Atzera bueltau nintzan. Aita bakarrik lotu zan.

Menditi, iluntzean, soloen erdiko estarta bateti ekarten ziran auntzak, eta solora martxau eutsen auntzak zarataka. Alboko gizon bik lagundu eutsen auntzok etxeratzen. Gero portalean berbaz egon ziran. Aitak esan eutsen:

– Zuekaz be oin zorra daukat.

Eta batak, Antoniok, esan eutson:

– Laguntzea ordeazko da. Igoal beste egun baten zeuk guri laguntasuna emongo dauskuzu. Onelan da mundua.

Baña beste gizona zartxo, ta esaerak ebazan. *Pipas* esan eutsen. Badiño *Pipas*-ek:

– Obeto ez dok izango datorren sapatuan joan ferrira eta bazkaria pagau daijala? Ta urrengoan, beronek egiten badausku mesede bat, ba geuk be beste bazkari bat pagau beroneri.

Olan lotzen zirala gauzak ondo ordainduta. Antoniok ezetz; gizonari ez jakola abusorik egin bear.

Andi urrengo domeka baten, Dimen plazan batu ziran alkarregaz. Gure aitak kuartillu bat arda pagau eutsen; baña *Pipas*-ek:

– Au gitxitxo dok. Baña bestea parkatu egingo jata.

Eta Antoniok:

– Ez, gizona. Au larregi be badok.

Alan, broma aldi bat pasau eurien.

Urrengo egunean ni joan nintzan, eta ni bizkor nengoan. Alan artezten nebazan ondo. Laster osterageure etxera joango gara, aumeak egiteko aldirako, egun batzuetan laguntza geiago izateko.

Egun baten, koba alde inguruan, iru-lau auntz galduta itxi genduzan. Bat *Albo-zuria* zan, eta urrengo egunean etxe ondoti bistan egozan Urrusti atxean. Gero, beste egunean, arantza joan giñan bandeagaz. Sartu ziran bandara, baña aitari esan neutsan nik *Albo-zuria*-k aumea eginda dagola. Baña aumea gordeta izango ebala.

Aitak esan eustan:

– Orain ez bada joaten aumeagana, eroan etxera eta gero segiduan etorriko naz.

Esan da egin. Kortan sartu danak, besteari emon aumeak eta *Albo-zuria* atara kanpora. Artu eban berren arloa artez, Kobaldeko aldera, atxera. Ni atzean. Eldu zan baztar batera, egin eban:

- "Beee!".

Arantza, azpiti urten eban aumeak esnea edateko asmoz, artu aumea eta auntza atzean etxera.

Alan, len esan dodan lez, mendian jaioten dan aumea, beti apartekoa da. Urrengo egunean, a gorde sasipean edo arantzapean, eta bera joaten da jana billatzen. Gordetan itxiten dau umea, priztiren batek jan ez daian. Aintxe egongo da ama etorri artean.

Etxeti ibiliko giñan San Pedro ingururarte; eta aumeak, saltzekoak, saldu. Urrusak azi geienak. Alan, larogeiti eunerantz eldu giñan udarako.

San Antonioz osterara be Urkiolara, kanta-papelak erosten udarako, kantikasteko nik. Ekarriko nebazan amar bat bertso-papel koloretakoak, eta Eskuarantza auntzak bialdu. Egunean buelta bat egiten neban.

Uda ori be bajoian aurrera uda goienerantza, eta berantza Lezartzu aldera. Gabon ingururako etxera. Orduan edurrak be egiten ebazan. Alan, negurako etxe inguruan.

Oraingo neguan, denpora aldi baterako, aumeak egiten asi arte, joango gara neguan auntzakaz Larrabetzura, Txispamendi esaten jakon etxera. Nire osaba bat bizi zan an, mendi ganean. Osaba zan aitaren anaia, Blas; eta iziko, Isidora.

Ara joan nintzan ni eun bat auntzakaz, bakarrik egoteko. Lantzean bein etorten zan aita, baña buelta egiten bakarrik.

Nik osabaren etxean lo egin, jan da dana egiten neban. Osabak be zerbait egiten laguntzen eustan, eta jan be ondo egiten neban, eta pozik nengoan.

Izikoak ifinten eustan bazkaria, eta apirillean etor-
ten nintzan etxera.

Txispamendiko mendian baso aundiak ziran in-
guruan, eta zaintzea fazila zan. Aume batzuk egin
arte, bi ilebete egin nebazan.

Urreko gizon batek, Anastasiok, beren emaztea
gure Indusiko auzokoa eban, da alan ezaguntasuna
egin gendun. Egun baten, beste gizon bategaz etorri
zan, auntz bat umeduna saltzeko beste gizon orreri.
Auntz bat neukan aume bi eginda, ta esne askokoa.

Ba umea eukala gaixorik. eta medikuak agindu
eutsala auntzaren esnea umearantzako, ta ume bi-
koa saltzeko.

Nik ezin neikela saldu aitaren barri barik. Eta
Anastasiok, berotuta:

- A mesedea ez egitea da umea gaixorik daukan
gizon bateri. Aitak esango dau: "Ondo egin dok".

Alan da be, ez neutsan emon. Baña esan neu-
tsan:

- Biar dator aita. Orduan eroango dozu. Baña oin
etxera auntzak eroan da esnea batuko dautsagu be-
rari.

Batu auntzari esnea eta lapiko bat bete eroan
eban.

Urrengo egunean, goizean, etorri zan gizon ori os-
tera be Anastasiogaz. Aita oraindik ez zan etorri, eta
esan neutsan:

- Trankil, gizona. Aita arratsaldean dator. Baña
orain be esnea batu ta eroan.

Eta pozik, bera be bai eta Anastasio be bai.

Arratsaldean etorri zan aita, ta eurak be bai. Egin
eben tratua, eta auntz ori aume biakaz eroan eu-
rien. Auntz ona zan, izan be. Gero be beti ziran es-
ker emoten.

Laster etorren udabarria, ta joan giñan geure etxera. Gero, antzututakoan, ostera be udan Eskuarantza. Artu kanta-papelak kolkoan da auntzetara. Uda au azken uda zan auntzakaz. Uda goienerantza salduko genduzan, Agur pastoretza!

Udan, bi ilebete inguruan, akarra etxean lotuta eukiten gendun, alan auntzak ez deien arinegi umerik artu. Akarra aundia. Adarrak aundiak eukiten ebazan, eta perillea be iñongorik eta aundiena, eta udan usain aundia botaten eban. Solo baztarren baten eukiten gendun lotuta. Alboko bideti batenbat pasatzen bazan, agoz itxita pasau bear, eta esaten eban:

- Ze usain txarra dagon emen!

Eta batenbatek, jakin ezkerro, esaten eban:

- Or Etxenagusiko akarra egongo da.

Egun baten kobatara etorri ziran *txusango* batzuk. Bide ertzean egoan akarra lotuta. Eta, arrimau ziranean ondorantza, sustau ta bueltau egin ziran bildurtuta. Zer ete zan a? Aren adarrak! Eta perilla, iñongo frailek euki dauen baño aundiagoa. Bildurtzekoa zan aren arpegi eta aren atsa.

Gero, denpora etorri orduan, botaten gendun auntzetara. Alan, aumeak norberak nai daben ordu inguruan etorten ziran, eta danak segidu antzean, ez bada beste banda bateko akarren bat egunen baten arrimatu.

Amabost urte nebazanean, auntzak saldu genduzan, da gero basoko lanetan asiko nintzan, eta bai etxekeotan be.

Nire pastoretzari

Eskolarikan ez baneban be
gazte denporan arturik,
mendirik mendi ibiliagaz
sarritan ez bearturik,
uste neban nik lotzen nintzala
munduan atzeraturik,
oin zartzaroan agertuten naz
lenauko frutuz beterik.

Pentsatu neban ez neukala nik
ikasirik mundurako,
ta pastoretza izango zala
beti nire kalterako,
ez nebala nik bide orregaz
probetxurik atarako;
gaur bertsolari agertuten naz
pastorea nintzalako.

Pastoretzat ni nonbrau ninduan
auntzakaz ibilliteko,
goizean artu bazkaria ta
noia egun guztirako.
Biotz biguna izango neban
aitan esana eiteko,
ogi apur bat gaztaiarekin
txarkoz ura edateko.

Zeinbat biderrez egongo nintzan
bustirik gorputz guztia,
eta alboan laguntzat barriz
abere edo pritzia?
Mendi gorantza izerdia ta
gero euriaz bustia,
pena artu bai gazte maite bat
orrelan ikusitia.

Gazte denporan ez neban artu
ondo munduko aria,
gaztetarikan asi ta geiao
ikusirik miseria.
Auntzak saltzea izan zan gero
niretzako loteria,
orain artzen dot gazte denporan
irabaziko saria.

Pozez beterik jarri nintzaden
auntzak saldu ziranean,
naizta sarritan joaten nintzan
basoetara lanean.
Egurra ebagi ikatz eiteko
neure aitan esanean,
jai egunetan bertsoetan da
beti umore onean.

Lau urte egin nitun pastore
amabiti amaseira,
ze bizimodu gazte batentzat
sarri egon naz begira.
Mendirik mendi ibilliteko
gazte denporan lar dira,
ze itxuragaz joango nintzan
azi orduan errira?

Asteke egun eta domeka
egun danetan mendian,
errebañua ondo zaintzeko
beti auntzaren atzian.
Da beti barriz umore onez
pozik nenbillen antzian,
alan kanpuan jentziagaz ta
gabaz be bardin etxian.

Kanta-papelak eukiten nitun
sarri boltsetan artuak,
orlan gazterik ikasirik nik
bertsoetako kontuak.
Bertsolariak izan bear dau
aitagandikan sortuak,
papelez diran bertso guztiak
gero buruan sartuak.

Egun batean amaitu neban
pastoretza nik munduan,
da bertsolari agertu nintzan
erriagana orduan.
Lengo bizitza beti neban nik
buruz eta akorduan,
bertsoz mendia goratzen neban
lagun askoren onduan.



Jentilzubi.

Kantuak eta kontuak

U da goienean artoak etxera ekarri, eta gaba askotan artoak zuritzen. Gabean aitak esaten euskuzan kontuak, eta lenagoko kanta zarrak:

Ama zureak niri,
bidean topaute,
ez deust jamonik egin
burua bueltaute,
ai, ai, ai,
burua bueltaute.

Ama zureak niri
ori egiteko,
ze palazio dauko
zuri donetako?
Ai, ai, ai,
zuri donetako?

Ori egiten eban guri erakustearren antxineko kantak eta kontuak, zelan Anbotoko señorak egiten ebazan iru urte Anboton eta beste iru Gorbaien, eta

bateti bestera sutan pasatzen zala; askok ikusi ebela pasatzen, beti gabaz; Gorbaien egoten zala koba baten, eta Anbotoko atxean beste koba baten. Gorbaien egoan urteak zirala edur urteak, eta Anbotoko urteak aize urteak.

Baña lenago askok ikusi eben aldatzen sutan, eta orain ez dau inok be ikusten. Ez dakit zer jazo jakon edo il egingo zan.

Eta beste kontu batzuk ziran lenago: ezkontzarako errekadu egiten zala ezagutu barik. Alan, mutilak naiz neskeak, etxedunak baziran, zelan etxe bat daukan; edo, bestela, mutil fina zala edo neska fina zala. Eta aita be inoz joan zan errekadu egiten. Baiezkoa izan ezkerro, pozik lotzen zala; eta antxine ezkontzarik geienak orrelan egiten zirala.

Eta guk esaten geuntsan neskea ezagutu barik zelan izan laiken ori.

Orrelango kontuak eta lenagoko kantak ibilliten genduzan gogoan:

Urkiolara joan,
zapatak urrutu,
Aita San Antoniok
barriak ingo'itu,
ai, ai, ai,
barriak ingo'itu.

Altzak orria zabal
Begoñe ganean,
asko be zabalaoa
Basobaltz aldean,
ai, ai, ai,
Basobaltz aldean.

Amorebietako
bizi-alarguna,
bakarrik egon barik
artuizu laguna,
ai, ai, ai,
artuizu laguna.

Ederra ta galanta
biek leku baten,
ona ta aberatsa
gatx diraz billatzen,
ai, ai, ai,
gatx diraz billatzen.

– Antonio, nora zoiatz
zeure bibolin orregaz?
– Santa Krutz Bizkargikora
noia soñua jotera,
ai, ai, ai,
soñua jotera.

Negua gogor dago ta
mendi altuan edurre,
alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

Kandelario lario,
atxeti ura dario;
mendi altuan edurre,
Kandelario egune.

Amak emon baleustez
amabost ogeiko,

ezkonduko nintzala
udabarrirako,
ai, ai, ai,
udabarrirako.

Katalin Begoñako
neska famatue,
neska ederra eta
ganera dirue,
ai, ai, ai,
ganera dirue.

Etxedun mutila da
Fernando goikoa,
arek ni lezko batez
badauka naikoa,
ai, ai, ai,
badauka naikoa.

Txiki-txikitarikan
etxeti kanpora,
estranjeri partean
emon dot denpora,
ai, ai, ai,
emon dot denpora.

Aita-semeak tabernan diraz,
ama ta alaba jokoan,
ostera bere egongo diraz
bei arrandunak auzoan.

Aldapako sagarraren
adarraren puntan,

puntaren puntan,
txoritxo dago kantari:
txiruliruri, txiruliruri,
nok dantzatuko ete dau
soñutxu ori?

Bilbo Bilbo esaten deurie,
ez dago Bilbo langorik;
ardau zurie edaten daurie
bapebe duda bagerik.

Gure etxeti gertu dagoz Baltzolako Kobak esaten jaken kobak. Koba orren ondoan dago Jentilzubi esaten jakon atxezko zubia. Aren ganeti auntzak pasatzen dira, eta geu be gaztetan sarritan pasatzen giñan. Baña ez dago ondo pasatzeko.

Lengo zarrak esaten eben jentilak ebizala zubi ori ondo egiten, eta Dimeko kanpaia entzun ebela, ta koba barrura sartu zirala, eta oraindik koba barruan dagozala.

Agaiti, gabaz ara ondorantza ez joateko esaten euskuen aidak eta amak, ze jentilak gabaz urten laikiela kobati, buelta bat emoten da.

Ba Jentilzubi ori an dago,
au da gauza seguruan,
baña ziurrik nok egiña dan
ez da jarri liburuan.
Baña zubia tenterik dago
oin be lengo inguruan,
oraindik ziurtasunik barik
jakintsuaren buruan.

Dimeko eleizan len egon zan kanpai nagusia, omen zan inon ez egoan modukoa, onez. Kalidadez ez egoala aren antzekorik mundu guztian.

Ori entzunik, etorri zirala Erromati kanpai ori erosteko, eta agindu eutsela kanpaia bera bete urre gorri. Baña parrokoak esan ebala kanpai ori Dimeko erriarena zala, ta ezin daikela saldu erriarentzat ekarriko gauzarik.

Orrelan lotu zan errirako ta betirako.

Baña gero eleiza ori erre egin zan, eta gure kanpai orrek galdu eban doñua ta lengo izatea.

Gure kanpaia onena zala
jakiñik mundu guztian,
animu asko zabalduko zan
erritarraren artian.
Erabagia artuteko zan
anaien batzar batian,
saldu obeto bera betezko
urre gorri ematian.

Lengoak esaten eben bein baten, erri baten, abade bat egon zala meza emoten. Mezearen erdian beren txakurra etorrela erbi baten atzean; eta abadeak, asmau ebanean txakurra erbiagaz, itxi meze-ari, artu eskopeta eta joan zala erbia arrapatzen. Gero Jaungoikoak kastigau egin ebala abadea, eta oraindik be txakurragaz erbiaren atzean dabilela; eta askok gaba askotan entzun ebela txakur ausiak eta abadearen txistua.

Dimeko errian Makastui dago auzune bat, eta bein baten ikusi eurien iru bat metroko luzari inguruko subea, eta bildurtu ziran.

Zeanurin egon zan abade bat, Belentxo esaten

eutsena; eta gogoratu jakien ango jenteari Belentxo ekartea benedeziño bat botateko sube orri.

Joan ziran Belentxogana, eta esan eutsen baietz; eia geratu ziran domeka arratsalderako.

Alan, inguruetako jente guztia abisau ta eldu zan egun ori. Etorri zan jente asko. Belentxo eldu zan. Ifini eban abitu zuria, artu eban beren oraziñoako liburua eta leidu ebazan oraziñoak, eta esan eutsan subeari:

– Lurpean bazagoz, ez dozu geiago urtengo kanpora; eta kanpoan bazagoz, etzara lotuko Txinako diabru kobararte.

Ain garanti aundia zan eta jenteak esaten eban:

– Olango milagrorik! Gora Belentxo!

Zelan ziurtasun aundia ifini eban, jente guztia arrituta:

– A izan da egizko benedeziñoa. Olango benedeziñoak sarri bear dira baserrian!

Eta andra batek gero, Filomenak, badiñotso Belentxori, ziurtasun aundia ikusita:

– Belentxo, beste benedeziño bat bota laike arratoi, sube txiki ta peste guztientzako.

Eta badiño Belentxok:

– Bendeziñoa gauza danentzat da ona. Baña zuk diñozun orrentzat, goatu ta garbitzea da onena.

Ixilduta lotu ziran danak.

Bendeziñoa dana ona zala
Belentxoren esatea,
orregaitiño emongo eutsan
beren izate betea.
Ze miraria sube orreri
kastigua emotea!

Alan da bere bitxo txikerrak
obe zan garbitutea.

Dimen Durangokorta esaten jakon baserri bat da, mendi guztien erdian bakarrik; eta an egon zira la aldi baten neska bi, aitzak biak, bata Ermenejilda eta bestea Sebastianara.

Astean esan eutsen mutil batek:

– Datorren domekan Dimeti joango gara mutil mordo bat, an eguna pasatzeko zuekaz.

Eta Ermenejilda bestea baño apur bat listagoa, eta diñotso Sebastianari:

– Egur busti antzakaz egingo juk sua. Alan, keia botako jona suak, eta ni jarriko naun keian aldeti, eta esango juat: “Au dok keia!”. Eta ik esango dona: “Keia galantagana joaten dona”.

Eldu zan egun ori; etorri ziran mutilok; egin eban sua eta keia; eta Ermenejilda jarri zan keiaren aldeti eta dana keia, eta badiño Ermenejildak:

– Au dok keia!

Eta badiñotso Sebastianak:

– Keia galantagana joaten dona.

Eta Ermenejildak:

– Ni galanta nok ala?

– Ba euk esan daustena esateko ta...

Or argiratu zan Ermenejildaren jakituria, eta ez zan txarto joango igoal, ze mutilak be ez ziran jakitunak izango ta.

Durangokortako neska biak
jakituria betean,
mutil gazteak etozela ta
abilik euren artean.

Galantagana keia doiala
aizta batek esatean,
eta mutil bat enganatzeko
kokolo dan bitartean.

Eta beste kontu asko be bai. Baña orain ez dodaz
akorduan.



An - to - ni - o no - ra zo - iaz? zeu -



re bi - bo - lin 'o - rre - gaz San - ta Krutz Biz - kar - gi -



ko - ra no - la so - ñu - a jo - te - ra



ai, ai, ai, so - ñu - a jo - te -



ra.



A - ma zu - re - ak ni - ri bi - de -



an to - pau - te ez deust ja - mo - nik



e - gin bu - ru - a de - lau - te



ai, ai, ai, bu - ru - a de - lau -



te



Ne -gu a go-gor -da - gø ta - men - di



al - tu - an e - du - rre a - la -



ba ga - lan - ten a - mak mu - til zan - ta - rren bil -



du - rre.



Al - ta se - me - ak ta - ber - nan di - raz a - ma



taa - la - ba jo - ko - an os - te - ra be - re e - gon - go



di - raz bei a - rran - du - nak au - zo - an.



Al da - pa - -ko sa - ga - rra - ren - a - da - rra - ren



pun - tan pun - ta - ren pun - tan




txo - ri - txo - a da - go kan - ta -



ri Txi - ru - li - ru - li



Txi - ru - li - ru - li



nork dan - tza - tu - ko o - te du



so - ñu - txo o - ri.

Antxineko oiturak

Katalin goikoa da
neska famatua,
galanta ta ganera
modu onekua;
errekadu eiteko
badot talentua,
andratzat artuteko
Katalin lakua.

Berba egin dautsat nik
Juana bekoari,
neska bat modu onez
billatzeko niri;
beren erantzuna zan:
“Egingo'utzut ori,
baña ni nabillenik
ez esan iñori”.

Katalini berbatzen
Juana laster juan,
esan eutsan nitzako
egia orduan;
Katalinek erantzun
nik ze diru duan,
da Juana etorri zan
juan zan moduan.

Ni mutil gaztea ta
banengon majorik,
arin ezkonduteko
ezin ein botorik;
sasoia eta gazte,
ez daukat besterik,
Katalinek ez dau nai
ondasun bakorik.

Gero Juanak esanik
amaitzeko lana
bera joango zala
beste batengana;
an be bardin jazo zan
lengoak esana:
etzula gure mutil
ezer eztaukana.

Ni, Bartolo, gazte ta
etxura onekua,
neure denporan einda
lanikan naikua;
biziteko etxean
aitagaz lekua,
iñok be eztau gure
modurik bakua.

Oraindik gaztea naz,
al neike billatu,
errekadu egiteko
gogo bat dot artu:
Jose auzokoari
mesedez eskatu,
berak ateak orti
laster joko ditu.

Jose auzokoa zan
gizon bat prestua,
orretarako berak
bazun meritua;
ni mutil ona baña
falta kreditua,
Josek be ezin egin
iñogaz tratua.

Nik or ezkontuteko
baneban jenio,
baña bakarrik nago
len legez oindio;
nobia billatzeko
ez nintzaden jaio,
diru bako mutilak
oin eztau balio.

Ainbat lekutan ein dot
atez eskatuta,
auzoetako zarrak
be molestatuta,
erabagia badot
orain nik artuta:
aitaz bizi bearko
mutilzar lotuta.

Basoko lanak

Ikazkintza

Amazazpi urte nebazan, baserrian lan egitera asi nintzanean. Lau zaarrenak, famelian ziranak, kriadu ta kriada ziran. Nik be zeozer egin bear neban, da aita asi zan basoak erosten ikatz egiteko.

Gero orduan, anaie zaarra kriadu egoana be etxera etorri zan, eta aita, anaie ta ni joaten giñan basora, arbolak bota, materiala daukana apartau eta egurra ikatz egosteko; luzarietan ifini txondorra egiteko.

Txondorra zelan egin bear dan esatera noia. Bada lelengo egurra sikatu egin bear da. Alan, neguan asiten da lanean egurrak ebaten; eta, basoa urrintxo badago, txabolea egiten da, zaparradak diranean legorrean egoteko.

Egurra sikatu orduan, udarantza txondorrak egiteko, San Antonio inguruti San Migeletararte. Uda goienez euria bada, txondorrean galtze aundia egoten da.

Txondorra zer dan esatera noia. Lelengo, lurrean egiten zan botoa. Botoa da lekua txondorra egiteko, zelai bat, barreneti ginda esi bat. Goialdeari esaten jako *munondoa* edo *kokotea*; esi aldeari *bularra*. Eta botoaren erdian asi.

Txondorra nagusia danean, mukurrekaz egiten da. Erdian itxi suetxea, ganeko salan mukur txikerragoak, eta irugarren kamadan txikerragoak, beti erdian suetxea zainduta. Eta, an sala egiteko, egur meiak ganean, gorantza estutuez. Amaitzeko egur laburrak eta meiak, beian asita. Zuloak artez joan bear dau, sua botateko zulo orretati.

Txondorrak beia dauka zabala, eta punta zorrotza ganeko partea. Egur meia edo adakiagaz kanpoak artzen dira, fin lotu daiten.

Dana amaituten dan orduan, puntako zuloari zoi bat ezarriten jake, eta egurrezko kurutze txiki bat puntan.

Zoia da zuloa tapatzeko; euria egingo baleu, urik ez daiten sartu. Gero tapau egin bear da. Lelengo, idea edo orbela. Zoia edo zaputza ganean. Eta gero iduria, badago inguruan. Iduria deitzen jake len txondorra egindako lekuan dagoan autsa, edo ikatzak itxiko ondakina. Iduririk ez badago, lurra. Baña lurra txarra izaten da, eta batzuetan urrinagoti be iduria ekarri egiten da zestoak beteta lepoan edo trapan. Trapa da, egur bi jarri, eta ganean beste batzuk trabes, sokeaz-edo amarrau puntati, eta orrellan ekarri iduria. Ideagaz txondor dana artuta badago, iduriagaz tapau, gertu badago.

Sua botateko goiti bera zuloti, egiten da su bat txondorraren ondoan. Brasa aundi bat dagoanean, pala baten artzen da sua; eta, bota baño arinago, txondorraren puntan, eskumako eskuan dauka pala suagaz eta pala orregaz egiten dau *Aitearen*, su ori ona izan daiten txondorragaz; eta kurutzea aldatuko dau txondorraren goi aldeko munora, lelengo kurutzeagaz be *Aitearen* eginda. Eta kurutze ori tente izango da, txondorrak diran artean.

Sua gero botaten segiduko dau. Eskilara bat dago txondorrari igoteko, eta lelengo egunean sarritan

igongo dau ganera. Ordu birik ordu bira botako dautsoz txirikelak, errema txikerrak, indarra arzteko. Gero zulo ori zarratu.

Urrengo egunean, suak atara, zilageagaz zirrikatu. Normalean, suan ifini ta lelengo egunean ez, baña gero bost bat egunean egunero emoten jako betegarria. Goi partean jausi ta zuloa egiten jakon, eta zabaldu goiti tapea, egurragaz bete ta ostera be tapau, len egon dan antzean. Alan, egosi arte.

Gero, egin zuloak bueltan. Be partean egosita badago, egun baten itxi geldian, eta gero porratu japa-lageagaz.

Gabaz be zaindu egin bear zan. Alan, aita eta seme bat lotzen giñan txabolan, eta irugarrena gabean etxera. Txabolea aurrezti eginda eukiten gendun; alan, euria egiten baeban be, legorra eukiteko. Etxera joaten zanak, egunerako jana ekarten eban.

Urrengo egunean azalak atara. Alan, egunean kamada bat, eta zabaldu larrinean. Larrine esaten jako botoaren inguruari. Garbituta egoten da ikatza zabalteko egindako tokia, eta egunean ikatza zabaldu; eta, surik badago, amatau.

Gero, larrinean batu ta, zakuak badagoz, zakuetan sartu. Ez badago zakurik, pilatu, esi bat eginda be aldeti, gitxi bustiteko.

Batzuetan, txondorra danean erreameagaz edo adakiagaz edo besalleagaz egiña, egur meia dan lez, egun gitxiago tardatzen dau. Baña lanak antzera dira orduan. Igual iru egun tardatzen dau. Eta azkenean, txondorrak itxi. Baditu egur zatiren batzuk ondo egosi barik, oneri esaten jake ilintxak; eta, onek danak batuta, egiten da txondor txiki bat, eta oni esaten jako larrondoa.

Txondorrak, egosi orduan, ez dauka keirik botaten; baña bero aundia, sua dago ta.

Gero, iluntze batean, otzitu egin bear da. Palea-

gaz jo ta ur apur bat bota, eta otzitu egiten da. Estututa lotzen da.

Urrengo goizean, goizeti eguna zabaldu orduko edo argi samarrean, atara egiten da ikatza, egunean kamada bat, eta tapau. Autsa txondorrera atzera, da urrengo egunean beste kamada bat. Alan izaten da txondor guztien azkena; eta, zakuak badagoz, amaitu da basoko lana. Dana zakuetan sartu ta etxera. Esaten da:

– Onenbeste ikatz karga egin doguz.

Karga izaten da zaku bi, eta zaku bakotxak euki bear dau bederatzi kuarta edo ogei ta zazpi zelemín, eta zakuen neurria da 60 x 100 zentimetro. Beti trautua izaten zan kargako.

Egunero, zakuak baegozan, zakuetan sartuta ifinten zan. Ez badago zakurik, esi bat egin eta aren kontrarantza pillo aundi bat egiten zan, gero, zakuak datozenean, sartzeko. Alan amaitzen da txondorraren lantegia.

Basoan, txabolan, ze bizimodu egiten zan orduan? Guk askok baño obeto, ze egunero bat etxera joaten giñan, etxea ur egoanean.

Etxera doianak ekarten eban jatekoa. Batzuetan esnea be bai, goizean armozetako. Eberdian babea ondo egosita urdeiegaz. Ardaua be batzuetan bagendun. Gabean sarritan berakatz zopea, eta ganean urdeia.

Gabaz etxera doiana, goizean goizeti etorten zan armozua ekarten.

Urte baten, basoa urrin geunkan, eta orduan astean baten bakarrik joaten giñan etxera. Urune ekarten gendun taloak egiteko, eta baba beltza edo baba nagusia esaten geuntsan, gantzagiegaz egosita. Ganerako, urdeia edo gaztaia.

Gabean, txondorrak bakez baegozan, lo ondo egi-

ten gendun. Txabolan, oitzat, azpian abarra eta ganean in̄errea, ta tapatzeko manta bat.

Ikatz ataratea egon ezkeru, laurak inguruan goizean altza bear zan. Ikatza atara, suak amatau. Bero aundia eukiten eban. Agaiti, freskuran ibili bear zan.

Gero, armozau, urdeia sartanean erre ta koi-petsu. Aita izaten zan kozinerua. Taloak egin eta garetiko dana.

Uda azkenean ikatz egostea amaitu ta etorten giñan etxera, Urriaren lelengo aldera. Gero, aitak preparamaten eban urrengo urterako lantegi barria. Orti Gabonera, etxe antzean izaten giñan.

Bizimodu ona: obeto jan, lo geiago egin... Domeka arratsaldean tabernara joan ezkeru, bertsoan be egiten gendun.

Gerra aurreti

Aitagaz ikatz egiten, lelengo, Oladu baserriaren ondoan gerra aurreti zan. Neguan asi giñan basoan lanean. Arbolak iñusi; ebagi neurri antzera; lodiak baziran astillatu, obeto sikatu daitezana...

Baña txabolea egin bear zan, ara joan da euria egiten baeban etxepera joateko. Gero trankil. Euri apur batgaiti, basora joaten giñan.

Baso dana ebagi ta sikatzen ifini. Gero botoak egin eta pillatu egurra boto ondora. Udarantza txondorrek kargau, tapau ta San Antonio inguruan suak emoteko.

Gaba baten aizeak emon da txondor bat guztiz erre egin jakun. Iluntzean betegarria emonda itxi gendun; baña egoaizeak emon barriz gabeen, eta dana gar baten zan ikusi orduko. Alan da be amatau gendun, baña erdia erre ta gero. Alan, baso arretan irabazi gitxi izango zan.

Udea basoan emon eta uda goienezan diru gitxi; eta orduan, barriz, dendati janaria asko uda goienezan ordaintzeko eroaten zan, ze uda goienezan ikatzak be kobratzen ziran, eta errenta pagau, dendea pagau ta, ezer sobratzen bazan, ondo.

Akorduan daukat aita joan Dimera dendariari pagatzen eta dendariak esan eutsala:

- Au da gizona! Pagatzen dator. Kopatxo bat emon bear dautzut.

Gabon aldera etxe antzean. Txarria be il eta tran- kil gero.

Baña ostean ostera be urterako lana topau egiten gendun. Aitak erosten eban basoren bat.

Baña gero gerra denpora etorri zan, eta gendun basoa etxeti urrean, Landizolako Akilinori erosita, ikatza egitekotzat.

Gero etorri jakuzan egurra erosteko Otxandioko frenterako. Asi giñan ara bialtzen, eta gero frentea aldatu zan da ordaindu barik itxi euskun gure Euskadiko gobiernoak. Eta geu be ebakuau ta joan giñan; eta alan lotu zan gure urte aretako lan ori: Akilinori ordaindu bear eta geuk kobratu barik.

Ni, barriz, soldadiskara joan nintzan; eta, an gazte denporarik onena emon, lelengo baten aldeti eta gero besteen aldeti.

Txinorretan

Urteak pasa ta gero etorri nintzaneko, etxean aita ta ama anai gazteagaz egozan. Ostera be etxean nago aita ta amaren ondoan, eta baso lanerako prest nengoan, ikatza egosten.

Alan, urte baten, Txinorretan gendun basoa. Ikatz asko egosi gendun an. Baso aundia zan, gure ugazabari erositita, Don Migel Igorreko medikuari.

An genbizan, asi neguan egur preparamen eta uda guztian. Orduan giñan iru aita-sume, eta laugarrena be askotan. Kanpoko batzuk be ibiltzen genduzan udan, denpora onakaz.

Baso ona zan, txarko gitxikoa. Egurra sikatua egoanean, botoak egin eta txondorrak kargau. Tapau zoiagaz, Astoa landati ekarrita. Iduria be urrean egoan. Alan, dana ondo egoan.

Bagoiazan udan aurrera txondorrakaz. Ikatz asko egin gendun. Baña barriadako jaiak Urriaren 4-an, San Frantziskotan. Eguna baetoren eta prisara ibili giñan etxerako.

Azkeneko ikatzak pilla aundi bat egin gendun, esia azpi aldeti ifinita. Eta beste zaku partida bat ikatzagaz bete ta itxi gendun, eta etorri giñan danok etxera jaiak pasatzen.

Baña bigarren egunean, iluntze aldera, artu gendun abisua ikatzak erretan egozala. Abisua Kortabarriko Justok ekarri euskun, euren etxeti bistan egon zan baso ori ta.

Joan giñan gabea galapan eta a zan ikustekoa! Dana sutan egoan pila aundi ori, eta zakueta bete be bai. Asi giñan pilloari ura botaten, eta zakuak erre bakoak apartatzen, eta goizerako ia amaitu gendun. Janari apur bat bagendun, eta ura edan. Da aitak esan euskun guri:

– Bueno, ni lotuko naz zaintzen, eta zuek lo apur bat egin, gaba guztian lorik egin barik.

Alan, iru mutil etxun txabolan eta lo apur bat egin gendun. Baña aitak ez.

Alan, udan ondo joan zan baso ori; azkenean txartu zan.

Egun gitxi barru amaitu larrondo ta ondakin guztiak eta etorri giñan etxera, irabazia gitxituta, ondo irabazteko esperantzaz emondako urtea.

Len esan dodan lez, Gabon ostean asiten zan aita lantegi barria billatzen. Baña edurrak be egiten ebazan. Alan, otsaillean asi ta aurrera, basora. Martia izaten zan basoan lan egiteko garairik eta onena. Eguna be luzatuta. Negua be bukatuta. Kukua be badator eta ondo gagoz.

Egurak ebagi eta udarako preparatzen. Txabolea otsaillean egiten zan, naizta udarte lorik ez egin an, euri zaparradaren batzuk badatoz be, legorrera joateko. Alan, bada ezpadako eguraldian be joaten giñan basora, zaparrada bat egin arren. Gero atertu ta lan egiteko aro ona.

Eta egurginak ez dau otzik eukiten, ze azkorea berotzeko da, eta lenagoko trontzea be bai. Neguan baso bearra ona da, gorputza berotzen dalako. Basoan ez da jinasiarik bear, oraingo askoren moduan.

Alan, udabarria garairik eta onena baso lanerako. Udan sarritan bero egiten dau, eta neguan euria edo edurra. Martia eta Apirilla baso lanerako onenak dira, oraindik bero aundi barik.

Gure aitak esaten eban Martiko egun batek gizonak egin laikela basoan lana Abuztuko egun bitan beste.

Eta orrelan lan asko egiten zan Martian eta Apirillean egurra preparatzen, ze udako beroak alpertu egiten dabe gorputza, gerizpera begira. Alan, lanik eta gogorrenak udabarri partean egiten ziran gure artean.

Lezartzu eta Atxaldapa

Lezartzun eta Atxaldapan urrengo urtean, naikoa Letxeti urrean; eta ni baso orretati lo egiten etxera joaten nintzan. Goizean, eguneroko janariagaz, joan basora.

An be txondor bategaz txarto ibili giñan. Txar-koen ganean egin gendun eta azpiti aizea artu eban. Kontra-terrenoan esi aundia eukan; eta, sua emon jakonean, azpiti aizea artu ta asi zan ensegida garretan, eta ezin gendun geratu.

Alan, amabost egun egin bear eban txondorrak, iru egunean egosi edo erre egin zan, eta ez eban ikatzik emon, erre zalako. Ainbeste egurreko txondorra eta ia dana erre. Alan, agur bearrak eta irabaziak. Uda onetan be azkenean ez zan izango soldata aundirik etxerako.

Guk beti geure kontura egiten gendun lan, aita ta seme danak, etxerako jornalean. Plazerian ez giñan iñoz ibili. Plazerian izaten zan beste baten kontura ikatza gostea. Orduan esaten zan:

– Onenbeste plazeri dauka kargako.

Amabost edo ogei erreal zan sarritan plazeria. Baña ez gendun iñoz plazeriko lanik egin; eta ikatza kamiñora atarata saltzen gendun.

Akarreoa, edo idiakaz edo mandoakaz. Mandoakaz geiagotan egiten gendun. Mandoak, batzuetan eguneko jornala; edo kargako onenbeste igoal. Basoan be idiak ibiltan genduzan egurra batzen, batzuetan trapeagaz.

Gregorio Uzabaletakoa sarri ibiltan gendun. Idiak ez eban iñoz kinatzen. Zarata asko bai:

– Ia bada! Rekoño! Ze diabru!

Larregi olango zaratak, baña zaindu ondo idiak. Eguneko jornalean ibiltan zan.

Mandoakaz ibiltan genduzan errotariak: Anjel, Nemesio ta Txomin Mugaz, ta Errotabarrikoak, eta bai Basilio be iñoz. Onek sarritan kargako. Esatan zan:

– Basoti kamiñoraño ikatzen akarreoa, Urlia basoti onenbeste; besteti onenbeste.

Ikatza sarritan guk saltzen geuntsan Bilbo edo Gasteizko karboneruari. Eta gerra ostean, asi ziran gasojenoak, orduan gasojenoetarako, ikatz ona bazan, ze orretarako izan bear eban ikatz ona ta sikua, umedade barik. Kamioiak eta autobusak be gasojenoagaz ibiltan ziran orduan.

Ikatzaren prezioak be igo egin eban; eta irabazi aundiagoa izatan gendun, edo bizimodu obeagoa zan guretzako.

Domeketan aitak libre guretzako; eta gero, iluntzean, bertsotan be egiten gendun. Astean ez zan jai domekea baño. Ez zan, oraingo moduan, bariku iluntzea, sapatu egun guztia eta gero domekea. Gazteen dibertsioak asko aldau dira. Guretzako domekea bakarrik zan, eta astelenean ostera be basora, urte guztian.

Gabon inguruan deskantsu apur bat egiten gendun. Basoak amaitu eta barriak astorduko. Asi Domu Santuetan eta San Blaserarte, ez gendun

bear aundirik egiten. Alan, astean, iluntzean, igoal ber-tsotan sarritan.

Baña gero, baso barriak asi orduan, ez egoan astirik orretarako. Orduan erromeririk be astean ez egoan. Domeketan bakarrik zan jaia. Alan be, gu plazara gitxi joaten giñan. Sarri, barriadan taberna bat egon zan, eta an lotzen giñan.

Uda parteko jaietan bai; joaten giñan erromerietara edo plazara edo barriadaren baten egoten zan jaira. Apur baten erromerian eta gero tabernan ber-tsotan, da gabean etxera mutil mordo bat batera, bertso ta kanta. Orain joan ziran orrek, gauzok.

Sorgin-basoak

Oraingo urtean asi eta iru urtean, Sorgin-basoak esaten jaken basoetan ibili giñan. Trintxera esaten jakon basoan emon gendun lelenko urtea.

Pagadi aundiak ziran. Bota ondoti, materialak apartau eta arek aparte saldu; eta gero egurragaz ikatza egin.

Orduan aitak ni ifini ninduan salmentarako. Alan, sarri joaten nintzan Bilbora, eta bai Gasteizera, materiala saltzen eta ikatzak saltzen.

Uda guztian geunkazan txondorrek sutan. Orduan nik ez neban txabolan lorik egiten. Aita eta anai zarra, Luzio, lotzen ziran lo egiten.

Orduan bagenduzan kanpoko jornaleroak be. Karreteroak ibiliten genduzan: Gregorio Uzabaletakoa eta Nikomedes Abostietakoa, eta geiago be bai. Egunez sei edo zortzi bat gizon lanean; gabaz bi bakarrik, ze txondorrari iluntzean emon ezkerro betegarria, gabean ez da mobitzen urrengo arratsalde-rarte. Iluntzetan emoten ziran betegarriak. Egurra betegarrirako prestatua egoten zan. Gero, egosi orduan, iluntzean, porratu egiten zan, otzitu daitean.

Goizean, egunagaz batera, asi ikatza ataraten. Egunean tramada bat ataraten zan, eta txondorra-

ren inguruan zabaldu. Larrina esaten jako inguruari. Garbituta egoten da. Dana zabal dagoan ikatz ori, arratsaldean edo zakuetan sartu edo, azpiko aldean esia eginda, pillean ifini, eta atzera larrina garbi-garbi, urrengo goizean beste kamada bat atarateko; eta lotzen danari autsa bota, surik ez dagion urten. Olan, egunean kamada bat.

Amaitzen da txondorra. Ilintzarik badago, apartau; eta ondakinokaz egiten da larrondoak. Ilintxa gitxi badago, adaki batzuk nastuta. Adakia esaten jako egur meñari edo besailleari. Eta sarritan, gitxi badira, txondor bi edo iruren arteti lotu diranakaz egiten da larrondo bat. *Larrondoak egiten* esan gure dau basoa amaitzen dagola.

Ze lan daukan baso batek esango dot orain. Len be esan dodanez, urtearen asieran asi arbolak botaten. Lelengo, txabolea egin basoaren erdian egurragaz, eta ganean idea eta zoia. Barruan, lo egiteko lekua. Aurreko aldean, egurrezko jarlekua; alboan, sua egiteko lekua; eta egurrezko lauki batzuk be jersarteko. Ori da ikazginen etxea.

Txabolea amaituta badago, asi arbolak botaten. Materiala edo trongoak apartau. Onek idiakaz atara kamiñora tarras, an kamioian, saltzeko zerrerietarako.

Kendu basoti material danak; eta lotzen zana ikatz egiteko, uda guztiaren barruan. Udabarrian sikatu: txarkoti atara eguzkitara, lepoan sarritan. Neurrietan ifini; lodiak astillatu sikatu daitezcan; da, olan ifini orduan egur dana, botoak egin eta ondoratu; eta, egurra siku baegoan, asi laike txondorra egiten.

An porra lodiak badagoz, ifini aundienak beian. Erdian zulo bat itxi; ganerantza txikerragoak, gorantza-gorantza, beti zainduta erdiko zuloa, sua botateko.

Txondorra eginda badago, ganean tapea bear dau. Egur meiakaz bardindu ondo. Gero, zoia badago, ifini zoia danean; eta, zoirik ez badago urrean, lelengo idea edo orbela edo zaputza, eta ganean iduria; eta zoi bategaz tapau zuloa, ez daiten euririk sartu.

Kurutzea ipinten jako txondorrari puntan, egur zati bigaz eginda; eta sua emon artean an egoten da tente txondorraren puntan; eta, sua emon bear dan orduan, aldatu egiten da kurutzea, da botoen ganeke aldeko munan sartzen da. An egoten da txondorra dagon artean, eta txondor bakoak eukiten dau beren kurutzea, zaindari lez. Kurutzea ezaugarri aundia da; eta txondorra amaituta dagola esateko, kurutzea bear dau ganean euki.

Goazen orain Usaltu basora. Gabon ostean asiko gara preparatzen egurra. Lelengo egingo dogu txabolea, aundia, ze baso bi dira batera eta langille asko joango gara. Egin txabola, baña neguan ez dogu lorik egingo udabarrirarte. Baña Maietzean batenbatzuk lotuko dira lo egiten, eta egiago.

Uda guztian karreteroak idiakaz asiko dira materialak eroaten kamiño ondorantza, Zumeltzara; ba lan asko dago trongoak ataraten kamiñora. An ibiliko dira Inazio Oladukoa eta Gregorio Uzabaletakoa idiakaz.

Lotzen diran egur eta mukurrak ikatzerako izango dira, eta asiko gara egurrak preparatzen eta botoak egiten. Lelengo, egurra ebagi neurri antzera ikatzerako. Lodiak astillatu, sikatu daitezcan. Mukurrak zatitu. Gero, boto ondorantza urreratuko doguz; eta, sikatu orduan, asiko gara txondorrak egiten: mukurrak, lelengo kamadan: aundienak lelengo, txikertxoagoak ganean.

Alde batera genduzan txondor asko sutan, basoa aundia zan lez. Egun baten, Inazio Oladukoa etorri

zan idiakaz. Idi turango polit batzuk ebazan; eta txondor bat azkeneko auts gorrian egoala, sartu ebezan ankak eta apatzak erre egin jakuzan. Geiago ez eben balio basorako. Gero okelarako saldu egin bear ebazan. Galtze aundia izan eban.

Kamiñoti kilometro bi egoan basoa. Isidro Arka-bolakoak gero ikatzak geienak atara ebazan. An ondoan bizi zan eta etorriten ziran beiak, astoa eta fameli dana. Batzuk beiagaz burdiagaz, astoa beste karro bategaz, eta alan egunean mordoa ataraten eben kamiñora, zakuetan ikatza artuta.

Ni orduan egun askotan kamioiari laguntzen joaten nintzan. Pisua ikusi eta zeinbat balio eban atara. Kobratu eta artu-emoneko lanak egiten nebazan. Edo nintzan basoan edo Bilboti. Egun askotan nik egiten nebazan negozioko artu-emonak danak. Alan, egun baten Bilbora eta besteetan basoan.

Uda guztia emongo gendun baso orretan, eta estu ibili giñan, uda goienez ezin amaituta, ze bein euriak emon ezkeru uda goienez, basoan triste egoten zan. Uda guztian txarkoetati egurrak ataraten, eta uda goienez sarritan txarkora botaten, ze etxera joateko garaia zan da amaitzeko basoari.

Ia kantsauta basoan eta gaba luze, ta basoa amaitu gure; etxera negurako etorri gure. Olan zan gure bizimodua. Domu Santuetan basoan motz dago, eta etxera begira. Larrondoak da atzeneko larrondoak, eta prisaka basoa amaitzen.

Gabon ostean asi bear gendun ainbaten, eta oraingo aldian bagenduzan garrastak be negurako, Landeisu Abostietakoari erosita. Garrazta aundiak eta mordo bat txarko baten egozan neguan.

Idi pareja bigaz joan giñan atarateko kamiñora. Pablo Artabe bata, nire osaba zan; eta bestea, Patxo Ituruskua.

Goiz guztian trongo bat ezin atarata txarkoti.

Amaikak inguruan apur bat etxoten jarri giñan nire aita, osaba Pablo eta Patxo; eta Patxo kontularia zan eta Patxok badiñotse nire aita ta osabari:

– Zuen bion aitak entzun neban nik ogei arroako pisua lepoan metro batzuk eroan ebala. Neuk ez neban ikusi; baña an egon zan batek esan eustan area ogei arroa zakuan ifini eta emon lepora, eta eroan ebala metro batzuk. Ba semeok emen zagoze zuek. Onak bai: baña on utsagaz onek, garrastok, ez daukie ezer. Emen diabrua be lagun artu bearko da, garrastok atara bear badira txarko onetati.

Eta ez dakit Jaungoikoagaz ala diabruagaz; baña urrengo arrapadan atara ziran.

Gero, arek amaitu ta erosi genduzan beste arek, garrazta batzuk, Landizolako Torreri. Erreka ondoan egozan eta, bota orduan, erreka jausi ziran. Ur gitxi egoan, da norbera ibilteko ondo.

Errekearen ondoti bidea. Kamioia G. M. C. eroan gendun. Ifini bidean. Bidea errekea baño altutxoago. An, bidearen ganeko aldean, soloa. Errekati kamioira egur bi, plantxak, ifini; eta kamioira egur bat, garrazta aundia, ezin altzau. Gure auzuneti urrean zan. Sei bat gizon eta ezin.

Gero akordau jakun ango etxeetako andrari abisau eta andrak solo ganeti sokakaz tiratzen ipintea. Etorri ziran androk sokeagaz tiratzeko soloti, eta beste etxe mordoan egoan gizon bat gerra denporan ankea kenduta, da buruti be ez zan ondo-ondo ibilten. Fermin eukan izena.

Trongo orregaz danok indarrean gagozala, non datorren Fermin andrari zirri egiten. Gizon danok estu trongoaren azpian, eta andren sokea flojatzen. Ango zaratea! Eta andrak sokeari itxi ezker, trongoa berantza etorren gizonak azpian artzeko arriskuan. Trantze estuan aurkitu giñan egur orregaz.

Gero, trongo ori altzau zanean, Fermin ori

urrindu gendun, eta urrengo trongorako seguru jarri giñan: sokati andrak eta guk azpiti indar egiten errekatu, eta kamioira. Amaitu zan kargatze ori, baña sustu aundia pasautu.

Gero, urte orretan be, udan, beti lez, ikatza egosten, txondorak egin eta egin uda guztian. Baso txikerrak, baña bi geunkazan; eta uda goienerarte.

Domu Santuetan kantsautu etxera, beti lez, apur bat deskantsatzen. Orduan ez zan, orain lez, baka-ziño edo oporrik egoten. Egunak danak ziran lanerako. Bizimodua asko aldatu da gure gazte denporati ona.

Basoko bizimoduari

Geure bizitza sanao dogu
basorik baso eroan,
danok dakigu peste aundirik
ez egoala basoan.
Baso garbia bertan itxita
kale zulora ez joan,
gauza ustela emongo'zue
garbi ona dalakoan.

Zeinbat jente gaur dabilen orti
iñok be ez daki zetan,
gauza loi asko ikusiko da
kale zulo ilunetan.
Guztiak dabe bakotxak plana
edo gabeko lanetan,
gaur askorekin lagun egiten
bildur artu lai benetan.

Zer egin neban esaten noia
ni irugarren aldian:
aita, anaia eta irurok
basoan giñan lanian.
Txabola baten lo eiten gendun
antxiñekoen antzian,
prizti askoren irrintzak bere
entzuten ziran gabian.

Malezi asko ez gendun baña
basoan arrapau indar,
txarto egiñik izan ezkerro
aitak egiten zun diar.
Mutil gogorrak egin giñaden
mendian lanagaz zear,
ikatz egosten dagon mutilak
ez dau medikurik bear.

Abarka zarrak oñetan eta
erropa zarrez jantziak,
malezia ta tranpa guztiak
alde batera itxiak.
Ikara gitxi gabetan barriz
ikusi arren priztiak,
uste genduan anai zirala
basomortuko guztiak.

Txabola baten lo egin eta
txondorrari zain gabian,
mizkeri asko ez zan izango
egoten giñan kabian.
Gure eguna noz argitzen dan
txoriak legez abian,
malezi barik aita ta seme
gure bizitza garbian.

Ze bear latzak ziraden arek:
ikatz egiten basoan,
txabolatxoan lo egin eta
priztiak gabaz alboan.
Abar ganean txabola ortan
gaba etorrian loan,
alan da bere pozez giñaden
oberik ez zalakoan.

Goizetan arto zopakaz janda,
baba beltza eberdirako;
gantzagia be beti ez gendun
gure baba latzerako.
Ta orain legez bigarren gauzik
ez genduan ganerako,
aldakuntza au larregi da ba
gizalditxo baterako.

Aitan ondoan ikatz egosten
txiki-txikitan joana,
bizitzarako bearrezko zan
nik an ikasi nebana.
Munduan beti goi mallan dago
ofezio bat daukana,
goratu laike txikitan aitaz
baso baten daguana.

Basomortuko nere aldia
ifini oin idatzita,
animatuko ete da iñor
nire lanak ikusita?
Gazte maiteok, joan basora
kale zuloak itxita,
sidan bildurrik ezin lai euki
ni lez basoan bizita.

Mundu onetan askorentzako
mendia atzeratua,
engañurikan ez dau mendian,
an dana da perfektua.
Beti mendiak emoten dausku
gure ura ta frutua,
gauza garbiak iskintzen ditu,
orrek dauka meritua.

Kale zuloan zer datorkigun
ein bear geunke argitu,
naizta botika larregi artu
ori ezin lai garbitu.
Kale zar orrek naikoa dauka
engañua ta delitu,
zulo askotan bizi danari
goiti beraño begitu.

Mendian ez dau gauza loirikan,
dana da gauza garbia,
gaba iluna pasau orduan
eguzkiaren argia.
Eta goizean goizeti asi
txoriaren abestia,
bildur gaberik artzekua da
bertan dagoan guztia.

Kalean zelan bizi laiteke
tranpa asko ikusita?
Orko anaie guztiak dagoz
engañatzen ikasita.
Loikeri asko ikusiten dot
egiten badot bisita,
mendirra etorri zaitea, lagun,
kale zuloa itxita.

Agur bategaz itxiten noa
biotza pozez beterik,
baso kontuak nik esan bear,
ez nun ikasi besterik.
Ikatz egosten aitan ondoan
asi nintzaden gazterik,
alkar laguntzen etxean danok,
ez dago gauza oberik.

Erromeriak

Festarik festa

Txiki-txikitan asi nintzan ni jaietara joaten. Lelengoz akordatzen naz San Inazioetan joan nintzala Dimeko barriada batera: Agortzietara. An egozan barkillerua eta karamelo saltzalleak. Laster amaitu nebazan nik emondako diruak, eta gero aibat txiki batu giñan olgatzeko.

Niretzako ilusio aundia zan. Mundu berri bat lez. An go soñulariak eta txistulariak eta aguazila eta alkate ordeazkoa egun orretarako, ta eroaten eben txuzua.

A zan errespetorako, udaletxeti eroaten zana. Jaleo edo burrukaren bat bazan, alkate egoana txuzua artu eta etorten zan burrukarien aurrera errespetoa emoteko eta bakea lortzeko. Antxineko oitura zan ori, barriadatako erromerietara eroaten zana.

Aguazila etorten zan plazati barriadako jaira txuzugaz, eta an juntatzen zan alkate egun orretarako egongo zanagaz. Emoten eutsan txuzua, eta sartzen eban berak gure eban toki baten. Iñok ezin laikion ukutu txuzu orreri. Debekatua zan.

Beste jai baten joan nintzan Obara San Antolinetan. An baziran endredo aundiak. Burrukak be bai. Alkatearen agintasuna ez zan naikoa, eta

joan ziran guardiazibiletara abisatzen. Baña arek etorri ordurako, amaitu zan matxinada ori.

Ostera gabean asiko ziran asarreak, eta etorriko ziran taberna burrukak.

Orduan gu iru-lau mutil oraindik gazteak, eta etxerako bidea artu, danontzat be ordua zan da.

Oraindik gaztea nintzan da andi lasterrera asiko nintzan bertsotan. Da andi aurrera jaietan, bazkari ostean, bertsotan izango nintzan ni.

Urkiolara be, San Antonioz, maletagaz joan. Lelengo armozau. Gero mezarata. Karteristak be izaten ziran eleizako sarreran. Badaezpadan kontuz, eskua boltsilloan dala.

Mezati urten da lelengo kanta-papelak erosi, eta eberdian batzen giñan pagopeko taberna batera. Bazkaldu eta bertsotarako gertu. Besteren bat topau ezkeru, ekitaldia.

Arratsalde erdian urten Urkiolati oñez. Baña bide erdian, Astoako landan, mendian, maleta ondakina amaitu, eta barriz erromeria egiten zan. Dimeti etorten zan tabernea, eta an emoten geuntsan egunari azkena.

Gero bakotxak beren biderantz, ze orduan gabe-rako etxeko ondorantz joan bear zan, gitxienez be.

Neskak gaberako etxera zan oitura, Bestelan, neskaren bat berandu bajoian etxera, apuntatu egiten zan beren auzoan, eta asko galtzen eban ezkontza baterako be. Konduta txarra artzen eban inguruan berandu dabilenak: ez zala etxerako andra ona izango. Orregaiti, ilunabarrean joan bear zan etxera.

Santa Ageda

Beste egun baten joan giñan Santa Ageda deritxon ermitara, Dimen, Bikarregi esaten jakon lekuan, eberdirako bazkaria artuta. Orduan jente asko joaten zan egun guztirako, oitura zanez. Alan, gu be joan giñan goizean goizeti, ze amar t'erdietan zan meza. Ordurako aurrezti an giñan.


Eldu zan mezaren ordua, eta jente asko. Asi zan meza emoten abadea. Eldu zan sermoia egiteko ordua, eta beren esate latinagaz onelan asi zan:

– *Agatha laetissime ibat ad carcerem.* Agata sano pozik joian espexera.

Orrelan esan eban abadeak beren agurgarrizko sermoian:

– Gaur zebratzen dogu Ageda Deunaren eguna. Catania Sicilian bizi zan. Pozez joan zan beren martiriora, irugarren gizaldian. Eriotzeak ez eban bildurtu. Ain tortura aundiak artu ebazan beren martirioan, esan laikian Jaunaren indarra eukala, gorputz batek ainbeste sufritzeko.

Orrelan azaldu eban orduko abadeak meritu aundiko santa bat zala. Azaldu eban, ain zuzen, eukala Kristoren bidea. Alan, Kristok emon eutsala indarra eroateko beren aldeko martirioa munduaren aurrean.



Santa Ageda ermita, Dima.

Gaur ez diraz orrelango sermoiak egiten. Ez dakit ala ez dagozan olako jazoerak ala jakin ez salatzeke bizitza.

Amaitu zan sermoi ori, eta bai mezea. Urten gendun kanpora. Betiko lez, aurrekuak baziran, eta ni be an nintzan amabost urtegaz begira aurreku edo jantza orri, eta etorri jatan gizon bat: an egoala Esteban Uriarte, bertsolari famatua Euskal Erri guztian; eta Estebanek esan dautsala gure leukela nigaz bertso batzuk azaldu.

Ni gaztea nintzan oraindik, eta neskakaz be artu-emon gitxi neukan. Bertsotasuna ekarri neban aurrez. Nire edadeko mutilak jantzan. Ondo ikasi eben, ta nik ez. Ni beti atzean eta tabernara, bertso-tan egiteko.

Joan nintzan Estebanengana. Gizon ori asko poztu zan ni, ain gazte, bertsolari izategaz, eta esan eban:

– Ikusteko, bertso pare bana botako doguz.

Lelengo bera asita, bota eustan bat, eta nik be bai. Arrituta lotu zan ain gazterik patxada ori euki-tegaz, eta esan eustan gero:

– Arratsaldean plaza onetan egin bear dogu biok bertso-tan.

Aguazilak pregoia jo eban tanborruerugaz:

– Arratsaldeko lauretan egongo dira bertsolariak, Esteban Uriarte eta Faustino Etxebarria, biak erri onetako semeak, bata zarra eta bestea gaztea; Esteban orain Bermeon bizi dana eta Faustino Indusiko mutikoa.

Alan, bazkaldu neban nik lagunakaz. Nire anai eta etxeakoak be bai, eta estu, etxoten zer jazoko zan arratsaldean.

Etorri zan Esteban beren etxe aldeti, bertakoa zan da. Ni estu, iñoz plazan bertso-tan egin barik, eta esan eustan Estebanek:

– Zu trankil! Zuk badaukazu materiala, eta ondo egingo dozu.

Bota eustan lelengo bertsoa:

Gazte, estimatzen dot
zure etorrera,
biok erri bateko
ta biok batera.
Poztu egin nazala
noia esatera,
ta nik dodan indarra
zuri emotera.

Nire erantzuna:

Aukeratua dogu
erriko tokia,
niretzat lelengoz da,
ez da egokia.
Biotza dardar eta
nire ez eukia,
izerdiagaz lepo
eta bekokia.

Ez genduzan bertso asko kantau, baña naikoa zan. Akordatzen naz oraindik niri Estebanek botatako beste bertso bat nola zan:

Mutiko zara ta poztuten naz
orain zu ikusitian,
ni zarra naz ta ordeazkoa
neure errian ixtian.
Emoten dautzut neure eskua
biotza bete-betian,
erria ondo zaindu egizu
beste bat jaio artian.

Au zan niretzako egunik eta aundienetako bat: lelenoz plazan bertsoan urtetea, amabost-amasei urte nebazala, eta bertsolari famatu bategaz. Erri guztiak goratu ninduan amaitu orduan. Jente guztia lotu zan niri begira, zelan ain gazte nik bertsoan; eta ea non ikasi neban ain ondo egiteko plaza baten bertsolari famatu bategaz. Eta dana zan basoko ikasia. Ez neukan besterik. Orrelan etorri nintzan errian gazterik.


Asko poztu zan Esteban, bera jaio zan errian, Dimen, bertsolari barri bat urtetean, ze bera ia zarra zan, laster itxi bearrezkoa.

Gero berbaz gengozan tabernan. Esan bear aundiak ebazan: leku batean bateatuak giñala eta justu berak itxi bear eban orduan agertzea ordeazkoa eta gaztea. Alan, nori itxi baeukala beren bertsolari titulu, eta pozgarria zala ori bertsolari batentzat.

– Mundua bueltaka dabil -esan eustan- eta erentzia itxi egin bear da beti ordeazkoari.

Ez zala poza bakarrik erentzia artzen ebanarentzat. Ondo ixtea poz aundiagoa zala, eta bertsolaria zala erriko zaindaria. Bertsolari bako erria umezurtz bat lez zala, eta beti bertsolaria zala erriaren oñarri.

Egun orretan bota neban lotsea, ta andi aurrera beti nire ofizioa bertsolari zan jaietan.



Zamakola auzoa, Dima.

Geure auzoan

Egun baten, geure barriadan, domeka arratsaldean, batu genduzan perretxikoak. Eta arrautza bana eroan, meriendea egin da gero bertsoan. Andrazkoak be baziran, da esan gendun:

– Bueno, gizonetzko danok bertso bana arloan; da ez dauanak bertsozik botaten, ardaua pagatu.

Eta badiño andra batek:

– Emen bertsoa andra ta gizon danak bota daieġa. Asi daitela Faustino, baña gero arloan.

Bota neban nik eta bajoian aurrerantza arlo ori. Erdi bertsoak ziran danak; eta eldu zan Jakoba egoan tokira eta bota eban:

Bertsolaria bada
ugari oingoan,
nirea botako dot
nik urrengokoan.

Alan, jai aundi bat egin gendun; eta bertsozik botaten ez ebanak ardaua pagatzea. Gitxi ziran bertso bakoak. Kantak be baziran ugari. Kantatzeak be baliu eban. Kantea, zantzoa eta dana onartzen zan. A zan jai aundi bat: gizon, andra, mutil da neska.

Gero batzuk kantau eta beste batzuk jantzan, gaba ilundu artean. Danok pozik ta danak artu eben parte: bertsoak, kantikak eta jantzak. Urrengo beste domeka baten batzeko lotu giñan.

Baña urrengo domekan ez giñan batu orduko lez, ze beste askotan mutil edo gizon bakarrik izaten giñan alan, edo perretxikoak ekarrita edo keshalauak arrapatuta, ta bakotxak arrautza bana eroan, eta txanpanada egiten gendun sarritan Landisolako portalean, merienda, udako domeka askotan.

Urkiola

Urkiolara joan San Antonio egunean betiko lez, etxean asita oñez. Artu maleta eberdirako jana-riagaz. Lelengo armozau, gero mezara eta eberdian pagopeko tabernara. An jana ta edana eta gero bertsoan.

Alan gengozala, gipuzkoanu batzuk etorri ziran ondora. Euren artean baegoan bertsolaria, eta zenek obeto bertsoan esan euskuen. Euren aldeti bat eta geure aldeti ni.

Baña gaiak ifinita: niretzat, konfianza ohea zala; eta besteari, dirua ohea zala. Asi ni konfiantza defenditzen; eta besteak, dirua emoteko berari. Orrelan genbizan.

Nik, konfiantzaduna edozein etxetara joan laitekela. Erregiñagana be bardin. Aundiak ziran burubide orrek. Ango txaloa eta geiagoka, gipuzkoanuak euren aldera eta bizkaitarrak bestera! Azkeneko bertso biak azalduko dodaz:

Konfiantza munduan
osoa badozu,
ate nausia bere
zabalik daukazu.

Palazio aundira
joan algo dozu,
erregiñagaz bere
egongo zara zu.

Ai, lagun, zuk bazendu
nik daukadan pena!
Neurekin bizi dira
semea ta errena.
Egunero asarre,
aiek beti lena:
eureri emoteko
etxean dauena.

Orrelan amaitu zan gure bertso aldia arratsalde erdirarte, eta gero etxerako ordua gendun. Iru bat ordu bear genduzan etxera. Gazteak giñan eta anak onak genduzan, Jaunari esker.

Ez dakit zelan ibiliko ziran gipuzkoanuak, ze arek ia zarrak ziran, eta lelengo oñez Mondragoira esan eben. Gero andi ez dakit nora joango ziran.

Gu, Urkiolati oñez, lelengo Astoara. An egiten zan erromeria, eta maleta ondakina amaitu, eta an gaberarte. Andi beste ordu bat etxera.

Baña gero be Agiñona izeneko baserri baten sartuko giñan gatzatua jaten, eta alan an be beste kanta batzuk izan ziran. egun aundia amaitzeko. San Antonio aundia zan, geure aldeti begiratuta, gazte denporan.

Indusi

Beste domeka baten lotuko giñan auzoan, neska ta mutil. Guk arraňak errekan arrapau eta neskak arek ifini jateko, arrautzak nastuta. Gero, merienda danentzako.

Meriendaren ostean kantak eta zeñek zantzo aundiagoa egin. Neska batek egiten eban zantzo luzeagoa besteak baño. Ni or galtzen nenbilan eta asiko nintzan bertsoan. Baña neskek zantzoagaz aurrera. Alan arratsalde gozoa pasatzen gendun danak.

Iluntzean, etxerantza be, kantatzen. Amak-eta, bideetan, balkoira urtenda egoten ziran.

Ze gauza aundia neska ta mutil orrelan ikustea ama baten-tzat! Eta ze gauza gitxiagaz konformatzen giñan! Eta gurasoen poztasuna munduan zelan sortzen dan!

Pobreak giñan, baña arratsaldea zelan ondo pasatzen gendun gure artean, dirurik gastau barik geure aldeti!

Mundua bueltaka dabilela esaten dabe. Bai; egia da. Orduti ona buelta asko egin ditu, eta aldakuntzak be asko izan diraz. Ez dakigu urrengo bueltak zelangoak izango diran.

Len neskak etxera etozan orduan, orain kanpora doiaz lagun barik, an ilunetan lagunak topatzeko. Ez dakit Jaungoikoa lengoa badago ala ez. Baña alde aundiak diraz lengoti oingora, ohera edo txarrera.

Gorbaie mendia

Domeka baten Gorbaiera joan giñan. Goizeko sei-
retan urten etxeti, mutil da neska mordo aundi
bat. Indusiti Zeanurira, andi San Justora, gero
Pagomakurrera, danean oñez.

Pagomakurrean armozua, eta gero Arrabako lan-
dan kantaldi bat preparau, gora kurutzera igoteko.

Eldu giñan Kurutzera. Lelengotan aize zorrotza
zebilan. Baña gero eguzkia eta egun ederra egoan.
Bazkaldu bertan, kurutzearen inguruan. Ostean
etorriko ziran kantuak, bertsoak eta abar. Jai aundi
bat zan.

Jantzan kantatzen dana kurutzia edo Gorbaie
mendiari buruz, Bizkaiko lurrik eta altuenean gen-
gozala, esanik geu gerala Bizkaiaren buru momentu
orretan. Gora Bizkaia eta goian gu!

Orrelan ziran nire bertsoak:

Gorbaie mendi, altua zara
Bizkaiko buru izanik,
zeinbat alegin semeak egin
onaño igo ezinik.
Gora ta gora etorri gara,
iñoz ez eukan azkenik,

munduan goien geu gagozala
ori esango nuke nik.

Poztasunezko Gorbaiera gu,
anai-arrebak, ioa,
naizta luzaro eukia izan
gorantza kalbarioa.
Jauna, ekatzu momentu baten
kurutzien balioa,
Bizkai danari bota dautsian
bakezko bendizioa.

Alan amaitu gendun kurutzeko funtziñoa, laster berantza mogitzeko, danok batera, kantaz eta zantzoka, Arrabako landararte, gero beste jaialdi bat egiteko jantzan. Ain zelai ederra dago ta ezin lai itxi jantzarik egin barik. Aurreskuak be bai, baziran, danak onak. Ez zan, ez, aurrekulari txarrik, ez jantzari txarrik jantzan. Gora geure aureskua eta abar!

Ostera be, Arrabako landeari agur bat egin kantu eta bertsoakaz, eta artu bidea berantza Pagomakurrera, eta an meriendea, maletaren azkena. Barrea, txaloa, zantzoa eta bertsoa. Ostera jantza aldiak.

Txistulari bat gendun geugaz; eta, alan, funtziñoa amaitu barik egun danean, Gorbaie ganean, Arrabako landan eta Pagomakurren bueltan. Egun agurgarria zala esan laike.

Eta luzea be bai, goizeko seiretati gabeko amabietara. Neskak be baeukien baimena, asko neba-arrebak giñalako etxe bateti. Batzuk, iru-lau neba-arreba. Alan, bagendun amaren baimena beranduago etorteko etxera, naizta gaba gabazkoentzako izan.

Pagomakurreti urrengo deskantsu-aldia Zeanurin; eta or be, betiko lez, jantzak, zantzoak, eta bertsoak be baziran.

Gabeko amarrak aldera aguazila etorri zan, ez ixiltzeko esaten, jantzarik alkarri goatuta ez egiteko baño, ze Zeanurin lege bat egoan: jantzan librean bakarrik egin bear zan. Bestelan debekatuta egoan, eta ezin laikian jantzarik egin mutil-neskak alkarri goatuta.

Eta aguazilari esan eutsan mutil batek ordukoa-gaiti gaba zala eta itxi laikela. Eta gure mutil batek laguna eban eta puru bat emon eutsan aguazilari. Gero puru orregaz joan zan tabernara, ta gu jantzan.

Gero beste batzuk joan ziran aguazilari esaten, ostera be plazan jantzan ebizela dimostarrak. Gu geroago eta zintzoago. Ostera be etorri zan gelditzeko, eta orduan esan geuntsan azkena izango zala, bat bakarrik, eta lagun batzuekaz joan zan tabernara.

Baña andi be entzuten zan soñuaren zaratea. Mosu-kiterra zan, baño jentea pozik jantzarako.

An orrelan egin gendun jaiaren eta egun luzearen azkena.

San Blas

San Blas egun baten joan giñan San Blasera. An ermita bat dago. Zeanuri eta Dime, biena da ermita ori. Mendia aurrean dauka. Etxe bat, bizitza bikoa; eta kortaren erdian dauka mugarria, erriaren partikuntza. Alderdi bata Zeanuri eta bestea Dime, ta aurrean ermita.

Goizean mezara joaten ziran erri bietako abadeak. Batak mezea eta besteak sermoia; eta urrengo urtean, aurten mezea euki dauanak, urrengoan sermoia, eta orrelan.

Urte danetan, maiordomoak bietati dirua batzen. Bi batzalle izaten ziran, bata aurreti eta bestea atzeti. Aurten aurreti doana, datorren urtean atzeti. Bakotxa beren platuagaz eta bakotxak beren diruak. Gero, mezea amaitzen zanean, bakotxak beren diruak artu eta egun guztirako platu biak an itxiten ziran, bata Zeanuriko aldean eta bestea Dimeko aldean.

Ze lenago oitura zan arratsaldean jaira doazen neska-mutilak bisita egitea ermitara; eta an egozan platu biak, bata Zeanurikoa eta bestea Dimekoa, gero gabeen bakotxak beren dirua artzeko. Eta gastu danak erdibana ziran, bakotxak berena.

Arratsaldean erromerian egoten ziran erri bietako alkateak ta aguazilak, bakotxaren alde zaintzeko. Soñua Dimeko partean, ta tanbolina Zeanuriko partean.

Baña gu, dimostarrak, pasodoblean neskeagaz Zeanuriko partera aldatzen bagiñan, an etorren Zeanuriko aguazila paluagaz:

- Emendi kanpora!

Atzera bueltan gu bestearen terrenora. Arratsalde danean orrelan giñan: geure lurreti besteenera. Zeanuriko aguazila zaintzen eta Dimeko aguazila tabernan kopak edaten trunkil.

Gure lagun batek, baten, Dimeko aguazilari pre-guntau eutsan ea ze zaintze eukan neska-mutilakaz. Eta erantzun eutsan neska-mutilen kontuakaz bera ez doiala sartzen; ori etzala beren ardura. Burrugarik ez dagoan artean, bera trunkil egoala.

Eta esan da egin. Iluntze aldera agertu zan burrukea be, eta orduan Dimeko aguazila apartatzen eta Zeanurikoa trunkil: beren terrenoan ez egozala eta dabizela.

Baña gero bultzadaz Zeanuri aldera joan ziran burrukariok, eta orduan Dimeko aguazilak jaramonik be ez. An bakarrik Zeanuriko aguazila apartatzen. Gero Dimekoari didar egin batek joateko apartatzen; eta badiño:

- Len berak be ez daust niri lagundu, eta orain dagoala!

Eta bera trunkil tabernan edaten. Zeanuriko partean dirala burrukariak eta eskatzen eutsan laguntasuna. Baña:

- Ez; len berak be ez daust, eta orain dagoala!

Baltseorikan agarratuta
jantzarik ez zan oitura,

orretarako etorri bear
Dimeko lurren lekura.
Ba Zeanurin pekatua zan
da erriaren itxura,
jantza kontuko legea egon
abadearen kontura.

Burruka bere urtenik eban
jantzea zala medio,
mutil bateri neskatxa batek
ezetza emonik dio.
Ta neska orrek beste bateri
baietza emon oindio,
bigarrenagaz gero jantzara,
orrek ez eban balio.

Kanpora-martxo

Kanpora-martxo esaten zana Garizuma aurreko domekan izaten zan, eta oitura zan mendira joatea, artu txorizo bana burruntzian, erre ta jateko.

Egur errema bategaz egiten zan burruntzia, eta su aundi bat egin eta beren korruan jarri, inguru guztian bueltan, amabost edo ogei bat mutil-neska.

Besteari jotea burruntziaz be oitura zan, mutilak neskeari eta neskak mutilari. Sarritan txorizoren bat su artera jausi be bai. Alan de be, atara su arteti eta balio eban, naizta asarre apur bat artu.

An kontu asko esaten zan. Alan, badiño neska batek:

– Ezetz igarri nik zein mutilari gure dautsetan geien-geien?

Esaten geuntsan:

– Ba Juaneri! Joseri! Fermineri!

Eta iñok be ez eutsan igertzen. Alango baten badiño neska orrek:

– Nik emen dagoan zarrenari: Alfonsori, ze ezkontzeko eldua izan bear dau.

Au zan mutilzar bat, Alfonso, eta Alfonsok txaloak jo ebazan, bera apartau ebalako; eta esan eutsan:

– Ba gu biok zoriontsuak izango gara!

Eta ango txaloak amai bakoak ziran. Gero, andi aurrera, nobi-nobioak deitzen geuntsen Susana eta Alfonsori. Ta badiño Martinak:

– Abade bat balego orain bertan ezkontza egi-teko...

Ta mutil batek esan eban, biak baietza emoten baeben, benedeziñoa berak botako ebalá. Ango txaloak eta “gora nobioak!” azken bakoak ziran. Gero kantak eta bertsoak baziran ugari arloan. Danak bota bear kanta edo bertsoa.

Gero asi giñan jantzan. Baña lelengo jantza aldia nobioak egin bear eben, batek kantauta:

Larala larala lara,
gaurko jaialdia gara,
ezkontza egiña bertan,
biaren baimena bada.

Arinka nago begira
biak maitatzen badira;
alkarri baietz esanaz
biak ezkonduko dira.

Ze gauza aundia munduan
biak alkarren onduan!
Geroago ta urrago,
ezkontzea beroago.

“Laster ezkonduko gara,
amaren baimena bada”.
Gurariz beterik dira,
bieri nago begira.

Ezkontzako momentuan
artu zazue kontuan,
amak baietza badiño,
aitak zer esango duan.

Amorez eta laztandu,
ezkontzeko ostondu,
etxera joan eta
amari esanik:
“Alfonso Goikoetxe
gureko neuke nik”.

Mutil majua eta
etxearen jabe,
neure antzera bakarrik,
dago ortxe obe,
ai, ai, ai,
dago ortxe obe!

Ama, esan daistazu
baietza goguan,
mutil orregaz bada
bizitza eruan,
ai, ai, ai,
bizitza eruan.

Aspalditxoan nago
berari begira;
nire izate danak
berarentzat dira,
ai, ai, ai,
berarentzat dira.

Amodioa artu
eta ezin aztu;
larri nago egin arte
biotz biak estu,
ai, ai, ai,
biotz biak estu.

Ama, esan daistazu
baietza gogoti;
pozez beterik beraz
biziko naz beti,
ai, ai, ai,
biziko naz beti.

Beragaz ezkontzea
suerte on bat da;
baietz esan daistazu,
etxeduna da ta,
ai, ai, ai,
etxeduna da ta.

Pozez beterik nago,
ama, ni oingoan,
mutil bat etxeduna
arturik ondoan,
ai, ai, ai,
arturik ondoan.

Laster dot mutil ori
gizontzat artzeko;
suerteia izan dot
nik bera lortzeko,
ai, ai, ai,
nik bera lortzeko.

Ezkonduta izango naz
ni modu obean,
uzandrea jarririk
etxe zabalean,
ai, ai, ai,
etxe zabalean.

Norañoko pozetan
nago ni oingoan,
pozezko ezkontzea
zelan egin doan,
ai, ai, ai,
zelan egin doan.



La - ra la - ra la - ra la - ra gaur -



ko jai - al - di - a ga - ra ez - kon - tza e - gi - ña



ber - tan. bi - a - ren bai - me - na ba - da.



A - rin - ka na - go be - gi - ra bi -



ak mai - ta - tzen ba - di - ra al - ka - rri bai - etz e -



sa - naz bi - ak ez - kon - du - ko di - ra.

San Kristobal

San Kristobalera joan giñan Dimeti, Biteriñoti, Soñez mordo aundia. Goizean mezarara, eta bertan bazkaltzeko maletagaz.

Meza ostean aureskua lelengo. Gero jantzak be baziran. Gero atondu giñan bazkaltzeko, lurrean ezarrita, ta ardua ekarri tabernati. Ura be ondoan gendun, eta ezen falta barik.

Bazkal ostean asiko ziran jantzak eta kantak eta kontuak ugari. Antxineko kantak eta oraingoak, bariak eta zarrak. Neska batek kantau eban:

Len izan nebazan
nik iru nobio;
batek be ezkontzeko
ez eban balio,
ai, ai, ai,
ez eban balio.

Iru nobiotati
bat ere ez onik;
alperra artzekotan
ez nuke gure nik,

ai, ai, ai,
ez nuke gure nik.

Margari Landakogaz
egiteko boda;
amama badauka ta
ona izango da,
ai, ai, ai,
ona izango da.

Auzoko neska ez da
iñoz egokia;
urrineko garbia
artu ta bakia,
ai, ai, ai,
artu ta bakia.

Eberdi ostean alan kantatzen emon gendun denpora, erromeria asi artean. Gero, iluntzerarte jantzan.

Baña andi Indusira bear genduzan ordu bi t'erdia. Iluntzean urten tertzioz etxerako. Baña Dimen, plazan, meriendatzen jarri giñan, maleta ondakina amaitzeko.

Ostera or kantak eta bertsoak eta zantzoak zebratzeko eguna. Goizeti gabera egun aundia udearen erdian. Baña labur egin jakun azkenean. Dimen kantatzen ordu bi inguru egin genduzan. Bertsoak be asko ziran ilunabarrean, eta danak bertso onak. Neskak be bai bota bertsoak. Neska batek onelan kantatu eban:

Neure nobioaren ama
asto baten jaube dana;
berak ekarriko dautso
etxean bear dan dana.

Eta orrelan, bakotxak zerbait, danok kantatzen gendun, umore onean goizeti gabera.

Gero be Dimeti gure barriadara lau kilometro genduzan kamiñoz, tardatzeko beste ordu pare bat, ze kanta ta bertso goiazan danean. Danok umore ona beti izaten gendun. Ganera, ondo artuak giñan.

Geure artean gabetan bertsolari larregi izaten giñan. Itxaron egin bear besteen bertsoa amaitu artean. Beti gertu batenbat asteko. Bitartean, kantak be bai izaten ziran. Baña eguna ondo pasauta etortzen giñan etxera. Kontuak kontu, beti umore ona geure artean.

Nobio-nobiak gitxi giñan. Nobidunak aparte joaten ziran, bakotxa beren neskagana; eta beste libreak danok batera.

Aste barruan berbatzen giñan domekan nora joan, batera joateko alan danok. Gauza aundia zan barriadako mutil-neskak batera joatea. Gozatzekoa zan egun guztia pasatzen, eberdirako janariagaz, bakotxak zerbait artuta.

Goizean goizik urten dogu ta
egun guztian batera,
ejenplu on bat gazte giñanok
erriari ematera.
Gazte denpora orlan emonda
jarri eldu izatera,
gero ostean geure antzeko
asko ez dogu atera.

Kanta ta zantzo emongo gendun
guztiok egun guztia,
ta goi mallako umoreagaz
a zan garbi ikastia.
Gu alkarregaz mordoan joan,
maite bata ta bestia,
berba txarrikan ez zan entzuten,
danok gora abestia.

Perretxikoak

Domeka baten barriadako jai bat egin gendun. Goizean mutilak perretxikoak billatu, eta neskak su aundi bat egin eta ondoan bazkaltzeko maiak jarri.

Lagun asko izan giñan perretxikotan. Eberdi aldera batzuk joan giñan mendi batera, beste batzuk beste mendi batera. Alan perretxiko asko ekarri gendun. Gero garbitu, urak kendu eta ifini jateko modura izatera.

Batenbat berenoduna baegoan, badaezpadan sartanera pezeta zuria botaten geuntsan. Arek ziran urre zurizko pezetak. Berenorik baegoan, baltzitu egingo zala pezeta ori pentsatzen gendun.

Naizta bariaziño asko ez ekarri -gibelurdinak, galanperrak, seta gorriak eta beste iru-lau klase-, batzuk utsean eta beste batzuk arrautzakaz tortillan jaten genduzan. Ganerako, fruta edo gatzatua, ardi esneagaz eginda.

Alan, bazkari ona. Neskak ifini bazkaria. Guk ekarri eta garbitu. Danok lanean. Maiak eta jarlekuak be ifinita. Dana bear dan moduan.

Gero bazkaltzera neska eta mutil danok. Jan ostean asiko ziran kantuak. Mutil batek kantau eban

egun baten neska bateri errekadu egiten joan zala. Badaezpadan, iñok ikusi ez naian, gabaz. Baña aurtorik ez egoan lez, oñez; eta bidean batenbatzuk etozela barbaroa, eta ostandu egin zala, ze ostantzeko zan, ze ezetza izan ezkerro, ba desonrea zan. Baietza izan ezkerro, ez. Baña ezetza bada, auzo danean zabaltzen zan:

– Urliak be errekadu egin deutso fulanari. Baña ezetza emon deutso.

Eta ori lotsatzekoa zan.

Gero badiño neska batek:

– Ba nik jenteen ze esanagaiti auzoko gizon bat bota neban errekadu egiten mutil bati. Baña kondiziño bategaz: ezezkoa bazan, ixilik eukiteko, ala ez egoala ze esanik, badaezpadan, jentea ez daiten enteratu.

Eta badiño mutil batek:

– Emen danok auzo edo lagunak garan lez, sekretorik ez dogu bear; eta bakotxak norberari jazo-tako kontuak, alan mutilak naiz neskeak, azaltzeko emen.

Eta badiño neskak:

– Ba esateko jazotako gauzak, lelengo mai bu-ruan dagona asi daitela. Ea, Kazinto: zer jazo jatzu zuri onako gauzarik?

Eta badiño Kazintok:

– Ba nik iru errekadu egin ditut, baña ez dot baietzik ekarri. Beti ezetza.

Eta badiño Susanak:

– Ba zuri baietz esateko nengoan, eta urten eusten ezetza. Ta orain, zeuk nai badozu, baietza dozu.

Ango txaloak azkenik be ez eukan. Ezkontza onen bidez, gero ango txaloa, kantea, zantzoa! Eta auzoko andrak be etorri ziran zer jazoera ete zan an.

Esan geuntsen zer jazo zan, eta badiño andra batek, Romualdak:

- Iñok ez daki orain arte. Baña neu be esaten noa neurea. Nik ere Simoneri neuk egin neutsan errekadu, eta nok dauka zer ikusi?

Ostera be ango txaloak, kantuak eta bertsoak! Umore ona bazan arratsalde guztian. Bertsoari txaloak, kantuari txaloak, zantzoari txaloak, ze egun agurgarria zan a!

Orain ez dira orrelan auzoan ikusten. Orain badoiaz orti bera. Baña ez dakigu nora doiazen. Eurek ete dakie? Igual ez dakie oraindik.

Errekadua egiten zala
lendik oitura genduan,
alkarrerekin bizimodua
artu daiguan munduan.
Ze poztasuna artutzen gendun
baietza izan orduan!
Lotutzen giñan pozez beterik
suertetsuen moduan.

Ze gauza aundia izaten zan ba
errekadua benetan!
Oitura ori ugarria zan
Bizkaiko baserrietan.
Neska bategaz ezkondu teko
errekadua gabetan,
bizimodua eroateko
emen lur eder onetan.

Bilbo

Abuztuan Bilbon barrakak egoten ziran, eta domeka baten arratsaldean joan giñan lau mutil.

Lelengo, barraketara. Or asiko giñan *tiovivo*-etara, eta an bueltaka. Porra bategaz joten be bai, martillua esaten jakona, burniñari goia jo azoteko. Baña ez gendun ezertxo be egin. An genbizan bateti bestera. Txutxeriak erosi eta dirua gastau zan egiten genduna. Kasillati joanda egozan barrakak, len Jose Antonio zana, oraingo Sabino Arana.

Gero andi sartu giñan Bilborantza, Indautxuko tabernetarantza. An txikitoak eta zerbeza edo erre-freskoak be artzen genduzan, da laster joan giñan apaltzera, Pujana erritarrak eukan taberna batera.

An batu giñan iru-lau gipuzkuanuakaz, danak euskaldunak. Asi giñan berbaz eta laster esan eban gipuzkuanu batek apal ostean egin bear zala bertso-tan, zeñek obeto. Eurak iru bertsolari zirala an.

Geuk be esan geuntsen:

- Ba gu beste iru.

Eta andi ganetikoak juraduan sartuko zirala. Alan emon gendun denpora.

Apari ori amaitu zan eta eldu zan bertso-tako den-porea. Suerte botatzeko lelengo nor asi, eta suertatu

jaken gipuzkuanuari. Gai librean zan eta asi zan bat, onena euren artean. Asierea onelan emon eutsan:

Iru bizkaitarrekin
gera juntatuak,
bertsoz zein geiagoka
ein doguz tratuak.
Egi utsak azaldu,
itxi pekatuak,
utsegiteak barriz
ondo parkatuak,
ondo azaldukoak
danak onartuak.

Au zan nik erantzun neutsan bertsoa:

Bide oneti dator
gure lagun ona,
alan agertu bear
nire erantzuna.
Ondraduz esango du
bakotxak daukena,
noble egotea da
euskaldun onena,
au da guraso onak
itxi deuskuena.

Gero beste lagunak be egin bear eben bertsoan, eta ez dodaz akorduan andi aurrerako erdi bertsoak, naiz bateti naiz besteti. Ordu bat inguru egingo gendun bertsoan. Danok giñan pozik. Taberneruak be beste kopa bana ekarri euskun, ain umoretsu giñalako.

Alan, bueltan seik egiten gendun bertsoan.

Bertso asko laburrak ziran, testo esaten dana, erdi bertsoa lez. Baña dana onartzen zan, eta umore ona. Euskaldun zintzo giñan danok. Gero, despedidako, gure bion agur bana esango dot, gipuzkuanua asita:

Anaiak agurtzea
da gauza gozoa,
euskaldunen artean
sarritan jazioa.
Lagun erdikinak ez,
gu lagun osoa;
gogoan izango dot
gaurko arazoa,
beste egun bateko
ifini plazioa.

Neurea:

Lagun, agurtzen zaitut
pozez ta benetan,
urrengoan be gaur lez
batzeko askotan,
umore onarekin
eta bertsoetan,
Urkiolan urrengo
badakizu zetan,
barriz bere gaur legez
San Antoniotan.

Or amaitu zan gure bertso saioa, eta gero banandu giñan bizkaitarrok eta gipuzkuanuak.

Gu, lengo lagunak, joan giñan zirkora amarretan, funtziñora; eta an be artu-emonu euki gendun. Funtziño erdian esan eben zirkokoak:

- Ea boluntariorik badago pistara urteteko.

Eta gure lagun batek urten eban. Egin ebazan buelta batzuk artistakaz, eta mareauta lotu zan. Gero ez eukan umore ona ostean.

Oraindik gu besteok egongo giñan geiago Bilbon. Baña arek gana txarra eukan. Barruak nastu egin jakozan bueltaka, eta gero alan etxerakoari emon geuntsan. Artu gendun tasi bat eta etxera, egun ederra pasata. Arratsalde luzetxoa, baña ederto. Danok gustora, eta agur, Bilbo, urrengorarte!

Arrankariak eta keskalluak

Jai baten, meza ostean, joan giñan peskan erre-kara arrankariak eta keskalluak arrapatzen, arratsaldean meriendea egiteko. Ainbat arrankari arrapatu gendun, eta keskallua be bai, bazan egun orretan.

Auzoan, Landizolako portalean, egin gendun su aundi bat janaria preparatzeko. Gero, ango gizonak be inbitatu genduzan. Arratsalde umoretsua gendun, gizon eta mutil. Kantua eta bertsoa ugari zan gero.

An baegoan bolatoki bat, eta asi giñan bolan denpora pasatzeko. Bolan be aspertu giñan, eta kantua ostera be. Batek eukan mosu-kitarra bat, eta asi giñan jantzan. Orretarako etorri ziran andra eta neska batzuk be, eta batzuk kantatu eta beste batzuk jantzan, eta ondoen jantzan egiten ebanari, saria: lelengo saria, bigarren saria eta irugarren saria.

Gizon bi zarrenak eta andra bi zarrenak juraduan. Bakotxak pezeta bana bota sarietarako, eta artuko ebezan lelengoak iru pezeta, bigarrenak bi pezeta eta irugarrenak pezeta bat.

Baña ez ziran gustora sariaren epai maiagaz, eta Sabinak badiño lelengoa tokatzen jakola; berak egin dauala ondoen.

Eta Jakobak esan eutsan parkatzeko; lelengoa erabagıtako modura zala, ze berak ankak be goren altzau ebazala; eta erabagia artuta egoala.

Eta, bakea lortzeko, juraduak esan eban barriro egin bear zala. Juraduak serio jarri ziran: Maldo, Torre, Ermenejilda, Ramona. Oraingoan ez dau balio atxakiak.

Egin zan bigarrenez, ta ostera be juraduak lengoa emon. Ez eban balio alegamentuak. Erabagia artuta dago. Torre txikerra zan, baña zutik jarri eta esan eban:

- Nai ta nai ez, onelan da geure erabagia. Bakotxari emon beren saria.

Ala amaitu zan sariketa nagusi ori. Oraindiño bagiñoazan jantzakaz. Erabagiak aurrera lengoak.

Landizolako portale ontan
jantzetarako sariak,
zein lelengo zan ebatziteko
berba egite aundiak.
Naizta bestera egongo ziran
an egon ziran erdiak,
ebatzi ori emongo eban
Torreren erabagiak.

Auzo bateko aitu ezina
emen jai aundi baten zan,
batzuek gogor erabagia
okerrik emon ete zan.
Juradukuak zarrak ziran da
konfiantzadun gaitezan,
euren esana ondo artuez
epaiketa au bete zan.

Gero be murmur asko ebilen gauza orren ganean, baña joan giñan ixilduez. Ostera be bertsotan asi giñan, bertso edo testo. Testoa geiago zan andi aurrera, eta zantzoak be ugari ziran. Amaitu zan lengo asarrea, eta danok pozik, pezeta bat artukoa eta iru artukoa be. Bertsotan be aitatu zan asarre ori. Baña su aundirik artu gabe lotu zan.

Ostera be jantzan asiko giñan; baña librean. Ez zan epai mairik egongo. Alan, danok ondo geure artean, arratsalde gozoa igarota.

Oraingo gazteriak ez daki orrelan pasatzen egunik, eta sarritan zarrak be nastean. Olango merientetan danok pozez beterik. Kantua gauza ona da gaztearentzat, eta zarrarentzat be bai, auzoarentzat eta erriarentzat.

Mundua adelantura doia. Baña mutil listoegia be ez da ona; larregi jakitea. Obe da apur bat kokoloagoa izatea. Ariñegi goaz aurrera. Nora eldu bear ete dogu, ba? Geure aldean izan diran aldakuntzak aundiegiak dira, onak izateko. Ez dakigu nora goazen.

Santa Ageda

Egun baten, auzoko mutil kuadrilla bat joan giñan Santa Ageda kantatzen, batzen zanagaz bazkari bat egiteko. Egunak aurrerago entrenatzen giñan geure kantuan ondo. Buruz ikasi eta zer doñu erabili.

Bazkalduta urten gendun. Lelengo joan giñan beste barriada batera, geure barriadan gabeen amaitzeko. Asi giñan Abostietako auzoan, gero Olazabal eta Ilunberaño. Ilunben andrari badiñotso gure lagun batek, Kalistok:

- Etxekoandra, ekarrizu dozena bat arrautza.

Esan da egin. Andrea badator dozena bat arrautzagaz. A zan otzareari gorakada emotea!

Gero, ilunabarrerako eldu giñan Bentatxurira, eta andi gero Indusira, geure barriadara. Lelengo, Bernaolan, Belatxa eta Olabarrira.

An egoan taberna, ta an itxi genduzan janariak: arrautza, txorizo, urdeiak be bai... Baita indabea be; ze eberdiko bazkaria egiteko, indabea bear gendun, da toki batzuetan esaten geuntsan ba indabea be igual artuko gendula, gorria. Txorizoa eta urdeia, lapiko ona egiteko baño geiago batu gendun. An itxi janariak.

Gero, beste geure etxeetati segidu gabaz, Indusi dana batu arte: Zamakola Antzarriger. Jibraltar, Landizola, Errotazar, Goñola eta Kortabarria eta Elgabiderarte. Andikan etxera.

Baña geu giñan etxeetan denpora geiago egiten gendun. Batean ardaur apur bat gure gendun. Bestean bokadilloa... Alan etxe danetan tardakizuna, eta gabean berandurarte izan giñan kantatzen. Dirua be batu gendun geure etxeetan, ze indabea, txorizoa, urdaia eta arrautzak larregi geunkan, eta taberneruari ordaintzeko dirua be bear gendun. Orretan amaitu gendun egun ori.

Gero, bazkarirako inbitatu genduzan anai-arrebak be. Alan, zortzi bat lagun giñan batzen, baña bazkaltzera ogei bat lagun izango giñan.

Bazkari ona. Lelengo, indabea urdeiagaz eta txorizoagaz ondo orniduta. Gero, arkumea. Taberna-riagaz aldatu egin genduzan txorizo eta urdei sobranteak eta arrautzak arkumeagaiti. Alan zan bazkari ederra, eta ganean arrozkoletxea postre, eta ardaur ona. Ganera kafe, kopa ta puro.

Ostean asi giñan kantatzen. Lengo kantik be bai:

Usurbiko neskea
galanta ta ona;
neu izango nintzake
arentzat gizona,
ai, ai, ai,
arentzat gizona.

Iru nobio nitun
nik lengo urtean;
bik iges egin eta
bat itxi atzean,
ai, ai, ai,
bat itxi atzean.

Joxepa Zabaleko
ze neska galanta!
Alango batek niri
eiten dauste falta,
ai, ai, ai,
eiten dauste falta.

Frantzisko Azterriko
etxedun mutila,
aitagana etorri da
alabaren bila,
ai, ai, ai,
alabaren bila.

Nire alaba dago
dote ederrakin;
olan danik Fernandok
ez ete dau jakin?
Ai, ai, ai,
ez ete dau jakin?

Benjamin Goikoetxek
falta dau nobia.
Alaba, azi zaitez
zirrikatzen ia,
ai, ai, ai,
zirrikatzen ia.

Gero bertsoan be asi giñan, da koblak edo bes-
teak. Orretan baziran beste batzuk onak be. Eta
gero jantzak be etorri ziran. Alan, bertso, kanta, ko-
blak, gaba erdirarte izango zan jai.

Neska ta mutil, jantzariak danok giñan. Kantariak be bai. Neskak be kantari onak ziran batzuk, eta bai mutilak be. Batzuetan ezin artu arloa, ze danak gure kantau. Bi batera asi igual. Alkarrerri galarazo sarritan. Danak kantau gure norberen kanta ori. Baña ez zan batera lekurik, eta batzuk itxi egin bear besteari.

Gaba erdian bertsoan be. Ori jazoten da. Danak bertsolariak, bata baño bestea ohea. Danak onak. Barruko edanaren indarragaz txarrik ez dago gure artean. Bertsolari onak, kalerako jantzari onak, kantari onak danak.

Ostera be Urkiolan

Ostera be San Antonioz Urkiolara. Goizean artu lepoan bazkaria eta bagoaz aurrera. Allegau orduan, armozua lelengo. Gero mezatara, atean ezin sartuta.

Karteristak egoten ziran lez, Joakini kartera ostu eutsen. Elizati urten da konturatu karterarik ez eukala. Asi zan bueltaka. Guardiari be esan eutsen, eta joan zan osteraleizara. Ate ondoan bateri eldu eutsan, arpegi ona ez eukala arek eta, baña ezer jakin barik. Esan geuntsan itxiteko. An ebulan bueltaka. Baña ez zan aren karterarik agiri inun be.

Gero bakotxak zati bana emon geuntsan, ogerleko bana lez. Baña bazkaldu artean ez jakon umorerik etorri.

Bazkaldu eta niri agertu jatan bertsolari kontrario bat. Au zan Jose Alberdi, Mañarikoa, eta asi giñan bertsoan gogor. Ordu t'ardi inguru egin genduzan bertsoan. Bakotxak norberen erria goratzen gendun geienetan.

Nik ordurarte Alberdigaz inoz ez neban egin, entzutea bai, baña alkarregaz lelengoz giñan.

Lelengo, arbolapeko tabernan; eta gero joan giñan Buenos Aires deitzen jakon tabernara. An egin

gendun arrapada aundia, kantsau arte, bertsotan; eta jente mordo aundia begira. Dana beterik, iñondik mogitzeko be ez egoan lekurik.

Eta zein geiagoka eta azkenean be oraindik ezin ebatzita, esan gendun beste domeka baten juntatzeko; eta arek Durangoti eta gu Dimeti Lemoara urteteko.

Ifini gendun eguna Lemoarako, eta barriz Lemoan batu giñan, ni neure lagun batzuekaz eta Alberdi beren lagunakaz. Bertso aldi asko egin gendun, baña gu biok nausitzat beti, eta ezin iñoz be amaitu geure bertso aldikadak.

Ostera be lotu giñan Urrienen Urkiolan batzeko, eta alan barrero Urkiolan batu Urrienetan. An eberdi aurreti batu giñan, eta batera bazkaldu, ta oraingoan, maleta barik, tabernako jana. Ondo bazkaldu: kafe eta purua eta kopea; eta asi bertsotan Buenos Airesko tabernan arratsalde guztian, eta jente asko begira.

Onelan zan agurtzea azkenez. Lelengo Alberdik:

Faustino, agur emoten dautzut
biotzez eta benetan,
zein obeaurik ez dot esango
baña bai nago pozetan.
Ez dago errez zu lezko lagun
jator ta ona topetan,
urte askoan egin daigula
alkarregaz bertsoetan.

Urrena neuk:

Agur, Alberdi maitasunezko
ta lagun agurgarria,
zure bertsoak beti dakarte
umorezko oñarria.

Berba onakaz ondo beteta
alan eroan neurria,
zaindu egizu gaurko antzera
bertsoaren iturria.

Or amaitu gendun ainbestegarren egunean bertso txapelketa Alberdik eta nik, urteak eroan da gero, nor geiagoka. Beste kopa bana edan eta adiskide. Urrengorarte an banandu giñan.

Guk oraindik beste iru orduko bidea gendun basotik etxerako. Neskak be baziran eta batu giñan batera; eta kantaka edo zantzoka joan giñan bidean. Gaba ilundu euskun bidean, baña bidea ongi jakin gendun; eta alan umore onagaz joan giñan.

Bagentozan etxerantza danok. Lelengo auzora eldu giñan, eta an beste agur bana mutilok neskari, eta danok pozik. Etxekoak be bai, alan etorrita. Amak be bentanara urten da agurtzen, geure umoreari begiratuta. Eta beste zantzo bana despedidarako, eguna ondo sartuta Urkiolati. Baña umore onez geratzen zan geure artean.



San Lorenzo ermita, Dima.

San Lorentzo

San Lorentzo egunean joan nintzan goizean me-
zatarara, eta etorri zan Don Obidio abadea meza
emotera.

Eldu zan sermoirako ordua, igo pulpitura eta asi
zan sermoi egiten. Lelengo latin zan oitura lengo al-
dian. Oraingo abadeak ez dakie latinik, baña lena-
gokoak bai ekien. Onelan asi zan:

- *Quantum fecistis uni ex his fratribus meis mini-
mis mihi fecistis.* Nire anai onetariko txikiren bati
egin dautsazuena, neuri egin daustazue. San
Lorentzo diakonoa Eleizaren aldera jarri zan osoan.
Alan merezi eban, eta irabazi, martirioa, eta Jesus-
engana igo.

Eta asi zan San Lorentzoren bizitza azaltzen:

- Gaur dogu festa nagusia. Diakono zan Erro-
mako Eleizan Kristoren martiria. Baleriano enpera-
dorearen persekuziñoan, irugarren gizaldian, arres-
tatua zan, orduko tradiziño benerablean, Aita Santu
Sixtogaz batera; eta deklaratu eban juezen aurrean:
“Nire ondasunak pobreak dira, eta gure irabaziak
pobrearentzat diraz”. Alan da be, kondenatua zan
iltera su artean. San Lorentzo, Kristoren serbiziño-
ko gizona, parrillan ifini eben suaren ganean. Oraindik

alderdi bata ia erreta daukala, esan eban bestera buelta emoteko.

Ze sermoi bedinkatua zan Don Obidiorena! Orain ez da olako sermoirik egiten. Orain esaten dabe:

- Ba gitxi dakigu santu onen bizitza. Baña, anaiok, alkartu gaitez geure auzoetan, eta alegindu santu onen antzerakoak izaten”.

Eta amaitu.

Gero eleizati urten gendun, da aureskua zan oitura ermita ondoko landan. Auresku onen ostean jantza be bai. Jantzan, aldi batzuk geienetan tanbolinean sueltuan zan oitura eberdian.

Gero, ni etxera bazkaltzen, eta arratsaldean joan giñan mutil ta neska mordo aundia erromerira. Lelengo, sartu ermitara eta oraziño bat santuari. Bota limosna eta urten, da erromerira.

Urte onetan egon ziran ze ikusiak. Pisuak altzetan esku bategaz. Arri bola bat, erdian palu bat ifinita, bertako mutil batek eginda, Timoteok; eta berak altzetan ebazan ondo; berrogei ta bost kilo ziran. Mutil asko jarri giñan iladan, pisuok esku bategaz jasoteko. Timoteok egin eban lelengo, eta nik bigarren. Ala, amarren bat mutil.

Gero bertso sariak izan ziran: nik lelengo eta Julian bigarren. Besteak ez ziran ontzat artu. Olan amaitu zan bertso saioa.

Gero erromeria danentzat iluntzerarte, ze iluntzean lenago etxera joan bear zan, orain kanpora urteten daben baño arinago.

Mundua aldatu da guztiz eta betirako. Neska-mutilak gabeen urten kanpora, eta noz datozen gero ikusi bear, orduak edo ordu barik. Len dana zan pekatua eta pekatuaren indarra, eta bildurragaz neskak iluntze aldera etxera, olloak otara lez. Orain be olloak badoaz otara, baña ez neskak etxera.

Aldakizuna etorri jaku
danori munduan zear,
len baterantza larregi bazan
orain besterantza be lar.
Lengo oiturak artuan eta
gu egiñak gerade zar,
ta zarra danak mundu onetan
ez du aldatzerik bear.

Aldatze ori ain ona dala
gazteak ala diñote,
oraingoari mundua alan
egingo jakie bete.
Alan da bere auzo guztiak
ez dirade alkar maite,
baña derrigor segidu bear
bueltea etorri arte.

Errebatibak

Errebatibaz (errogatibaz) Urkiolara joaten giñan goizean goizeti urtenda. Dimen goizean joten ziran kanpaiak. Ori zan noz urteten eban errebatibak Dimeko eleiza nagusiti: abadea eta sankristaua kurutzeagaz, kurutzea aurreti, eta abadea eta jentetza aundia batera.

Gero auzoetan jentea artuez joaten ziran. Gu Indusin batzen giñan errebatiba orregaz. Bidean abadeak errezatzen ebazan letaña eta errezo batzuk.

Urkiolara eldu ta denpora apur bat emoten zan armozu moduko bat maletati artzeko, eta gero eleiz funtziñora.

Eskatimea zan San Antoniori gure baserrietan, gauza onak arrapatzeko eta gure ganaduak be ondo izan daitezcan. Orduko deboziñoa aundia zan. Ganadu eta soloko kosetxa ona izan daiten zan errebatiba ori, eta alan danok eskatu be San Antoniori orretarako deboziño aundiagaz.

Joateko iñoz ez zan egun izentaturik. Izaten zan Maietzaren azken aldera edo Bagillaren lelengo astean, beti artoak erein da gero, eskatzen San Antoniori kosetxa ona izan daiten eta ganaduakaz

be suerte ona izan daigun. Gure eskabide danak orretarako ziran.

Gero eleizati urten, zeozer artu indar apur bat artzeko, eta ostera bidez Astoako landara. Ara joaten zan Dimeti erriko taberna, eta guri Urkiolan emoten euskun txantela, kuartillo bat ardorentzat edo limonada bat artzeko, aguazilak. Limonadak ziran kristalezko kanikadunak.

Orretarako, Urkiolan txantela artu aguazilaren eskuti, eta mutil batek egin eban lelengo artu txantela, eta atzera buelta bat egin, eta barriro eskatu eutsan txantela aguazilari. Onek ez ekian len emon dautsanik, eta emon eutsan. Baña gero beste batzuk be atzera txantela eskatzen, eta konturatu zan an bazirala txantel bidunak. Eta aguazila asarrez zan; da Serafinek eskatu txantela ta ez eutsan emon gure, ta badiñotso:

– Rek...! Ik ez daustek len be eskatu?

Eta Serafinek erantzun:

– Emen neu bakarra naz txantel batekoa. Onek, aurreti doiazanak, iru mutilak, txantel bina dauke.

Arekgana mogidu zan, baña arin anka egin eutsen txantel binagaz Astoara, alan ango tabernan ardaua eta limonada biak eskatzeko.

Gero maleta ori jan; ardaua eta limonada erriaren kontura. Orain, ardau geiago gure bazan, ordaindu egin bear.

Baña an taberna ondoan egiten zan jaiia. Bertsoak be izaten ziran. Zantzoak be bai, eta jai aundi bat izaten zan. Txistulariren bat be sarri egoten zan jantzarako. Baña oraindik gazte giñan gu be, ze lanean ebizan mutilak ez ziran joaten. Etxeetan egoten zan jentea zan: aita-amak ta nes-kato-mutikoak. Alan, jantza asko ez zan izaten, baña bai kantuak eta bertsoak ugari.

Gero, Astoati batzuk alde baterantza eta beste batzuk beste alderantza, bakotxa beren etxe alderantza iluntzean, kantsau-kantsau eginda. Etxerako bidean fameli guztiak pozez, San Antonioren esperantza artuta, soloak beterik gauza onakaz izango zirala eta ganaduakaz suerte ona izateko. Izango gendula esperantza betekoak ziran gure gurasoak. Ziurtasunaz bizi ziran munduan.

San Roke

San Roke egunean joan nintzan Olazabalen da-goan San Roke ermitara goizean meza entzutera. Etorri zan abadea eta asi zan meza. Eldu giñan sermoi denporara, eta abadeak onelan asi eban sermoia:

- *Beatus vir qui non speravit in pecunia et thesauris.* Zorionekoa diruan eta ondasunetan be itxaropena ifini ez dauan gizona. Mila ta irureungarren urte inguruan, Frantziako Montpellier urian jaioa, fameli aberatsekoa zan, beren aita gobernadore zalarik. Gurasoak galdu ebazanean, dana itxi eta Erromara joan zan erromes. Italian gaixoak zaintzen dauz, batez be eriotz inguruan egozanak, eta geienak izurri edo peste gaixoak eukienak.

Orrelan jenteak lenagoko sermoiari atentziño geiago ipintzen eutsan, lelengo latinagaz eta gero santuaren bizitzagaz.

Bizitza orrek diñoan lez, orain munduan danok gabiz ondasunaren atzean, eta San Roke ez zan orrelan. Ondasuna itxi eta gaixoak zaintzen. Ze bizitza bearrezkoa mundurako eta gaur gitxi ikusten dana! Obe litzake orain be orrelangoak balira.

Onaño mezako kontuak. Gero, meza ostean, au-



San Roke ermita, Dima.

rreskua. Ori zan derrigorra, eta ez bakarrik gazteak. Zarragoak be bai. Ta gero txistuaren jantzak. Ori zan oitura.

Gero, bazkaria. Orduan bertan bazkaldu gendun mutil batzuk erriko tabernan. Gero, bazkal ostean, bertsoak, arratsaldeko erromeria asi artean, ze erro-merira jente asko etorten zan Dimeti, eta Areatzati be bai. Erromeri aundia egiten zan.

Urte batzuetan Otxandioko musika be etorri zan. Ori be gauza barri bat zan: Olazabalko auzora musika etortea. Alan, auzoak indar aundia artu eban jaietarako, gabean apur bat luzetxoago egoteko musikaren atxakiagaz.

Iluntzea baetorren, baña oraindiño etxerako gogo gitxigaz, apur bat luzatzen denporea. Gero akordau jakun merienda bat egin bear gendula. Neskak, urrinetakoak, bazoazan etxerantza. Bertakoak lotu ziran jaialdian; eta gu, mutilok, be bai. Gero bertso-tan be bai ostera, eta gaba erdian etxerako bidea artu gendun, egun aundia igarota.

Oraindik etxean didar egingo ete dauskuen bildur apur bat be bai. Lengo usurako beranduegi zan, naiz izango ziran amabiak aldera. Lagun batek, Josek, eukan bildur aundia beranduegi joaten alde-rako, eta urrengo egunean preguntau neutsan nik Joseri:

- Da etxean ondo artu eustan?

Eta badiño Josek:

- Esan dausta amak: "Barriro geiago olan be-randu baator, urrengo domekan urten barik egon bearko dok".

Zuzenik iluntzean etxera goiz samarreti. Ori zala mutilaren onra betirako, eta nobi on bat billatzeko be bai: etxera goizeti.

San Frantzisko

San Frantzisko, edo guk San Fresko deitzen dautsoguna, da gure auzoko jaia, Urriaren 4-an.

Goizean, lelengo, etxean txokolatea artu, eta bero-bero egin. Kortako ganaduak ifini ondo. Zerbait etxean be lagundu, eta gero mezatara.

Amarrak aldera egoten zan meza. Eleizea bete-bete egiten zan. Orain baño jente geiago joaten zan orduan. Eldu giñan. Asi zan mezea eta eldu zan, beti lez, sermoiaren denporea; eta orduan igo pulpitura eta asi zan abadea:

- *Beati pauperes spiritu, quoniam ipsorum est regnum coelorum.* Zorionekoak biotzez txiro diranak, zeruetako erreinua euren da eta.

Gero asi zan abadea esaten:

- Gaur zelebratzen dogu San Fresku eguna. Asisko pobretxo bat zan, Italian, amairugarren gizaldian. Egun baten, itxi eban etxea, itxi eban erentzi dana, berari jatorriz etorria, eta sartu zan pobre ta umilde izatera; eta Jaunak artu eban beren serbiziñorako. Beste askok be artu eben beren pobreza ebanjelio lez, eta fundau eurien frantziskanoen Ordena. Ori zan lelengoz fundatutako frantziskanoen eleizea.

Eta diño abadeak:

- Aurrerakuntza aundia egin eban Jaunaren erriak Frantziskoren erri aldeetan asita. Lelengo, erentzia itxi; eta gero, pobreakaz eleiza bat sortu bertirako. Ze ejenplu agurgarria gizon batek emoteko munduan, ez beren denporakoari bakarrik, ze gero gizaldi eta gizaldi segitzeko berak sortuko oñarria, Kristoren alderdia zabaltzeko!

Eta badiño:

- Bai. Olango gitxi dira orain.

Orrelan amaitu eban beren sermoia, eta laster urtengo gendun kanpora. Egon zan an erriko taberna. Baña lelengo egongo zan aureskua, oitura zan lez meza ostean. Auzoko gizonen bat zan aureskua egiten ebana, eta txalotzeko zan bertako seme batek egitea.

Aren ostean nire bertso bi eskertzen aureskulariari eta txistulariari, eta eskerrak erriko alkate ordekoari be.

Gero, oitura lez, jantzaldi bat txistuan, eta amaitzen zan goizeko partea, zer ikusiz betea, eta bazkalduteko zabaldu atea.

Gero bagatoz etxera. Gurean bazkari ona; lagun asko konbidatuak, etxe bete lagun bazkaltzen. Lelengo *pistola zopea*, *pistola* esaten jakon ogi klase-agaz egiña. Gero, garbantzua eta arkumea edo auntz okela, eta postrea arroza esneagaz. Eta kafea eta kopea. A zan bazkaria, ain ederra eta ona.

Gero bertso batzuk, eta etxerik etxe etorten ziran txistularia eta tanbolinterua, etxe bakotxean jantza aldi bat egin dagien. Gurean aitak egiten eban beti jantzaldi ori. An egoten zan andra gazteren bategaz; eta amaitu orduan esaten eutsan aitak txistulariari beste bat joteko. Alan, txaloak jantzaren ostean gure aita jantzariari.

Gero osterara be guk bertso batzuk, ta laster joaten giñan erromerira, arratsaldeko jaira. An lelungotan jantzan, ze orduan erromeria goizeti asiten zan, oitura lez, gero iluntzean etxera goizeti joateko. Alan, iluntzean alkateak txistulariagaz joten eban erretirada esaten zana, ta an amaitzen zan ango jantzea, eta geienak etxera.

Gu, bertakoak, oraindik lotzen giñan, batzuk bertotan eta beste batzuk kantatzen, azkena jaiari emoteko. Gero apaltzen etxera. Apaldu ostean bertsoak eta kantak gaba erdirarte, eta akabo.

Santiago


Santiago egunean joan giñan Santiagoko ermitara. Egun guztirako bazkariagaz oitura zan. Asko joaten zan goizean. Egun guztia an eroateko, artu maleta bazkariagaz.

Meza amarrak aldera izaten zan. Eleiza ori oso txikerra zan, eta beste asko elizpean, eta kanpoan be jente asko. Asi zan meza eta abadea onelan asi zan sermoian:

- *Et relicto patre suo, secuti sunt eum.* Eta euren aita itxita, berari -Jaunari- jarraitu eutsen. Gaur ze-lebratzen dogu...

Asi zan abadea lelengo latina eta gero beraren bizitza. Kristoren apostolua zala esan eban abadeak; berak eroan ginduzala Kristoren ebanjeliora; berak argiratuak izan giñan; bera zan lelengo Jaunaren ministroa Jaunaren legean, eta barri ona ekarri ebana, eta munduaren alde odola emon ebana. Beren berbea izango da entzuna eta esperantzaz betekoa, eta esan ebana gure fedea izan daitela betirako Jaunaren aurrean.

Alan, jentea sermoia entzuten deboziño aundiaz. Gaurko aldean, sermoi gogo aundikoak ziran, eta fede aundikoak be bai, Jaunari esker. Olan zan eleizako denpora.



Santiagoko ermita, Dima.

Gero urten kanpora, eta beti lez, aureskua le-
lengo. Jentea pozez. Gero txistuaren jantza aldi bat,
eta edaria baegoan, ze erriko taberna egoten zan jai
guztietan.

Laster asiko giñan bazkaltzen bedar ganean jeza-
rrita. Aro ona egoan, eta jana eta edanaren faltarik
ez. Alan, dana ondo; ta bazkari ostean bertsoan eta
umore ona erromeria astekoan.

Gero, arratsalde erdian, urten eban burruka
aundi batek. Esan laikian danak alkar joten ebizala,
ta zan jotea batzuk beste batzuen kontra. Iñok ezin
zun egin bakerik. Alkatea be baebilan bakea egiteko,
baña dana alperrik. Ezin jentea ifini bakera.
Erromeria geratuta, jantzarik be ez; eta edo burru-
kan edo begira.

Batek esan eban a ez zala santuaren jaiia, dea-
bruarena baño. Baña alan zan arratsaldea.

Gero guardiazibilak be ekarri ebezan, eta alan da
be jaleo asko zan, eta ez zan erromeririk egin egun
orretan.

Alan, iluntzean jenteak goizeti urten eban etxe-
rantza, eta gu joan giñan Dimeko plazara, eta an asi
giñan bertsoan. Ostera be umore onean gaberako.

Neskak joan ziran etxera, eta gu tabernan bertso
edo kanta, ilundu ta gabeen, etxerako prisa asko
barik. Merienda moduko bat egin gendun: gaztaia ta
ogia ardauagaz. Kanta ta bertso ia gaba erdirarte.
Oraindik etxerako lau kilometro pasau gendun ka-
miñoiz eta beste erdi bidez.

Alan emon gendun Santiago eguna edo festa
aundi ori zana. Gu, lagunak, bakez. Ori da aun-
diena etxerako eta urrengo egunerako.

Egun luzea pasa genduan
goizeti gaberartian,

jai aundi bati antza emoten
biotza bete-betian.
Jaunari adi egon giñanak
asko goizalde partian,
arratsaldean aitu ezin da
anai guztion artian.

Era bitako eguna gendun:
goizez ondo meritua,
Jauna goratu ta anai-arrebak
artu gendun kreditua.
Arratsaldean burruka orregaz
egin gendun delitua,
galdu genduan modu orretan
goizez artuko frutua.

San Pedro

Goizean goizeti asten ziran txistuaren kalejirak: Juantxu txistulari eta Artaungo tanborrerua aguazilagaz bueltaka. Bolanderak be bai, eta animatzen erria.

Bederatziak ingurura etorri musikazko banda. Eurek be buelta bat egin musika joten, eta amarrak aldera arrimatzen zan udaletxeko portalera; eta gero udaletxeko korporaziñoa bajatzen zan, eta an batzen ziran korporaziñoa eta musikazko banda.

Aguazilak botaten eban bolandera bat, eta egiten zan formaziño bat: aurreti, bidea erakusteko, aguazila, eta gero musikazko banda joten, eta gero ondoan udal korporaziñoa: alkatea beren makilagaz eta beste korporaziñoak segiduan, eta erritarrak inguruan, eleizara.

Ateetan lotzen zan musikazko banda, eta udaletxeko korporaziñoa sartzen zan eleizara. Eleizan, aurrean, eukazan bakotxak beren aurkiak eta jazarlekuak: lelengo alkatea eta gero urrengorik urrengora.

Eta asiten da meza santua amar t'erdiak aldera. Eleiza dana bete-beterik egongo da, organista ta guzti, eta kantu asko izango da, iru abade altaran dirala.

Funtziño agurgarria da gaurkoan, eta elduko da sermoiaren ordua. Onelan asiko da abadea:

– *Tu es Petrus, eta super hanc petram aedificabo ecclesiam meam.* Zu Pedro zara, arria, eta arri onen ganean edegiko dot neure eleizea. Pedro da egon zana Jesusegaz lurrean, eta edan eban Jaunaren kalizeti. Beren odolagaz ifini eban Jaunaren Eleiza, eta gaur zelebratzen dogu Eleizaren egunik eta aundiena. Pedro Simon, Juanen semea, arrantzalea zan, Galilean Kristok aukeratua amabiren artean, munduaren serbitzalle izateko eta pastorea Jaunaren errebañuan. Jerusalemene, gero Erroman, obispo izan zan, eta kurutzean illa, 64-ko urtean, persekuziñoan, Neron enperadoreak epaitua. Ala bete eban Jesusen berbea, eta beren odola emon be bai, eta Batikanon enterratua zan. An fundatu eban Eleiza, beren bizitzan betirako izango dan Eleizea, eta zabalduko da mundu guztian. San Pablo izango zan beren ondorengoa.

Alan amaitu eban agurgarrizko sermoi eder ori guretzako.

Urten gendun kanpora, eta musikagaz plazaraño korporaziñoa, eta jentetza guztia kalea betean.

Lelengo, aureskua. Gero, musikazko kontzier-tua. Alan bazkari aurrea. Gero, bazkaltzera, Artabeko osaba Pabloenera. Bazkari ederra. Gure izeko Bizentak ifini eban. Bazkal ostean bertso batzuk be bai, eta ederto.

Ostera plazara. An zezenak ziran arratsaldean, eta beterik plaza guztia. Zezenak ederrak eta tore-ruak badaezpadakoak: Bilboko maleteru batzuk, kapagaz polito, baña ezin il ezetara be.

Azken baten, alboti sartu ta jausi zan zezena; eta festarako batzuk belarria eskatu, eta beste batzuk belarria iltzalleari kentzeko. Alan, jai aundia zan.

Orduan urtetan dau bigarren zezenak, eta lengo

antzera, baña il ezin. Jentea zarataka, eta urten deiela Txakalak. Txakala Dimeko gizon bat zan, barragarri bat, eta sarri urteten eban zezenetara. Baña antzinekoa zan, neure denporea baño lenagokoa.

Alan zan zezenen jaialdi ori eta arratsaldea, ta gabaz ostera be osabanera apaltzen. Apaldu eta bertso batzuk, eta ostera plazara erromerira gaba erdirarte.

Burruka bat be bazan: Igorreko mutil bik; eta bat-kutxillua sartu eutsan besteari. Odola dariola eroan eben ospitalera.

Gero laster amaitu zan erromeria. Gu be etxerantza kamiñoz oñez, ordu bateko bidean. Goizaldean etxera, egun luzea igarota.

Oraingo neska-mutilari

Mutil da neska datoz
danak afanean,
ez dakigu datozen
noren esanean.

Amak be konsejurik
ez dautse emoten,
alan ez ibilteko
bildur da esaten.

Iluntzian urten da
gaba ilunean
goizalderarte dagoz
sarritan kalean.

Mundua nola dagon
al bada ikasi,
oraingo gazteari
begiratzen asi.

Amabost urterako
ikasi ugari,
esaten dautset mutil,
bardin neskatxari.

Etxetikan urten da
or badoiaz prisan,
amak ez ete dautse
ezertxo be esan?

Tabernetan dogu oin
ikusten sarriten
alkarriari eldu ta
txupatxus egiten.

Mundua zelan dagon
badaki erriak,
zelakuak datozen
oraingo barriak.

Zer ete da oin ona
gauz gazteantzako?
Ez ete dau bildurrik
bizimodurako?

Maitasunikan gabe
alkarraz lotuak,
euren gorputzak ondo
dituez neurtuak.

Zer izango ete da
amaren etxean,
gaba orti emon da
etxera goizean?

Gaztetarik arturik
ainbeste jenio,
amaren konsejuak
ez dautso balio.

Aita ta ama nekez
umeak aziten,
obeto jakin deian
munduan biziten.

Eldutzen diranean
amabost urtera,
gaba amaitu arte
ez datoz etxera.

Umeari emonda
gaur kordela luze,
orrek eingo dau gero
or edozer gauze.

Lenago esaten zan
Urlien semea,
aitaren erentziko
oituraz betea.

Amabost urterekin
ikusitakoa,
berak nai duna eiten
ori da jokoa.

Ze pena izango da
aman biotzean.
alaba etorri barik
oindik goizaldean!

Gabaz ibillitea
oitura da oingo,
libertade larregi
ez ete da izango?

Zeinbat oitura dabe
gazteak arturik!
Griña txarrakaz dagoz
alkarri loturik.

Gaztetarik artuizu
munduko bidea,
beti eukiaz barriz
formalidadea.

Nobio edo nobi
bidea artzeko,
urteak bear diraz
orraño eltzeko.

Gaztetarik ez egon
planikan artuta,
gazteak buruan be
txoriak ditu ta.

Nobioa billatu
ba bear danean,
zentzunarekin ondo
eltzen zeranean.

Nobia billatzeko
egin esamiña,
ea neska ori dan
ona eta fiña.

Mutila billatzeko
noblea ta ona,
lanerako fiña ta
etxeko gizona.

Neskeak bear dituz
iru-lau bat dote:
fiña eta garbia
ta gizona maite.

Mutilak bear leuke
maitakorra izan,
emaztea ta biak
konpondu daitezán.

Ze oituragaz nai dot
neskea nik artu?
Etxerako ona ta
gizona maitatu.

Mutil on bategaz ni
banaz ezkonduko,
poztasun on batean
beragaz betiko.

Ze gauza aundia dan
lagun izatea,
ta senar-emazteak
legean otea!

Munduan zeinbat diran
ezkontzaz lotuak,
denpora gitxi barru
gero banatuak!

Neska-mutilok ondo
laguntzeko jarri,
esandako berbetan
segidu alkarri.

Anai arteko gerra

Etxean

1936-an etorri zan zoritxarreko gerrea, anai-arreba danok penaz ifinitzeko: batzuk il, beste batzuk zauritu, beste askok etxea itxi eta iges egin be-
arra...

Len esan dodanez, gerreak urten eban orduan be basoan giñan. Egur mordo bat Otxandioko frentera saldu gendun, eta ez euskuen ordaindu. Alan galdu gendun bialduko dana. Ez dakit zeinbat tonelada ziran, baña asko. Kamioi asko kargauta eta laster kobratzeko gagozala, mogidu ziran frenteak eta etorri zan ebakuaziñoa. Alan amaitu zan gure kobratzea.

Frentea eta bonbardeoak asi ziran, Gu egun askotan kobatara joaten giñan. Dimen be baziran ilak bonbardeotan, gu oraindik etxean gengoza.

Gero azaldu ziran *Orden Público*-koak. Baña ez etorren frenterik berantza, eta etxean gengoza. Egunez kobatara joaten giñan.

Egun batez, iluntzean, bagatoz etxera eta portalean asturianoak. Su aundi bat egin da olloak errontan egozan. A zan tristezea! Gure etxeko ollo guztiak lumatu ta su aundi orretan erre ta jateko.

Esan geuntsen miliziano orreri:

- Zelan egiten dozue ori?

Eta a zan erantzuna: jabe barik egon zirala eta alan egozala jaten. Orrez ganera, barriz, ez eukela janik.

Orrelan egun batzuk igaro genduzan, da lotu giñan ollo barik.

Erriz erri

Ostera be etorri ziran *Orden Público*-koak: urte-
teko etxeti.

Ez geunkan beste salidarik; artu burdia beiekaz eta orti bera. Burdian janari batzuk; txakurra geugaz, *Zoli*, ain gendun fameliako bera; txal bat burdiari lotuta...

Gero bean tratante bateri saldu geuntsan txal ori. Zeozer bear gendun dirua be jateko ta, ze irabazirik ez etorren inondi. Esne apur bat bagendun. Beiak emoten eban, Jaunari esker.

Baña egun tristea zan etxeti urteera. Lelengo gaba Igorren egin gendun. Tristerik eta apal orti bera, txakurra geure lagun gendula.

Bigarren egunean, Igorreti urten egin bear zan, eta nora joanik ez. Gero, andi urten eta joan giñan Larrabetzura. An lotu giñan etxe baten. Alboko etxe baten taller bat egon zan, eta an nik lana eskatu neban. Iru-lau egun egin nebazan lanean. Gerrarako taller bat zan.

Ogeitamar ogerleko irabazi nebazan. Diru gozoa zan orduan ogia erosteko, ze gosez gengoazan. Eta amak esan eustan:

- Semetxo, egun batzuetarako ogia.

Gero andi Zamudiora joan giñan. An beste etxe baten jarri giñan, baña ez denpora askorako. Frentea aurrera etorrela-ta, egun batzuetara urten da Santo Domingo ganera joan giñan. An jarri giñan etxe baten.

An galdu jakun txakurra be. An albokoak gabetan ganaduak ilten ebezan kontrabandorako, eta gure txakurrak, *Zoli-k*, ausia egiten eban, da kontrabandistak zaratarik ez eban nai euren negozio-rako; eta gaba baten berenezko tostada bat emon da gure txakurra il zan, naizta guk asko sentidu, ze ain listoa ta fina zan. Pena emon euskun. Gauzak galduez, geroago ta tristeagoa zan gure bizimodua.

Ebakuaketari nai deusat
orain nik bertsoak jarri,
gauza tristerik munduan bada
segidu daiogun orri.
Nora joanik ez euki eta
bagoaz erririk erri,
mundua amaitu egingo ete zan
pentsatzen genduan sarri.

Ibillera orrek eukiko al ditu
Jaunak arturik goguan?
Ori apenas dagon jarrita
legeko mandamentuan.
Gerra zantarrak ainbeste erru
nola ekarri dituan,
agintariak ete ekien
zelan ibili gaituan?

Ume gazteak zabaldu eta
gauza guztiak galtzean,
erririk erri joan da joan
ijitoaren antzean.

Argitasunik inñondi barik
ain ibillera motzean,
aita burdien aurreti eta
ama negarrez atzean.

Burdia artuta joan da joan
eta falta gendun jana,
ez dago janik umearentzat,
ez da naikoa esana.
Naiz eta gitxi, gozoa bazan
gure amatxok emana;
esperantza bat geunkan gogoan:
gera amaituko zana.

“Eusko Indarra”

Santo Domingon gengoza eta etorri zan nire kintadea soldadiskara joateko. Alan, an zan nire agurra. Triste aldi triste aldira joan gure bizimodua, ze andi be oraindiño gurasoak joan egin bear eben, gero ni barik eta txakur barik; ta oraindik jakin ez nora.

1937-ko apirillean deitu eustan niri soldadu joateko Euskadiko Gobernuak. Beste asko boluntario joan ziran, baña ni ez nintzan gerra-zalea. Alan etxean nengoan da deitu arte ez nintzan joan, da ordurako ebakuatuta fameliagaz nengoan.

Soldadiskako nire kontuak
oso diradez txikiak,
naizta giñaden gerra batean
Jaunak eskutik itxiak.
Batzuetan bai otzarekin guk
eroan penitentziak,
bildurra emon laike munduan
soldadiskako jantziak.

Amak be pena aundi bategaz
beren semea agurtu,

leku onera noiala esanda
aman biotza gogortu.
Baña nire amak beren aldeti
pena askorekin artu,
“Laster batean etorriko naz,
ama, ez zaitez bildurdu”.

Gerra denporan soldadu joan
derrigorragaz batean,
da zer pena zan ama agurtzen
eta mosu ematean!
Banandutzea izango zan ba
pena ta dudaz betean,
“Ondo ibili, semetxo, eta
agur urrengorartean”.

Urten ein bear gerrarako ta
agurtutzea bitarte,
eta semea orain lotzen da
ama ta aitagan aparte.
Jaunari eske beti zan ama
nik euki deian suerte,
“Agur, amatxu, trankil egon zu,
urrengo etorri arte”.

Lelengo Bilbora joan nintzan, *Caja de Reclutamiento*-ra; eta an izena artu eta *Garellano*-ko kuartelera, eta egun mordo bat an egin gendun.

Emon euskuen erropa eta jantzi soldadu erropakaz. Instruziñoa egitera goizean goizeti altza eta preparau kafesnea artzeko. Gero instruziñoa. Bizimodu eskasa: egun guztian kuartelean. Iluntzean ordu bi libre pasean. Bilbon diru barik ez egoan gauza aundirik egiterik, baña ori be libertadea zan.

Amabost egun egin da gero, bialdu ninduen *Eusko Indarra* batalloi batera. Onek eukan kuartelea Portugaleten, eta ara joan nintzan.

Batalloi au Gipuzkoan sortutakoa zan. Geienak Ernani aldekoak ziran.

Nik Portugaleten denpora aldia egin neban. Bizimodu ona: goizean altzau, jantzi eta jan da paseo. Besterik ez neban egiten. Iñoz frentera jana eroten kamioian joan nintzan, baña besterik ez. Oso bizimodu ona.

Baña frentea eldu zanean Bilbo ondora, orduan bialdu ninduen batalloira, Artxandara. Ni eldu nintzan eta an gengozan tente. Notizi txarrak ziran: aurrera etozela militarrek, eta an egon giñan zur Enekuri ganean. An egoan nire batalloi ori. Artxandati berantza erretiradan etorren. An inguruetan egin genduzan iru-lau egun.

Zapatak apurtuta, nengoan ortozik. Baña orduan ez etorren zapata barririk, ze jana be oztaz etorten zan. Lata batzuk.

Alan, zeozer janda, gaba ta egun mendian gengozan, larri eta estu. Eta ni, joan barria, bildurragaz. Penarik an egin genduzan egunak.

Enekurin artu gendun erretiratzeko ordena. Atzerantza goiazan. Berantza-berantza Bilborantza. Deustuti errekea pasau ta Basurto inguruan geratu giñan. Gero geiago ez giñan mendira igo.

Gure ofizialak esan eban, bein geurea galdutakoan, dana galduta zala, eta ez goiazala mendira. Kamiñoz goiazan. Ez gendun tirorik botaten. Gure indarrak moral barik egozan.

Egun bigarreanean, Bilbo itxi ta Kastresanarantza. Geratu ta lo egin, eta urrengo egunean beste aldikada bat, baña tiro barik beti. Alonsotegin be egunak egin genduzan.

Andi Balmasedara. Emen egin genduzan beste egun batzuk gerra barik, denporea emoten.

Andi aurrerantza Zallara eta gero Artzentalesera. Emen San Migel deritxon eleizan ifini gendun kuartela. An egin gendun denporadatxo bat, amabosten bat egun, Francoren indarrak arrimatu arte. Bizimodu ona. Jan ondo egiten gendun, da eleizan lo egin.

Egunez an baserrietati be ibiliten giñan, eta baegozan gure erritarrak be, ebakuauta. Eurekaz be egoten giñan sarritan.

Egun baten, olako baserritar bati beia abiaziñoak galdu eutsan, eta gure kapitanak esan eban erosi bear geuntsala bei ori geuk jateko, eta danon artean ordaintzeko balioa baserritarrari. Esan da egin, orrelan egin gendun. Bakotxari ez dakit orain zeinbat tokatu jakun ordaintzea. Baña baserritarra pozik lotu zan diruagaz, eta gu be ondo, okela ona janda.

Beste egun baten, joan mordo bat taberna batera, eta an merienda bat egin gendun, eta kantak eta bertsoan be egin gendun. Alan, umore onagaz gengoan. Ofizialak libre emoten euskun. Zelan ez goiazan geiago tirorik botaten, ondo pasau bear gendun. Gabean bai: danok egon bear gendun geure tokian. Baña beste barik, goizean asi ta gaberarte libre. Kartetan be egiten gendun San Migelgo eleizan, eta gero paseora. Baserrietati bueltaka egun guztian gengoan.

Alan amaituko zan geure Euskadiri serbitzea. Tirorik ez botatekotan, bakea obeto zan guretzat be. Peneagaz bai, geurea galtzeagaiti.

Prisionero

Ostera be arerioaren indarrak aurrerantza, eta geureak ez euken burrukarako ganarik. Ego-taldi bat egin eta baetozan Francoren indarrak. Gu be urriago. Egun bat leku baten eta beste egun bat beste leku baten, baña gerra barik.

Urten gendun Santander alderantza. Bide aldi bat egin eta jarri giñan deskantsatzen.

Gero prisionero egin ginduzen. Reketeak ziran. Kozinero bat Igorrekkoa zan. Ezagunak lez artu ginduzan. An egon giñan goiz guztian, eta bazkaldu be an egin gendun.

Ofizial bat etorri zan gero, eta arek galdera egin euskun nondi etorri garean eta ze batalloitan gengozan, da tratamentu onean.

Urrengo egunean, beste ofizial bat etorri eta ondo artu ginduzan. Baña an baziran lenagoko presoak, kastigua betetzen egozenak, eta ofizialak esan euskun:

– Onek besteok ez diraz zuekaz batera egotekoak, ze kastigu bat betetzen dagoz, eta ez diraz ondo egotekoak. Baña zuek ideal bategaiti zagoze emen, eta merezi dozue tratu bat lagunak lez. Orregaiti, kartzelako zuzendariari eskatuko dausat batera ez egotea zuek onekaz.

Gero aldatu ebazan beste gela batera.

Egun batzuk egin genduzan an. Baña ondo gengoan, jana naizta ona ez izan. Lo egiteko manta bana. Udea zan eta egon laikian.

Lau edo bost egun egin genduzan orrelan; eta egun baten, alan gagozala, reketek batzuk, Bizkai-koak, etorri ziran, edo ikusten edo ez dakit zetan. Baña batek ezagutu ninduan, eta esan eustan ea gure neban Bilbora etortea. Baietz esan neutsan, an be txarto gengoan da. Esan eustan urrengo egunean urtengo gendula.

Kamioi bategaz egozan, eta urrengo goizean an urten neban. Igo neban kamioira. Bidean jan gendun zerbait, eta Bilbora. *Cervantes* eskoletan egon zan kanpo konzentraziñoa, eta an itxi ninduan.

A egoan dana beterik Bilbo aldean arrapautako jenteagaz. Ez zan leku ona. Kuartu-bañu danak ataskau ta lantzean batzuk arek libratzen. Baña ezin zan ondo ereki. Alan, kaka usañagaz egoten giñan.

Illa bat inguru an egingo neban. An nengoala, etorri jatan aita bisitatzera. Ekarri eustan maatsapur bat eta diru apur bat, ze etxean be ez egoan dirurik orduan, eta ni ba pasatzeko moduan nengoan.

Nire auzoko mutil bat be nigaz egoan, eta abisua artu eban zelan koñatu bi apusilatu ebezan, ta tristetzekoa zan egun ori arentzat, eta bai niretzako be. Erru gabeko bi gizon gazte il ebezan Zornotzan.

Niri aitak notezi onak ekarri eustazan. Beste nire anaie biak be ondo bizirik zirala, bata trabajadoreetan eta bestea, Luzio, etxean, ze au ez eurien kintak arrapatzen. Eta alan nik artu neban trankilidadea.

Bien bitartean, gerrea be aurrera joian, eta esan laikean gerran baño obetoago gengoala. Ilebete inguru egin eskola orreitan, eta gero bagoietan sartu eta Mirandara, *Azucarera* fabrika batera.

An jente asko zan, baña bai zorria be asko. Bero eta zorri artean egon giñan an. Axe zan txarto bizi-tea! Garbitasunik ez egoan, eta jentea manta zar batzuekaz alkarren ondoan lo egiten. Zorriak ezin kendu bateti, eta besteti an ez egoan geldi egoterik zorriakaz. Ez dakit zeinbat denbora egin neban an, ze arako denpora gitxi zan asko.

Alangoren baten, ostera be beste mordo bat ba-goitan sartu ta Bilbora, zorri ta guzti, Deustuko Unibertsidadera.

Or apur bat obetotxoago. Egun baten, ostera be aitaren bisita baneban. Notezi onak eta diru apur bat boltsikorako, eta ekarri eustazan erropa batzuk be. Eta esan eustan:

– Emen obeto ago gerran baño.

Eta al dala egoteko bertan, eurak be trankilago egozala ta, ni an egon ezkerro.

Alan nengoan ni be, iñora joateko idea barik. Baña egun baten ofizialak deitu eustan, eta pregun-tau nongoa nintzan. Nire eretxia informea errira eskatzeko izango zala pentsatu neban.

Andi egun batzutara aita etorri zan, eta baekian errira zelan informea eskatu eurien. Alan, esan neutsan aitari:

– Laster ni soldadiskarako izango naz.

Alan izan zan. Andi zortzi bat egunera deitu eusten, eta Burgosko *Caja de Reclutas*-era joateko, eta zortzi-amarren bat joan giñan.

Donostiako Loiola

Burgosti bialdu ninduen Donostiara, Loiolako kuartelera, artilleri astunera, ze francotarrak ez eben gure gu infanterira frenterantza bialtzerik. Alan, atzean egoteko artilleri astunera bialdu, eta gu be ondo joan giñan atzean egotean.

Bilboti Burgosera mordoa giñan; baña Burgosen partitu giñan, batzuk leku baterantza eta beste batzuk besterantza, Donostian Loiolako kuartelera.

An lelengoz entzungo neban goizeko korneta, arin altzau eta preparatzeko. Gero, armozua. A be ariña: kafe apur bat.

Gero, instruziñora. Orretarako ondo gengoan, tripa aundi barik eta gorputza triste, edozer gauzarako.

Iluntzean urten gendun ango ondoko sagardo toki batera. Boltsilloa be ajil egon zan, eta sagardo tokiti etxera ostera be, kornetarako. Gero, aparia lasterrean.

Bizimodu txarra. Ez zan ango bearragaiti. Kantsaziño aundi barik bizi giñan. Arratsalde danetan sagardo tokietara.

Gipuzkoano bat barria etorri zan euskaragaz bakarrik. Erderarik ez ekian berbatxo bat be. Lelengo

egunean nigana arrimatzen asi zan, da gurekin arratsaldean urtetan eban. Joaten giñan batera sagardo tokietara.

Baña gipuzkoano orrek ez eban iñoz ezertxo be ordaintzen. Rejlgoa zan, eta euskara bakarrekoa. Nik apur bat nekian erdera, baña arek berba bat be ez, eta nire atzean. Nirekin artu eban konfiantza. Baña ez eban lez ezertxo be pagatzen, egun baten esan neutsan berari:

– Ik ez dok ezer pagetan.

Eta erantzun eustan:

– Bai. Etxean be esan dauste lantzean bein pagatzeko, beste batzuen antzera.

Ori, berba egite ori be sagardo tokian zan. Ori esan da, ezer esan barik, urten egin eban sagardo tokiti, eta esan neutsen beste laguneri:

– Ba esan daustek etxean be esan dautsela beste batzuen antzera ordaintzeko, eta emendi aurrera berak be pagauko ebal.

Alan, gu barruan gagozala, etorri zan Rejlgo mutil ori, eta badator nire ondora, eta esan eustan dirua boltsa bat juboian eginda eukala ez ostuteko, eta ataraten ara portal batera joan zala. Bestelanean, lagun artean, ezin atara leikela boltsarik.

Alan, berak pagau eban danona, eta aurrera asko pagatzen eban. Andi aurrera bera zan pagadorerik onena, Donostian gengoan denpora guztian.

Baña beti nire ondoan ibiliten zan, artu eustan lez konfiantza. Arratsalde guztietan nigan arrimatura egoten zan. Mutil ona eta lagun ona, eta betirakoa.

Baña txarto ibiliten zan kuartelean erdera barik. Beti nire ondoan. Baña nik ez dakit mutil ori non bizi zan, berba bat erderaz ez jakiteko. Rejljen be, urrineko baserriren baten biziko zan.

Gero lagun aundiak egin giñan alkarregaz. Loiolan gengozan artean, beti batera. Gero, ni destinoagaz joanda, a an lotu zan. Ez dakit gero besteren bategaz lagun egingo zan.

Kuarteleko bizimodua txarra ez zan. Orain, artu egin bear orretarako obligaziñoak eta eguneroko serbiziñoak. Baña neke gitxiko lanak: garbitzea eta egunen baten kozinako serbiziñoa. Baña oso erreza ango lana.

Ni beti pozik bizi nintzan. Egun guztietan Donostia aldera buelta bat. Lagun onak. Dirua gitxitxo. Baña dagoanagaz moldatu bear. Ori be ez zan iñongo kastigu aundirik gazte batentzat: eguneroko lanak, instruziñoa apur bat, sapatuetan zafarrantxoa. Baña a be laster egiten zan.

Denpora gitxi egin neban kuarztelean. Geiendi ilebete zan nik Loiolan egindako denpora, baña pozik egon nintzan. Ofizialak be onak. Alan emon neban Donostiako egotaldia.

Jaka

Donostian destinoa artu neban muniziño almazenera. Bizimodu ona izan neban. Ez neban iñoz frenterik ikusi. Beti gengozan ogeitamar bat kilometrorra frenteti.

Donostiati Jakara. Ara eldu giñan gabaz. Ogeiren bat giñan, geienak euskaldunak.

An kuartel baten lo egin eta urrengo goizean andi sei bat kilometrorra joan, muniziño almazen bat ifiniteko, zemento fabrika bat izandako leku batera, Frantziako kamiñoan.

Oñez joan giñan. Ogeiren bat giñan, eta gure danon izen-apelliduak emon eutsozan bateri. *Facultativo de minas* zan au, Eusebio Larrea, eta beragaz gu beste danok.

Eusebiok pentsau eban bera enkargau joiala; eta, eldu giñanean fabrika zar orretara, laster etorri zan teniente bat gure buru izateko.

Asi ziran urrengo egunean kamioiak etorten muniziñoagaz, almazenak egiteko. Gu asi giñan lanean. Artu lepoan kaja muniziñoa kamioiti, pilla aundiak egiteko fabrika barruan; eta Eusebio geldian. Beste danok lanean. Eta tenienteak badiñotso Eusebiori:

- Zuk zer egiten dozu geldian?

Eta badiñotso:

- Ni onen karguan etorri naz.

Asarratuten da tenientea, eta esan eutsan Eusebiori:

- Emen ez dago beste ugazabarik neu baño; eta zu lanean, beste danak lez!

Orduan Eusebio be geugaz batera kajak artu ta eroan, besteak lez, naizta karreradun gizona izan. Alan, denporaldi bat egin eban geugaz.

Baña gero be suertea izan eban. Etorri jakozan an urrean tunel edo lurpeko zulo bat egin bear zala, ta ara joateko egunez, *facultativo de minas* zan lez; eta gero be arek ez eban geiago lanik egin.

Soldadu batzuekaz joaten zan beren mina zulora. An zulo aundi bat egin, gero muniziñoa an gorde-tzeko.

Balientea zan Eusebio, euskaldun garbia, Galdakaokoa, eta mutil ona. Baña lan gitxi gustatzen jakon. Egia zan bera karrerako gizona zan, eta gu besteok langilleak. Arek artu ebanean Jakan gure danon izenen relaziñoa, pentsau eban bera enkargau izango zala. Baña an lelengotan tenienteak ez eban bera baño besterik iñor gure agintzeko.

Onelan zan Eusebioren artu-emona, eta lanean asi bear, beste danok lez.

Baña gero etorri jakon ostera be agintzeko aukera barria, mendian zuloa egiten. Alan, gero esaten eban:

- Orain be ni bear izan najuek or zuloa egiteko eta agintzeko.

Arek lo egiten eban geugaz. Baña egunez joaten zan beren tunelera, an toki aundi bat egiteko.

Gu besteok, an lotu giñanok be, ondo bizi giñan. Jan ondo egiten gendun, etxean baño obeto. Negu

denporan, eberdieten, janen ostean kafea be emoten euskuen, eta tenienteagaz etxeko lez giñan danok, eta ain pozik.

Goizean arpegia errekan garbitu bear, eta ain ur otza. Ori zan txarrena. Ulleak be gogortuta lotzen ziran.

Baña beste guztia ondo: jan ona, bear gitxi eta bizimodu ona. Lo egiteko koltxoi bana, ta ondo egiten zan lo. Loditzeko moduan gengozan danok.

Gero barriak be etorri ziran, lan geiago egoala eta. Geienak ziran Santanderkoak. Sarjento bat be barria, eta fameli aundiagoa jarri giñan.

Soldadu bat asi zan gabetan alboko etxe batera joaten neska batengana ogera, eta sartzen zan parrati gora igo ta bentanati barrura neskeagana. Aitak eta amak ez ekien ezer, baña tenientea enteratu zan egun bañen. Begiratu eban aber mutil ori an egoan kuardelean, eta ez zan egon.

Sarjentoa eta beste iru soldadu agindu ebazan etxe orretara gabeen. Jo eban atea eta aitak ez ekian ezer. Baña joan ziran alabaren abitaziñora, eta an egoan mutil ori. Neskeagaz arrapatu eben. Atara kanpora ta gero Jakara presontegira bialdu eben soldadu ori.

Baña aundiena zan neska orrek aizta txiki bategaz egiten eban lo. Baña, mutila doianean, neskatoa beste oge batera pasatzen zan, mutilari lekua ixteko. Ze erakutsia txikerrarentzat be zan.

Teruel

Jakati Teruelera aldatu gara. Bigarren eskura aldatu barria, billatu dogu guztiz apurtuta. Etxeak danak ziran lurrean. Taberna bat zan ifinita, soldaduentzat, *Hogar del Soldado* izenagaz. Bestelan, iru-lau etxe beian estaziño ondoan ziran zutunik egozanak, eta antxe gengozan gu lonja baten.

Otz aundia egiten eban, eta gabean lo egiteko danak etxuten giñan, azpian koltxoi batzuk eta ganeti mantak, segiduan danok batera jarrita, arloan alkarren ondoan, beroago egoteko.

Alboan, lonjan, muniziñoa, almalzen aundiak. Gure lana gendun trenak ekarten ebazan muniziñoak bajatu eta pillan ifini, bakotxa beren arloan; da eske menditi datorren kamioiari emon eskatzen duana. Ori zan gure lana. Ta arratsaldean, bearrik ez badago, batzuek libre.

Baña badiñot: ez egoan erriko jenterik iñor. Danak martxauta ziran alde baterantz edo besterantz. Egon zana zan soldadua bakarrik.

Guk bizimodu ona. Jan ondo, etxean baño obeto, ta bearra gitxi.

Ogei ta bosten bat lagun giñan; eta, tren bat etorri arren bagoi batzuekaz, laster egiten gendun lan

ori: treneti kamioia eta kamioia almazenera utsitu; eta frenteti datozen kamioiak kargau.

Gero aparte geunkan guardi egitea estaziñotan, batez be soldaduak iges eginda datozenak zaintzeko. Gaba baten ni nengoan guardian estaziñotan gaba erdian, eta soldadu bat etorren estaziñora, mantagaz burua be tapauta, an bagoi baten sartu eta etxerantza joateko idean.

Soldadu ori arrimatu zanean, ez jakon arpegirik be ikusten. Eskua bota neutsan lepora arpegia ikusiteko, eta zan neure erriko mutil bat, neure ezaguna.

Bera be arrituta lotu zan, eta ni ere bai, Teruelen Dimeko mutil bat orrelan gaba erdian agertzea. Bera be sustau egin zan, eta esan neutsan:

– Nora oa, ba, orain?

Eta erantzuna emon eustan gaixorik dagoala eta etxera joan gure eبالa.

Ze tren merkantziak urteten eban, eta ara frenteti iges egindako soldaduak etorten ziran.

Gero esan neutsan:

– *Bueno*, sartu adi or bagoi baten, baña ez eik iñon esan nik itxi doadanik.

Sartu zan bagoi baten da laster urten eban merkantzi orrek Zaragozarantza. Neu be trankil, bein urten ebanean merkantzi orrek andi, ze mendian soldaduak txarto egozan, edurrak eta otzak egon ezinda; eta, frenteti martxau ezkerero, denpora aldi baterako bakea izaten zan.

Gure misiñoa zan datozenak detenitzea; baña, bein trenak urten ezkerero, gero trankil, ze arek batzuk etozan Zaragozararte, eta beste batzuk Bilbora be bai, bein andi urten ezkerero.

Gero guri ez euskun ardura ze destino izan dabon soldadu orrek. Batzuk joaten ziran urrin, eta

beste batzuk ez. Baña bien bitartean egun txarrak pasatzen doiaz aurrera.

Gure mutilak esaten eban gero, gerra amaituta, bera etxerarte etorri zala. Baña bitartean ospitalen baten be egon zan, eta orrelan arreglatu eban beren martxakeria.

Teruelen amaitu gendun negu guztia betiko lanean: muniziño deskarga eta kargau, ta lantzean bein estaziñoan guardia egin, soldaduak iges egin ez dagian, frenteti martxauta.

Ala be bizimodu ona. Otza bai, baña besterik ez.

Illean ogeitamar pezeta gendun soldata, eta sarritan ez gendun diru paltarik boltsikoan. Ni ez nintzan iñoz be diru barik egon. Bost ogerleko edo amar bat pezeta beti nebazan.

Etxera orduan ez zan dirurik eskatzen, ze etxean be ez egoan dirurik. Alan, amiñistraziñoa ondo eroan bear aguantatzeko, boltsillua agortu barik.

Eguneroko pezeta bat. Badakizu gastuak be alan izan bear dauala, eta eutsi diruari, barria etorri artean. Barria etorri orduan, apur bat boltsilloa berotu, eta orduan apur bat eragin boltsikoari. Baña kontu. Ila urrin dago.

Zaragoza

Aldakuntza. Oraingoan Zaragozara, kapitalera, Akademia Militarerra.

Andi bearrean joaten giñan Torrerrora. An geunkazan muniziño almagaznak. Lantzean batzuk etorten giñan bearrera; eta besteak bertan, kuartelean, bear aundi barik.

Bizimodu ona gendun: lantzean bear apur bat; eta, libre gengozeanean, arratsaldeetan pasiora. Or bear gendun diru geiago, egun guztietan kapitalean. Txarrena diru faltea zan. Baña or be kontrolatu egin bear boltsikoa nola dabilan. Ostantzean, instruziñorik ez gendun egiten, eta dana zan olgatzea.

Egun baten etorri ziran barriak. Baña onek gazteak, kintoak ziran, eta geure iru soldaduak, eskilaran gorantza datozela, txapelak kendu eutsezan. Asi ziran burrukan eskilaran, eta kinto bat jausi eta be-soa apurtu eban, eta ospitalera.

Eta geure iru lagunak kalabozora, eta bildurrez eroango ete dabezen militar presondegira. Andi edo orti salbatu ziran. Baña an egin gendun denpora dana kalabozoan egin eben, eta penaz. Besteok pasetzen arratsaldean, eta eurak an egon bearra urten barik. Naiko penarik zan gazte batzuentzako.

Gu, barriz, egun batzuetan lanera Torrerrora. Baña ango lana gauza gitxi zan. Kaja batzuk aldatu bateti bestera, eta besterik ezebez; eta urrengo egunean kalera paseatzera.

Sarritan sartu giñan Pilargo eleizara. An egozan, pilar bitan, bonba bi. Gorriak botiak zirala Pilargo eleizara, eta milagro ez euriela esplosiñorik egin. Milagro lez propagandan eukazan. Ez dakit orain an izango badiraz edo ez. Baña orduan an ziran, jenteari erakusteko, eta jente guztia areri begira jarriten zan. Bonba biak pilarrean eskegita. Ori be bazan Eleizaren propaganda bat, batzuen esateetan, gure mundurako.

Orrelan zan geure bizitza Zaragozako urian, altu-baju asko barik. Egun batzuetan lanera Torreroko almagenetara; eta beste egun batzuetan goizean Akademia Militarrean, eta arratsaldean Zaragozako kaleetati paseatzera.

Diruagaz me ibilten giñan. Kapitalean non gastau asko eta zer gastau gitxi. Kuartel inguruan egon bear, ez badago ezer boltsikoan. Denporea pasatu egiten gendun. Ni, alan be, ez nintzan iñoz be diru barik egon.

Ez gendun denpora asko be egin or be. Egotaldi txikerra zan. Ilebete inguru.

Egun baten, nire lagun batzuk joan ziran paseatzera. Ni laneti nintzan eta ari esker. Ba, lagunak, Zaragozako paseoan, topo egin eben ejerzitoko koronel bigaz.

Saludorik ez eutsen egin koronel orreiri, eta onek deitu egin eutsen; eta ea nongoak dirazen, ez dautselako saludorik egin paseo baten. Artu eutsezan izen-apelliduak eta non dagozan, eta itxi eutsen.

Baña urrengo egunean arduraz ziran gure muti-lok. Da, esan da egin, bigarren egunean deitu eutsen ofizinara, eta ofizialak emon eutsen kastigua,

eta esan eutsen ez doiala kastigu aundirik emoten. Emendi aurrera, iru ziran eta irurak egun guztietan bearrera joango zirala. Alan disziplina gitxiagogaz pasauko zirala.

Olan, gero, an gengozan denpora dana, arek irurak lanera, eta gu lantzean bein bakarrik.

Soldadiskak badituz beren goi-beak. Momentu batzuetan ondo ta pozez, baña beti ez.

Zer dan begitu ba soldadiska
gazteak gareanean,
etxerik barik lagun batzukaz
egon bear degunean;
agintzarikan iñondi barik
beti iñon esanean,
alan da bere ni beti nago
emen be zorionean.

Lelengotarik maisuak artu
geure goikoen antzera,
euren esanak ondo eginda
bertan gogoa artzera;
ez-ezaunaren artean barriz
mundu barrian sartzera,
agintaria arrazoiduna
ta norberena galtzera.

Vinaroz

Zaragozati aldatzen goiaz Vinarozera, Mediterraneoko itxasoko portura, militarrek republikako indarren lurak zati bi egin ebezenean.

Vinaroz erri polita zan, eta pozik gengoan toki orretan. Ogei ta bosten bat soldadu muniziño almanen jabeak. Muniziño kajen ganean egiten gendun lo. Ez gendun beste tokirik. Etxeetako lonjak ziran gure almanak, eta kaja ganeetan ifini lo lekuak, gogor baña ala guzti be bearrean lo egiteko.

Gaba askotan gorrien abiaziñoa etorten zan. Sirenak joten ebanean, guk kanpora urteten gendun. Asiten ziran refletoarak argia gora botaten, eta antiaeroak tiroka. Ori gaba askotan pasa zan, baña gu ez ginduezan iñoz jo bonbok. Urriñean jausten ziran, da beti gabaz etorten ziran, loa galazoteko. Baña kañoi asko zan an eta ez ziran asko arrimazten.

Bestelan, egunez bizimodu ona gendun guk: muniziñoak deskargau eta kargau kamioietara. Bearra ez zan ezer. Ni beti kamioi ganean jarriten nintzan. Besteak arloan lepoan bakotxak kaja bana; eta gu, lagun pare bat, kamioi ganean plegatzen, kargau bear zanean; eta, utsitu bear zanean be, igual: gu ganean emoten bakotxari lepora kaja bana.

Baña ogei ta bost lagunentzako ez zan ezer be be-
arrrik. Olgatzea lez, guk gendun sasoirako.

Geienak euskaldunak giñan, eta ondo artuak, bai
alkarregaz, bai agintariakaz. Destakamentuan ez
zan kastigurik be izaten an. Gaberako be, apur bat
beranduago etorri arren, ez zan kastigurik. Beti
trankil.

Egun baten aldeanu bat etorri zan esaten beren
soloan bonba bat dagola; eta ofiziala joan zan iru-
-lau soldadukaz, eta bai artifizierua be, eta bonba
ori an esplotatu barik.

Pentsau eben portura eroan karru baten eta itxa-
sora botatea. Eroan eurien portura, eta ofizialak
agindu eutsen soldadu biri, bakotxak punta bane-
tati goatuta bota daiela uretara. Baña batari eskuti
jausi egin jakon, eta bertan esplotatu eutsen.

Biak jaurti ebazan uretara. Bata ilda atara eu-
rien uretati. Besteak erida batzuk, baña ez eukan
gauza aundirik. Orrelan zan illa, soloan ez esplota-
tutearren.

Gero esaten eben artifizieruaren errua zala. Baña
a pasau zan eta ezin laikian egin ezer.

Euskalduna zan ildako ori, gipuzkoanoa, eta mu-
til ona. An portuko orma ganean emon eban azken
arnasa. Onelan amaituta lotu zan mutil onen joan-
-etorria, abiaziñoako bonba bategaz.

Ostera be banoia ango gure bizimodura. Egun
ona egoanean, uber be itxasora joaten giñan, beti
bertan batzuk lotuta, bearren bat etorten bazan be,
badaezpadan. Baña besteak beti libre, eta libreak li-
bertade aundia izaten eban arratsalde guztirako,
uber edo paseatzen errian edo kanpo aldeti buel-
taka.

Ofizial onak ziran. Jan be ondo beti. Ogei ta bost
bat soldadu. Gure bearrerako gizon larregi giñan,
eta erdiak beti libre.

Batzuek, listotxoagoak, nobiak be egiten ebezan. Beste batzuek ez. Kokoloagoak edo atzean lotzen giñan. Baña daneti gengoan. Batzuk paseatzen errian.

Ni sarri beste bategaz bueltaka izaten nintzan. Eibarkoa neban nik lagunik aundiena: Benijno Elkoro. Au beti zan nigaz.

Aldakuntza egiten gendunean, beti arduratuten zan alkarren ondoan ifinten bion maletak, alan aurrerantza be alkarren ondoan egoteko. Orrelan lagun amaibakoak giñan soldadiska guztian, naizta geiago ez dodan ikusi. Ain laguna zan, gu ez giñan iñoz asarratu; eta alkarrerri laguntzen gengoan gerra amaitu arte.

Euskara egiten gendun berba, geure errietan lez. Erderarik ez gendun egiten iñoz be geure artean. Beti euskara zan gure izkuntza.

Gandesa

Gandesan jarri giñan, Vinarozti etorrita. Ori ez zan erri aundia. Oso etxe gitxiko lekua zan.

Joan giñan goizean eta lonja edo etxe bitan jarri giñan laster. Beti genduzan etxeak muniziñoagaz.

Andi joaten giñan beste erri txiki batera be sarritan. An ardauden almalzenak ziran. Ardau zuria egoten zan, eta ona.

Geure bearra an be betikoa: kamoia deskargau eta kargau. Baña ogei ta bost soldadurentzat ez zan ezer be lan ori.

Alan, beti kanpoti ibiltzen giñan egun birik baten, ze erdiak inguru ez gendun faltatzen geure lantegian. Ze badator kamioi bat frenteti muniziño eske, gu gertu egoten giñan. Momentu baten kargatzen gendun kamioi ori, eta gero bertan gengozanak be olgatzen egoten giñan.

An agintariak ez eban ezer be esaten. Guardian dagoana bakarrik zuzen. Besteak, erdiak inguru, an ondoan, etorten bada bearren bat egiteko.

Egun baten etorri ziran lau kamioi batera deskargatzeko, eta beste iru bat kargatzeko, eta larri aurkitu giñan. Erdiok bakarrik bearrerako. Baña, izerdia botata, agintariak konturatu barik amaitu gendun lan ori, bear asko eginda.

An datorren kamioia arin bialtzea zan geure obligaziñoa. Bein arek bialdu ezkerero, gero ez zan geiagolanik.

Gabean, an be, muniziño kajen ganean lo egin bear. Gogortxo bai, baña besterik ez.

Gandesa barrio bat zan. Etxe gitxiko toki bat. Jentea be oso gitxi errikoa. Kasi soldadua bakarrik.

Gu beti, erdiok, kanpoti ibilten giñan egunero, edo batean bai bestean ez. Baña ondo jan eta paseau. Bizimodu ona guztiz. Non gastau be ez gendun eukiten.

Ebro

Oraingoan gagoz frentearen ondoan. Pinal deritxon errian edo auzune baten. Ebroko errekea daukagu urrean, eta erreka onek egiten eban frenteen separaziñoa. Alde bateti, Kataluña aldeti, Gobiernu edo gorriak esaten geuntsena; eta besteti gu, Francoren aldekoak.

Guk geure almalzenak an geunkazan iru-lau etxetan ifinita. Ez zan iñor be bizi paraje orretan. Bakarrik soldaduak. Etxe baten egozan *Plana Mayor*-ekoak, frenteko arduradunak.

An infanteria batalloi bakarra zan errekearen ondoan. Arte aundia zaintzeko.

Erreka ori an zabala zan, ze Tortosa urrean zan paraje ori. Eta gu be errekatu oso urrean izan giñan.

Trena gu gengoan tokian amaitzen zan, eta ararte trenez etorten ziran merkantziak, muniziñoak, soldaduak eta abar. Egun guztietan eltzen zan merkantzia.

Bezperan elduta geunkan tren bat muniziñoagaz, deskargau barik. Iru-lau etxe genduzan guk. Alan, bakotxa beren etxeetan egoten giñan aparte. Lo be bakotxak beren tokian egiten gendun, eta bakotxak beren muniziño klaseak eukiten genduzan. Baña trena etorrita egon zan guztiontzako.

Eta Santiago goizaldean emon atakea gorriak. Pasau errekea eta, eguna zabaldu zanean, eldu ziran gure aurrera gorri edo Gobiernuko indarrak.

Iñor infanterikorik etorri barik, alboko etxeko *Plana Mayor*-eko soldaduak egunsentian joan ziran frenterantza. Baña bueltan ez etorren iñor be.

Lelengoz, gure ganeko aldeti, altura bateti, asi ziran guri tiroka. Ez genkian zer egin, eta ezin urten portalera, ze portalera tiroka egozan da. Ango bala otsa!

Eta ez gendun geugaz ofizialik be. Komandantea zan buru; eta urrengo, tenientea. Tenientea erlebatzen zan eta martxauta egoan. Baña oraindik barria etorri barik gugana. Eta komandanteak keridaren bat eukala esaten zan, eta alan kanpoti zan.

Gu sarjento bategaz bakarrik, eta bera gure etxean ez zan egoten, eta gu iñongo agintari barik gengozan.

Geuk erabagia artu gendun martxatzea. Baña ezin urten. Portaleak aurrean kamiñoa. Baña an tiroak euria lez jausten ziran. Alan da guzti be, urten bear.

Leku gitxian geunkan beste etxe baten ostea; eta, araño joan ezkerro, gero aren bueltan sartzen giñan trenen tunelera. Alan, gero mendiaren ostean urte-ten gendun.

Baña ze larritasuna urteeran! Batek galapan urten.

– Ene! A pasau da!

Gero beste batek eta pasau. Nik be urten neban eta pasau nintzan. Baña nire atzekoa eridu zan besoti. Bala bat. Baña etorri zan etxe osterarte. An besoari benda bategaz ifini eta mugidu giñan tuneleti atzerantza.

Baña gure beste etxeetakoak ez ziran etorri. Arek

an prisioneru lotu ziran. Geiago ez gendun aren notizirik. An itxi genduzan amabosten bat soldadu, iru-lau lonja muniziñoagaz beterik eta tren bat osoa beterik muniziñoagaz.

Eta gu tuneleti atzerantza. Lelengo etxeak topau genduzan lekuan itxi gendun eridua. Militar batek artu eban ospitalera eroateko, eta gu oraindik aurrera, abarketakaz bakarrik. Tiroak asmau eta altzau giñan lotati, eta ez gendun ekarri ezebez.

Iluntzerako allegatu giñan amabost kilometro ingurura, eta an egin gendun topo komandanteagaz. Eta bera, iru-lau soldadu artu eta trenen makina bategaz joan zan, ea an itxiko trenari engantxau ta ekarri al bazan. Baña etorri ziranean pozik, ze tune-laren sarreran ganean egozan ordurako gorriak. Bota eutsezan bonbaren batzuk, eta buelta egin eben ostera. Larri ta estu egon zan komandantea.

Etxe barik eta ezer barik, jantzirik be ez eta ezebez, a zan ezbearra soldadu tristearentzat iluntze orretan! Ze egun señaladua Santiago eguna! Itxi geure gauza guztiak eta martxatzen jarri. Ze uste bako eguna!

Iñok be ez eban uste errekea pasau eta atakau bear ebenik gorriak, eta egun baten ainbeste Ebroko mendi artu.

Iluntze orretan, trenak geure indarrakaz gorantza eta gu berantza.

Geure komandanteak baeukan zer ikusi egun orretan. Ez dakigu zer jazo zan beragaz, ze geiago guk ez gendun ikusi. Arritzekoa zan gizon ori geiago ez ikustea.

Noren errua izango ete zan ainbeste terreno egun baten galtzea, gero ainbeste milla lagun ilteko barriro mendiok arrapatzen?

Gure lagunak be geiago ez genduzan ikusi, an prisioneru lotu ziranak. Ez dakigu ze suerte izan

eben andi aurrera. Santiago egunean gendun bana-keta. Gu, etorri giñanok, trenbidez amabost bat kilometroan oñez, eta gero beste ogeitamar kilometroan trenez.

Gu atzerantza eta tropa barriak datoz trenez frenterantza, etorri eta etorri gaba guztian. Ze arpegi tristeagaz soldaduak, euren ordena betetzeko!

Munduan ete dago legerik, olan alkar ilten anaiak ifinteko? Ze gauza negargarria erri bateko anaiak alkar ilten! Nok onartu laikez gauza orreik? Ez dira onartzekoak.

Ba gu gero, gaba orretan, etorri trenean eta lotu giñan ogeitamar kilometroan, eta an estaziñoa eukan trenak.

Urrengo goizean asi ziran trenak muniziñogaz etorten. Etorri ziran lagun barriak, oraingoan trabadoreak, ze gu, lengoak, ez giñan zortzi-amarren bat baño; eta ain zan bear asko gau ta egun estaziñoan utsituten eta menditi datozen kamioiai emoten.

Ni be enkargau lez egon nintzan, ofizial onakaz. Egun baten, nik bear ez dan tokira utsitu nebazan amarren bat kamioi. Baña gero konturau nintzan arek beste pabilloi baterakoak zirala, eta esan neutsan ofizialari uste dotala alrebesteko tokian utsitu dirala.

Ni nintzan arduraduna, eta esan eustan:

- Ba, orain bear askogaz gabiz, eta biar edo etzi, astia dagonean, kanbiau beste almazenera, eta zu trankil.

Gero, astia artu nebanean, egin neban aldakuntza, ze orduan ez giñan lotu be egiten lanean. Ni agintzen nengoan, ze konpañi bat gendun barria.

Alan da be, txarto gengozan. Erroparik ez gendun. Bakotxak beren kollararik be ez gendun. Kollara bategaz egun batzuetan jan gendun.

Egun baten, kapitan bat etorri zan zelan gagozan ikustera, eta ofizialak esan eutsan zelan gu ezer barrik gengoan; eta ofizial orrek badiñotso kapitanari niri egiteko galdera ea zelan gengoan. Etorri zan nigana eta esan neutsan:

– Jantziatan dodazan erropa onek diraz nik dodazanak.

Artu eban papel bat eta idatzi eban zeinbat lagun giñan modu orretan gagozanak; kollara bategaz jaten dogula zortzi lagunek aldizka; eta esan eustan:

– Biar etorriko diraz zuen erropak, eta bear dozuzen gauza guztiak. Non dagoz zure lagunak?

Beste almatzen baten egon ziran, eta esan eustan:

– Goazen!

Joan giñan. Lanean ibili ziran da esan eutsen:

– Zeuokgana nator esaten biar danontzako etorriko dirala erropa guztiak eta erremintak. Faustinok daki orretan, lan egin dozuelako.

Ebro zer zan orduan Jaungoikoak bakarrik daki. Soldadu tristeak trenez gorantza, eta trenak eridua-kaz berantza. Zer egoera tristea zan Pinalen, Santiago egunean asi ta geiago. Gu frenteti ogeitamar bat kilometroan, eta araño etorten ziran zarak.

Zeinbat seme amarengandik urrin ilgo ziran? Ze eriduak trenetan; eta ilak, orrek lurpera izango ziran. Jauna, geiago ez bialdu gugana gerrarik!

Ebroko gerra gogor ori amaituta, bake apur bat sortu zan paraje orretan, eta arnasa apur bat artu gendun.

Jantziak etorri ziran guretzako, eta deskantsua be bai. Ia ez gendun lanik be, eta ondo gengoan, naizta erritxo arretan ezer be ez zan egon. Gu erropa barriakaz jantzita paseatzen gendun, ze Ebroko zafarrantxoa amaitu zanean, ez geunkan lanik.

Ainbat milla ildako izan ziran, osteraren lehen-eguneko egunetan galduko mendiak arrapatzen.

Santiago, orain be, nik akorduan eguna izaten dot. Egundua negargarria, Pinaletiko gorriak pasatu ziran eguna erreka aundi orretati, akordua barik gagozala, goizean abarketaz bakarrik urten gendula. Santu orren izena aztu barik eukiteko da munduan.

Zeinbat ildako bateti eta besteti? Ez dau ardura geureak edo besteenak. Danok giñan anaiak. Gorriak eta baltzak, balio bardiña eukin danak, naziño bateko semeak giñan da. Ze gauza negargarria ainbeste ildako! Eta zertarako? Nor da irabazten dauana? Inor be ez. Danok galtzalle izateko zangerra ori, batekoak eta besteakoak. Illa ilda ta biziak bizi; ori da.

Benicasim

Gero aldakuntza egin gendun andi Benicasim-
-era, Kastellon ondora, granja aundi batera.
Uda azkena zan eta granja orretan maatsa egoan
asko. Guk be jaten gendun.

An ostera be, lengo antzera, ogeitabost bat sol-
dadu giñan, ofizial bategaz. An ez geunkan lanik.
Arratsaldean paseatzera. Goizean etxeko bearrak
egin, eta bizimodu ona.

Txarrena gabea, lo egiteko. Moskitoak egoten zi-
ran. Naiz denporea bero egon, burua be manteagaz
tapau egin bear. An kanpoan maatsa egoan lez,
moskitoak etorten ziran, Urrumea ataraten eben.

Bestela, leku polita zan. Baña Benicasim orain-
goa ez zan izan. Ez egoan baserri etxe batzuk baño.
Ezer be ez egoan an. Orduan be paraje polita zan,
baña besterik ez.

Lantzean bein Kastellonera joaten giñan, naiz
bide-aldi luzea egoan, ze Benicasim-en ez egoan
ezertxo be.

Ganera, orduan ez gendun bearririk. Ez ebilen
andi alde artati gerrarik; eta, gerrarik egon ezean,
guk ez gendun bearririk.

Goizean etxe antzean egoten giñan. Baña arra-

tsaldean nunbaitera joan gure gendun, parajeak ikustera. Batzuetan erri inguruan bueltaka ibiltzen giñan, beste batzuetan etxe ondoan, ze iñoz be danok ezin giñan joan. Badaezpadan egon bear gendun batzuek derrigorrez, zeinbat biderrez ezer lan barik. Baña egon egin bear etxea zaintzen.

Noizean bein Kastellonera joaten giñan. Baña urrin egoan bide ori, eta denporea ezin emonda egoten giñan, ogei ta bost bat soldadu, ezertxo be egin barik.

A zan bizimodua! Jan ondo eta lanik baperez, eta gorputza gazte, alkarrerri burleka sarritan.

Egun baten biri, kanpoti zirala, koltxoiak gorde egin eutsezan alboko korta baten. Etorri ziran iluntzean eta koltxoiak falta. Asi ziran zarataka, eta iñok ez dakiela. Danak serio eta arek non lorik egin ez. Gero batek esan eutsen ea beste kortan egongo ziran. Joan ziran da an egon ziran koltxoiak. Alan amaitu zan joan-etorri ori, gure artean geiagoko barri barik.

Ze beti lagun ondo artuak giñan geure artean. Danok etxeko.

Valdealgorfa

Aldakuntza egin gendun Valdealgorfa deitzen jakon erri batera. Joan giñan eta ifini almazenak, eta jarri giñan.

Erri guztiak ondo artu gindun, eta tratatzen gendun erri guztiagaz. Jaietan be gu erriagaz izaten giñan. Gure kamioneta egun guztietan Kastellonera joaten zan, eta erritarren bat be gure kamioian beti doa. Asi alkatea eta ganetikoak, danak gure lagunak. Erropak be an garbitzen euskuezan.

Neskak be bagenduzan nobi antzera. Soldadu bi geunkazan ezkonduak, eta arek be neskakaz. Batenbatek esan ezker ezkonduak zirala, gero asarrea. Baña pasatzen zan ori be. Nire nobia formalegia zan. Etxera be joaten nintzan ni, eta beste batzuk be bai. Ta, errian jairik egin bear bazan, guk beti parte artzen gendun.

Lantzean bein naranja almazenean be lan egiten gendun, apartatzen aundiak eta txikerrak. Geienak euskaldunak giñan eta *los vascos* esaten euskuen.

Beti giñan erritarren artean. Alan neskak eta amak, ondo esaten euskuen guri etxeko giñala, eta igerri barik denporea joaten zan.

Aldi baten, etorri zan alkatea gugana, arbola lan-

dara batzuk sartu bear zirala eta laguntasun eske, eta baietz esan geuntsan.

Urrengoko egunean ekarri ebazan landara mordo bat, eta joan giñan. Arbola bakotxari, nok sartu dauan, beren izena ifinten jakon. Nire arbolak be badira an Faustino izenagaz. Ol zati baten ifinten zan izena. Ez dakit zeinbat ziran nire izenean, baña bai dozenaren bat. Txopoak ziran arbolok. Oraingoz aundiak izango diraz. Erreka ondoan sartu ziran.

Gero beste sarritan eurakaz solorantza be joaten giñan, zerbait laguntzen. Orrelan erritarrak giñan gu. Erri orretan gizon gitxi egoan, ze geienak frenteti eta asko gorrien aldeti ziran, eta oraindi iñor etorri barik, gerrea amaitu barik egoan da. Erri guztian edo zarrak edo gaztegiak. Ez egoan sasoiko gizonik.

Erri orretan denporea igerri barik emoten zan, di-bertsio aundiagaz, eta erritarrak be ondo joiazan, ze gure kamioian egunero ainbat lagun joaten ziran Kastellonera, eta etorri. Guk ez geunkan bearrik, eta gu be ondo gengoan.

Egun batzuetan, arratsaldean, naranja batzen be joan giñan, eta lan egin be bai. Igual lau edo bost soldadu, bertako batzuekaz; eta ainbat naranja batu be bai.

Gero, iluntzean, errian jaia, merienda moduko bat: gaztaia eta menbrillua. Ardaua beti ez zan egoten, baña klarete bai egoten zan. Kantaldi batzuk be egiten genduzan batzuetan, eta jaietan jantzan be bai. Erriko animadoreak giñan gu.

A ez zan soldadiska, ze libertadea gendun ger-rako moduan, eta geu bakezko moduan erri bakezko baten. Ango moduan iñoz ez giñan egon.

Ofizialak sarritan ziran geugaz. Gu bestean erritarrakaz ez ziran ibiltan. Gu giñan diario ibiltan giñanak.

A zan bizimodua! Jan ondo eta lanik ez, eta gau-

zea merke. Erreal bigaiti bokadillo bat. Egunean pe-
zeta bat irabazi; eta egunean bokadillo bat jan
arren, beste erreal bi sobra egunean. Boltsikoa
oraindik ondo beti.

Burriana

Burrianara urrengo aldakuntza. Erri ederra eta apur bat aundia be bai. Leku ona. Ona etorri giñan Valdealgorfati, eta emen gauzak aldatu egin ziran.

Agintariak be beste batzuk, eta militar geiago izatera eldu giñan. Guardi geiago eta bertan egon bear, paseoko libertadea artu arte. An ez geunkan libertaderik. Egun guztietan beti-betikoa: goizean altzau, armozau ta gero garbitu inguruak, eta antxe egon bear gendun arratsaldeko bostetarte.

Baña gero be guardiakoak eta reten mordo bat bertan egon bear zan; eta ofizialakaz berba egiteko be baimena bear zan. Dana kuarteleko moduan zan. Lengo erriti oraingora alde aundia zan. An ez egoan ez jairik eta ez naranjarik guretzako.

Egun baten, soldadu bi etorri ziran beranduago, eta arrestoa zortzi egunean urten barik. Lengorik dana kanbiatuta zan. An ofizialak bat baño geiago ziran, eta dana gure zan militar.

Baña an be teniente bat oso ona. Injenieru bat zan teniente eginda. Ori asteko zanean, askoz be obetoago, eta jan be obeto.

Egun baten, au egon zan asteko, eta etorteko zan

an inguruan agintzen eban militarra. Uste dot jenerala zala. A eberdian etorteko zan. Orduan bazkari ohea. Maiak ifini ta egon giñan etxoten jefazo orreri. Ez zan agiri, eta ia irurak. Teniente orrek agindu euskun jarteko eta asteko jaten.

Segun badago militar legean, soldadua jaten badago, ez daukala zetan altzau; eta, gu jaten gagozala, non datorren nagusi ori. Guri ez euskun tenienteak ezertxo be agindu, eta gu jaten.

Badator, asten da tenienteari zarataka, ea ze disziplina egoan an. Gero agindu euskun firmes jarriteko. Gu zutunik geldi, eta nagusia tenienteari didarka. Olangorik! Teniente ori ixilik.

Nagusi ori egon zan denpora guztian zarataka. Ez eukan edukaziño aundiko antzik gizon orrek. Aundia izango zan graduaziñoan, baña ez gozotasunean.

Gero almalzenak ikusten joan ziran, eta orduan gu jaten asi giñan. Baña bat ate ondoan zaintzen, arantza baetozan lengo antzera firmes jarriteko. Baña ez zan geiago etorri gu egon giñan tokira, eta alan bazkaria amaitu gendun. Egun baten euki banketa eta berean gero erdi otzituta jan gendun, militar gizontasun gitxiko bategaiti.

Esan bezela, segun gero tenienteak esan eutsan batenbateri, badago legeren bat, tropea jaten badago, ezin laikela molestau amaitu arte. Baña arek ez eukan olango legerik, da berena bakarrik eukan arek.

Ain teniente ona zan eta berak artu ebazan ango sermoiak. Gero be guri ez euskun ezertxo be esan. Berak altzau eban dana.

Ba or ez zan amaitu gure bazkaria. Ez dakit ala mantekaua postre artu gendun, ala beste zer edo zer. Gaba erdian asi giñan danok eskusaura edo komuna. An etxeak ez euken komunik, eta osteko so-

lora joaten giñan naranja artera; eta danak galapan osteko solora illadan. Bat altzau eta beste bat be bai, eta galapan.

Bankete ori ez zan ondo jarri gure artean. Nagusiaren asarrea bateti eta goizaldeko diarrea besteti. Urrengo egunean be asko ez gendun jan iñok be. Berantzako ori ez zan ona, eta agur, Burriana!

Kastellon

Orain Kastellonera, kapitalera, etorri gara. Azkenengo egotaldia gerran Francoren aldeti. Emen gagozala amaitu zan gerrea.

Kastellonen porturantzaz artuta egon giñan, alman aundi batzuetan. Or soldadu geiago egon giñan.

Naizta kapitalean egon, kuarteleko disziplinarik ez zan egon. Goizean altzau eta preparau. Etxea garbitzea bakarrik zan gure lana, ze muniziño kontuan ez zan lanik egon, ez ebillen frenteko gerrarik eta ara joan da laster amaitu zan gerra ta. Alan, an ez gendun ezertxo be egiten.

Arratsaldean kalerantzaz joaten giñan, geienean paseora, beste batzuetan portu aldera be bai. An kallean leku polita zan, eta merkea be bai.

Arratsaldean bokadillo bat artu laikian, gaztaia ta menbrilluagaz, erreal bi pagauta. Egunean pezeta bat irabazten gendun guk, artillerikoak eta muniziñoan bear egiten gendunak. Alan, asko begiratuta boltsikoa zelan dabilen, bizimodua eroan laikian naikoa ondo.

Naranja be merke egon zan. Erabea be bai. Baten, Galdakaoko Loroñoren kamioi bat zerbezagaz joan zan; eta gure lagun batzuek kaja bana artu

eben Bilboko zerbezea. Egunetarako euki gendun. Andi edaten gendun. Bizitza ori ez zan guretzat txarra.

Ainbat buelta egin gendun Kastellongo kaleetan, baña ez giñan aspertzen egunero, ze an guardikoak etxean, beste danok libre izaten giñan; eta bearra guztiz gitxi.

Orain gazteak soldadu joan gure ez-ta dabiz. Ez dakit zelango bizimodua doian orain; baña lenago etxean baño obeto jan, etxean baño bear gitxiago, lo egiteko naikoa ordu... Ez dakit, ba, zergaiti penaz egon laiken.

Gu be etorteko etxera gana aundiagaz egon giñan; baña gu urteetan etorri barik egon giñan, eta dirurik be etxeti bialdu barik. Etxean egon be ez zan egin dirurik; eta oraingoak, zortzi egunean ez bada-toz, edo dirua edo maletea bialdu egin bear. Ze aldakuntza aundia dan lendi soldadiskan!

Len iru urtean etorri barik eta dirurik bialdu barik, norberen soldatagaz egoten giñan; eta oraindik ez gendun esaten txarto gagozanik. Beti ondo gagozela.

Eta orain beti dagoz txarto. Zek egiten dau ori? Oraingo gazteak umetan asko parkatuta dagoz-lako. Eltzen dira sasoirra eta ez dakie nun dagozan. Dana dago txarto. Ez dabe ikasi zer dan bizitza. Uste dabe gurasoak eurentzako mundua ginda itxi bear dabela.

Baña ez da orrelan. Munduan norberak atara bear dau bizitzarako. Nire aita ta ama pobreak ziran. Nik banekian ori. Orregaitiño neuk egin bear neban neuretzako.

Pezeta bat irabazi eta gitxiago gastau, eta oraindik pozik bizi. Ori da munduan egin bear dana. Ez, soldata artu orduan, lelengo egunean dana bota, eta gero auzoari begira, ea zer emongo daben. Ba au-

zoan be zure modukoak dira. An be ez dago urre gorririk botateko.

Eta soldadiskan bakotxak atara kontuak zelan bizi egunero, norberak daukaneti. Lagunak soldadiskan onak izaten dira. Baña norbera be alan izan bear du. Lagunakaz txarto portatzen bazera, gero zeuri be ordea emongo dautzue. Ez uste izan, zeuk palua emonda, eurak gauza oberik emongo dautzuenik, ze laguna ez da obeto portatuko.

Alan, artu kontuan zeure portakizuna norañokoa dan, alan izango dala erantzuna ta.

Munduan bide asko dagoz; baña ez artu okerka doian biderik, bestela damu izango dozu ta. Laguntasuna onartu eta zeuk be alan lagundu.

Etxera

Amaitu da gerra denporako soldadiska eta eldu da etxera etorteko denpora. Aspaldian etxoten egoneko eguna: 1939-an, abenduaren 28-an, Kastellonen, emon euskuen pasaporteia etxera etorteko.

Urten gendun goizean Kastellonen, gerra amaituta eta kanpoan egotaldi aundiak eginda, Bilbon Euskadiko Gobiernuaren deia artu eta geiago etxera etorri barik, buelta eta buelta. Ordua zan etxerantza etorteko, irugarren urtean, ainbat lekutati ibilita. Azkenez allegau zan egun aundi ori, esateko:

– Zoiaze etxera!

Denpora askoan egongo giñan esperantzan. Baña goazen arlorra.

Kastelloneti urten goizean Balentziarako trenean. Eldu giñan Balentziara, eta Madrillerakoa arratsalderarte ez zan egon. Lau soldadu giñan Euskal Errirako, eta Balentzian bazkaldu gendun laurok neure kontura. Nik baneukan diru apur bat etxeti bialduta eta. Nik uste neban bestek be eukiko ebela. Orrelan, nik pagau neban danona.

Gero, artu trena Madrillerako. Eldu giñan Madrillera. Urrengo goizean estaziño bateti nortekora autobusean. Autobus ori be ordaindu egin

bear, eta asi ziran lagunok esaten eurak ez daukela dirurik. Nik oraindik zerbait baneukan, baña asko ez ba.

Eldu giñan onako estaziñora, eta joan giñan taberna batera bazkaltzera. Baña esan geuntsan taberneruari zelan gagozan boltsikoti; eta esan euskun:

– Trankil egon. Zerbait emongo jatzue jateko ta.

Jarri giñan maian eta ekarri euskun bazkaria, eta ez txarto. Danok pozik, eta esan geuntsan ze kapital daukagun boltsilloan, eta badiño:

– Ondo dago. Geure etxean danari orain arte emon dautsegu zerbait.

Alan, guk atara boltsiko dana eta kontatu, ta esan geuntsan:

– Au da guk danok daukagun kapitala.

Ni orduan be beste irurak baño geiago. Baña ni be lotu nintzan zentimo barik, neure bizian iñoz be egon ez nazan moduan; eta besteak be igual.

Altzau maiti, diruak danak taberneruari itxita. Geure bazkariagaz ez eban ezer irabazi; baña guk ez geunkan diru geiago. Tabernerua be oñdo portatu zan. Naikoa egin dogula esan euskun, ze oraindik etxeak urrin genduzala.

Joan giñan estaziñora ordu biak aldera, trena noiz egoan enteratzen, eta gabako amarretan egoala esan euskuen.

Baña tikea kanbiau egin bear gendun, eta kolan jarri ordu bietan, gabako amarretan trenak urte-teko, eta alan be estuan, ze atzo lotuak be egon ziran an arratsalde guztian, gabako amarretararte, estuan, tripako miñagaz.

Gabako amarretan artu gendun trena Bilborako eta boltsiko utsakaz, eta trena korreoa zan. Estaziño bakotxean ordu bat lez egiten eban. Trenera etorten

ziran bokadilloak saltzera. Guk bai begiratu, baña itxi egin bear; eta trena astiro.

Urrengo iluntzean zazpiretan eldu zan Bilbora. Guztiz jausita gosegaz urten treneti, agurtu lagunak eta ni Arratiako tranbira. Arriagan egon zan tranbia. Sartu barrura. Oraindik ez egoan jente modurik, eta jarri nintzan jarleku baten, zuti ezin nintzan egon da. Iñori preguntau be ez noz urteten dauanik. Urtengo dau noz edo noz. Bajoian betetzen, eta esaten neban nik:

- Laster urtengo jok.

Bezperan Madrillen egindako bazkari indartsuagaz urten eban tranbi orrek. Etorri zan kobradorea eta esan neutsan nik ez daukadala zentimorik, eta ganera ezer jan barik nengoala, eta itxi eustan.

Eldu nintzan Igoerrera. Urten tranbiti eta oñez Dimerera. Dimen be aurrera. Igorreti Dimerera iru kilometro, eta Dimeti etxera lau kilometro. Zazpi kilometro ziran oñez, bezperako bazkari apurragaz, eta etxeraño, ia jausteko moduan.

Ostera be

Denpora amaitu eta etorri etxera Gabonak aldera, usterik amaitu zirala soldadiskako kontuak.

Baña ostera zortzi bat ilebetera atzera deitu eusten soldadiskarako bigarrenez, alegaturik Francoren aldeti ez nebazala egin iru urte, Euskadiko Gobiernuan egiñak eta Francogaz presontegian egiñak kontau barik.

Ostera joan nintzan Gasteizera soldadu, eta sartu nintzan artilleria 25-kora, iru ilebete falta nebazala eta.

Etxean ordurako lanean nengoan eta bearrezkoa nintzan. Baña ezerezerako barriro joan bear. Au be bazan derrigorra, eta zertarako? Iru urte betatu arte Francoren aldeti, falta nebazan iru ilebete.

Orretarako joan bigarren aldian Francogana, Gasteizko kuartel orretan denporea emoteko bakarrik. An ez egoan gure bear izanik. Ez gendun ezer egiten. Jan bakarrik.

Goizean, libre egon ezkeru, instruziñora. Guk ez gendun bear olango gauzarik. Zertarako kuartela, len lau urtean soldadu egon danarentzat? Zeinbat gauza ezbearreko egiten diran munduan!

Ni etxean bearrezko nintzan ogi apur bat irabazteko, eta erreal bi irabazten joan nintzan Gasteizera. An nik aburridu egiten neban, etxean lana itxita etorri nazala gogoratuagaz bakarrik.

Sarritan, aginten dauanaren azpian egon bear da, nai eta nai ez. Mundua orrelan dago ifinita, eta barriz militarra militarra da. Ez dautse besteren onari begiratzen; eurak ondo egotea bakarrik.

Goazen zer egiten neban nik kuartelean. Goizean altzau eta formaziñoa; eta kafe apur bat artu, sarritan ogi barik, ze ogia batzuetan eberdian igual amaitu egun guztikoa. Instruziñoa armozu ostean. Beste batzuetan, muloakaz kanpora joaten giñan. Buelta bat egiten gendun.

Sapatuetan geienetan permisoagaz etxera domeka iluntzerarte. Domeka iluntzean ostera etorri bear, astelen goizean an egoteko. Ez dakit zertarako zan gure egon bearra.

Arratsaldeetan paseora urteten gendun Gasteizen, guardia tokatzen ez bada, egunero.

Gabaz ango kanpaiak asko joten dabe. Guardian dagoala entzuten zan, lelengo eleiza batekoak, gero bestekoak, *dindan dindan*, eta eleiza guztietati, ze ain eleiza asko dago Gasteizen. Gabaz kanpai otsak. Eta egunez muloakaz kanpora urten ezkerro be, ondo ez zan ibilten.

Egun baten urten gendun goizean muloakaz kanpora; eta beste lagun bat ez zalako egon, aren muloa nireari engantxauta. Erreka txarko bateti pasau giñan, eta beste mulo ori soltau zan, eta alboko solora eskapau zidan.

Ofizialak ikusi zelan solora joan zan nik eroandako bigarren muloa. Sapatua zan eta esan eustan astelenerarte kastigatua permiso barik.

Baña arratsaldean ofizialak be asteko barriak sartzen ziran, eta barriari esan neutsan ez dakiala

zergaiti esan daustan permisoagaz ez joateko, eta etxera joan gure dodala. Eta esan eustan:

- Bazoiaz; baña ez esan nik permisoriak emon dautzudanik.

Ia berandua zan; iluntzean. Ez neukan non joan etxera, eta urten kanpora eta joan alkiler batera eta artu bizikleta bat, eta gabaz etxera joan nintzan, domeka arratsaldean etorteko. Orrelan, etxeti bueltea bizikletan egin neban. Ori, kastigauta egonda.

Alan, guardi tokatu ezean, sapatu guztietan etxera. Boltsarako be zerbait, naizta asko ez, ze etxean be asko ez egoan da dagoneti artu bear, ze irabazirik ez eta gastau bai, asko ezin laike egin.

Ilebeteok alan be luzeak ziran, etxera begira dagoanarentzako, naizta denpora asko ez izan.

Baña, soldadiska, agur betirako, agur!

Nondi eta zertarako?

Ez da fasil aldi batzuetan soldadiskari agur egi-tea. Lelengo Euskadiko Gobernuagaz, gero kanpo kontzentraziñoan, eta gero Francoren aldeti, azken bako ibillaldiak bateti eta besteti.

Eta zertarako izan gara gu soldaduak? Ze Jaungoiko goratzen izan gendun ibillera orrekaz?

Ez da fasil jakiten zertarako izan zan Españaiko gerra; auzoak alkarren kontra eta anaiak alkar il-teko. Gerra guztiak dira txarrak, baña txarrena anai artekoa, alkarren aurka tiroka.

Zer esan laike ama batek beren semeak alkar il-ten ikusita? Amarentzat bakarrik lotzen da negarra, eta mundu onetan negar egin bear. Ez dago beste arlorik, eta sarritan agintariak txarrak diralako munduan.

Eta zertarako datoz gerrak? Norberak agindu gure ta besteen azpian ez egon gure. Ori da munduko ezbearra. Baña danok ezin dogu agindu, eta besteti ikusiten doguz ondo bizi dirala agintariak.

Mundua gure Jaunak danontzako itxi eban. Baña gero aldatu da, nagusia agintzeko eta azpikoa esklabo izateko. Orain au orrelan izango da. Mundua mundu, eta agintariak ondo biziten eta po-

break goseagaz. Orregaiti datoz munduko gerrak: nagusiak azpian artzeko beste guztiak, eta orregaiti gure dau agindu.

Nok diño ondo gagozala? Goien dagonak, bera ondo dago ta. Orregaiti goikoak ifinten dauz guztion soldatak, eurentzako aundiak. Ezertxo falta barik bizi dira. Baña zelan ez dira konturatzen: eurentzako ainbeste milloa eta jubilatatu batzuk berrogei milla pezeta ilean? Nor da onek ifinten dituen?

Niri ez dauste preguntau diputaduak zer irabazi bear dauan, ministroak zer irabazi bear dauan, alkateak zer irabazi bear dauan eta parlamentarioak zer irabazi bear dauan. Eta azkeneko obreruari eurenk ifinten dautse zer irabazi bear daben.

Orrelan, lapikoaren barruan dagozanak ifinten dabe euren, eta azpikoena diño ondo dagoala eta geure erria ondo doiala. Orrelan da: eurak ondo doiaz eta besteak or konpon.

Gerrari buruz

Zeinbat penagaz artuteko zan
gerra ikusi genduna,
zelan zabaldu ete zun Jaunak
ori asi zan eguna?
Guztiontzako etorri jakun
karga zikin da astuna,
geurea gendun dana galduta
zelan ei zan euskalduna.

Gogoez kontra artu genduan
errian guk gerra ori,
kaltea gendun guztiontzako,
mesederik ez iñori.
Tiro ta tiro alkar il arte
anaie ta arrebari,
errurik gabe zeinbat eraso
geure Euskal Erriari!

Bake-bakean egon giñan da
agertu jakun gerria,
Gernikarantza begiratuta
ori zan negargarria.
Andra ta ume zeinbat ildako,
txilio ta su-garria,
bene-benetan esan laikian:
“Nun dago gure erria?”

Kastigu ori zelan jazo zan
edo onaño etorri?
Zikinkerizko pertsonajeak
egingo eban ekarri.
Errurik bako erri oneri
zigor gogorra ezarri,
Jaunak parkatu zelan eingo dun
ori pentsau dot nik sarri.

Ikusi ziran gerra orretan
ainbat gauza txar errian,
naizta egon gu, euskaldun danok,
bakearen egarrian.
Desgustu asko artu genduan
frankotarrak etorrian,
zeinbat fameli ziraden emen
ain egoera larrian?

Batzuk kartzeleratuak eta
batalloi lantegietan,
bear ein bear gabeen eta
sarri egunez penetan.
Zeinbat ziraden txarto tratauak
orti batalloi orretan?
Egoera orrek sarri diradez
gogoratzeko benetan.

Kartzeletan penetan asko
artu ezkeru goguan,
guardiak eta zorriak ziran
sarri euren inguruan.
Bizi ziraden defentsa barik
esklaboaren moduan,
arman azpian lotuta ziran
eta andi nora juan?

Sarri askotan egiten dautzu
berba lagunak alkarri,
noraño umillatua zan be
emen geure Euskal Erri.
Famelietan ezbearrak ta
oraindik gosea sarri,
gerra zar ori joan zan eta
geiago ez bedi etorri.

Gerra kontua nondi datorren
ez da errez jakitea,
eta jentea modu txarrean
orrelan ibilitea.
Mundu onetan danak gure dau
agintzaz ondo otea,
batzuk gosez gizarajoak,
arrokeriaz bestea.

Gerra zala ta soldadiskara
egin ginduzen eroan,
ikusgarrizko egunak ziran,
oraindik badot gogoan.
Etxea itxi ta gurasoak
ebakuatuta joan,
ikusi gendun bene-benetan
mundua zelan dagoan.

Gerra sortu zan gure errian,
jakin ez zertarako zan,
militar batzuk errien kontra,
aitu ezin osoa zan.
Mendi askotan gerra gogorra,
uri artean da plazan,
umiltasuna bearrezko zan
gerra amaituko bazan.

Gerra txar batek nola dakarren
mundu danentzat larria,
ikusi ziran nastuta ama
ta ume errukarria,
aitu ezinik nundik eldu dan
geure etxera gerria;
geure etxea galdu ezker
galdu da geure erria.

Fameli-bizitza

Gerra ostea

Gerra ostean etxera etorrita, aita eta anaia zarra ordurako basoan lanean ibilli ziran egurgintzan eta ikatzgintzan. Ni be gero eurakaz asi nintzan lanean, da laster anaie gazteagoa be baetorren soldadiskati, eta alan lau aita- seme giñan batera.

Gero asi giñan egurra saltzen panaderietara eta fabriketara. Alan, ni izaten nintzan saltzaille edo negozioa eroaten nebana. Bizimodu on samarra euki neban lelengo urteetan.

Domeketan, arratsaldean, tabernara, da azken orduetan bertsotan egiten gendun. Jantzan ez neban ikasi, ze erriko plazara lau kilometro t' erdi geunkazan, da geienetan barriadan lotzen giñan. Uda partean, errekan arrapau arrankari edo keska-lluak, arrautza batzuk bota eta meriendea lelengo, eta gero tabernan bertsotan. Ori zan gure domeka arratsaldea. Neguan, barriadako tabernan, Indusin, jokuan lelengo, gero bertsotan.

Asteko egunetan, basora denpora onagaz. Beste egun askotan, egurragaz edo ikatzagaz Bilbora edo Gasteizera, kamioiagaz eroaten. Gerra ostean, gasolarik be ez egoan. Orduan guk ikatza saltzen gendun gasojenorako kamioientzat. Fabriketara be bai. Ni asko ibiltzen nintzan Bilbora edo Gasteizera. Bijaie guztietan ni joaten nintzan kamioiagaz.

Emendi aurrera lan asko egiten gendun, ze kanpoko langilleak be bageunkazan, eta orain ni basora gitxi joaten nintzan. Kanpoko kamioiak ibiltzen genduzan transporterako, eta arekaz, edo saltzen be, ni izaten nintzan. Nire izenean egoan mobimentu dana.

1943'rantza, nobia be billatu neban, Dimeko erriko neska bat: Inazia. Dimen beste barriada batekoa zan, Bargondia auzokoa. Baña bera Bilbon serbitzen egoan, aundikien etxe baten, kozinera. Domeka birik baten eukan libre aginduta. Baña sarri askotan, libre tokau arren, ezin urten izaten eban.

Alan, ilean baten-edo, geiendi bitan, joaten nintzan beragana. Arratsaldea zan. Bostetati zortzirak aldera egoten nintzan beragaz. Gero, Arratiako tranbia artu ta Igorrera. Andi Dimera sarritan oñez, eta Dimeti beste lau kilometro t'erdi etxera.

Domeka baten, libre tokatzen jakon eta joan nintzan betiko orduan. Urten eustan atara Inaziak eta esan eustan:

– Gaur ezin dot urten.

Kanpoko ezagun asko etozela meriendatzen; da alan, libre tokau arren, ezin eban urten. Aundikiak orduan orrelan serbidutzen ziran. Aundikien aunditasuna eta pobreen umiltasuna. Gaurko nobioak balira, esango eutsan nobiari:

– Artu maleta ta urten kanpora.

Baña orduan nobletasun aundia eukan pobreak eta arrokeri aundia aberatsak. Eta, geiagoko barik, artu Arratiako tranbia eta etxera etorri nintzan ni.

Beste batzuetan, karta bat bialtzen eustan, zelan ezin eban urten. Ze denporak ziran areik oraingoari begiratuta! Oraingoa larregi bada, ordukoa be larregi zan. Agur solterutza.

Gure ezkontzari

Bizimodua zer izan neban
solteru nenguanian;
umiltasunez neure etxean
aita ta aman esanian.
Fameli dana batuak giñan,
beti maite ta armonian,
anai-arrebok alkarrerekin
ondo konpontzen giñian.

Nobia bat nik billatu neban
neure erako antzera,
geure denporan bizi izateko
alkarrerekin batera.
Bakotxak berak eukan guztia
besterentzat emotera,
mundu ontako bizimodua
bide oneti artzera.

Nire nobia serbitzen egon
aundikiaren etxean,
domeka arratsaldea libre
amabostean batean.
Bilbon egon da urteten eban
ni berana joatean,
iru bat ordu paseo einda
itxiten neban atean.

Domeka baten joan nintzan da,
beren atera deiturik,
atera urten da esan eustan
biotza penaz beterik:
“Gaur niri libre tokatu arren
ez daukadat urteterik,
serbitzen dagon neskeak ez dau
libertadeko neurririk”.

Zeinbateraño ziran lenago
aundikiaren etxeak,
errespetoa eukiten eban
etxe aundiko ateak.
Umiltasunaz balio eban
serbitzalle izateak,
antxe ondoen egola pentsau,
egin ebazan urteak.

Urtean bitan etorriten zan
etxera bisitatzeko,
obligaziñok beren aldeti
ondo ebazan beteko.
Umiltasuna izango eban
kanpuan serbidutzeko,
orain neskarik ezin lai topa
orrenbeste egiteko.

Neska-mutilak olgatzen barik
artu munduko aria,
orrelan bada etorriko da
gero frutu ugaria.
Alkarrengana noblezasunez
ondo egiteko paria,
egunen baten artuko dogu
ondo egindako saria.

Gazte maiteok, artu mundua
betiko maitasunian,
da ezkontzea guztiz da ona
sasoia datorrenian.
Alkarrentzako egiñak izan,
iñor ez euki azpian,
orrelan maite izango zarie
zeuen denpora guztian.

Milla bederatzireun urtegaz
berrogei ta seigarrena,
azaroaren ogei ta amarra
zan ezkontzako eguna.
Urkiolako eleizan artu
maitasunezko laguna,
neure bizian egin dodanik
obrarik eta onena.

Inazia zan nire emazte
egun orretan jarria,
ordu orretan artu genduan
fameliko oiñarria.
San Antonio testigu zala
baietzaz firmau orria,
Jaunan eskuko benedeziñoaz
geure bizitza barria.

Urkiolara joan giñaden
San Antonio aurrean,
gure testigu izatekuak
jarririk aldamenean.
Abade jaunak benedeziñoa
gure Jaunan izenean,
len izan giñan neska-mutilak
andra-gizonak giñean.


Gure ezkontza egin genduan
bear zan legez benetan,
andi aurrera bat izateko
neke ta jolas danetan;
biok batera izan gaitez
dibertsio ta lanetan,
bizimodua erodateko
emen lur eder onetan.

Ezkontzan beti artu bear da
zer egiten dan gogoan,
orretarako egon bear dau
biak maitasun osoan;
alkarregana lagun eiteko
osasun eta gaixoan,
buzterri ori astuna da ta
aldiz bear da eroan.

Egun orretan artu daigun ba
Jaunak esana kontuan,
ez da kanbiau orain be ezer
legeko mandamentuan.
Libre gu zelan izango gara
Jaunan ezkontza lotuan?
Igerriko da ondo egiña
fameliaren frutuan.

Damu munduan ezin lai euki
gure ezkontza artua,
gazte artean gozatzeko da
len lez ezkontza santua.
Eleizatikan ezkondu eta
sortu fameli batua,
alkar maitatu munduan beti,
orrek dauka meritua.

Bertso batzutan emen jarrita
ezkontzako dokumentu,
gazte maiteok, motibo barik
etzaiteze aldrabestu.
Gero umeak deslai ixtiak
badu naikoa delitu,
sasi arteko ezkontza orrek
oin zer dakarren begitu



Faustino Eixebarria bere emazteagaz.

Gure gora-berak

Esan bezela, 1946'ean, azaroaren 30'ean, ezkondu nintzan Inaziagaz, Urkiolako eleizan, ogei ta bederatzi urtegaz, ta Inaziak ogei ta lau. Biziten parau giñan Dimen, plazako etxe baten, errentadore.

Izan genduzan bost seme alaba; neskak bi eta iru mutil: Maria Rosario, Jose, Juan, Jesus eta Maria Isabel.

Etxe orretan bizi izan giñan amalau bat urtean. Lelengo mutil bi agindu genduzan estudiantzen Gasteizera, marianistetara, internadura. Baña danak bialtzeko ez gendun modurik, karua zan eta. Etxe bat Gasteizen topau da biziten joateko pentsau gendun. Joan giñan ara: andrea umeakaz, eta ni astean bitan joaten nintzan. Alan, eskolak merkeak ziran.

1960-an, Bizkaiko irugarren Bertsolari Txapelketa asi zan. Lelengo, komarkalak egin ziran. Ni presentau nintzan Arratia aldeko komarkalera, Zeanuri'n, Abuztuaren 14'an, eta txapeldun lotu nintzan. Epai-maiko ziran Aita Martzel, Alfontso Irigoien, Manterola Zeanuriko abade bat. Gero semifinala Ondarroan egin zan. Baña or kanporatu nintzan ni.

Goazen osterara be famelira. Gasteizen egin genduzan amabi bat urte, batxillerrak amaitu arte umeak. Gero, mutilak eskola nagusietara, eta neskek batxiller laboralak egin ebezan. Lanean jarri ziran, da mutilak karrerak egin ebezan, eta danak dauke gaur bakotzak karrerari datorkion kolokaziño edo lantokia.

Neska eta mutil, bostak ezkondu ziran. Bakotxa beren fameliagaz bizi dira. Lauk daukie fameli bina, eta batek bat. Iru bizi dira Galdakaon, eta bi Bilbon.

Ni ta emaztea be Galdakaon bizi gara, etxean bakarrik biok. Baña seme-alabak be ondoan bizi dira. Alan, pozik bizi gara.

Ni jubilatuta nago. Ez daukat paseatzea baño beste lanik. Goizean, denpora ona badago, armozau ta kalera ordu baterarte. Eberdian bazkaldu, deskantsau apur bat eta ordu pare bat bertso-lanean, batzuk egiten. Gero, txoko batera joaten naz. An pasatzen dodaz iru bat ordu, eta gabean goizeti etxera, zortzi t'erdiak aldera. Nire bizimodua gaur ona da, naizta lenago bear asko egiña nazen.

Sapatuetan joaten gara andrea jaio zan etxera. An bazkaltzen dogu eta gaberako etxera. Jaiotetxe ori Dimen dago, Bargondia deitzen jakon auzoan. Alan, astean bein ikusten dogu geure erria.


Ezkondu ta gero be, segitzen neban anaiakaz negoziñoan: basoak erosi eta materiala apartau; eta egurra, batzuetan su-egur, saltzen gendun panaderira edo fabriketara. Beste leku batzutan ikatz egin. Alan ibilli urte batzutan.

Gero erosi gendun kamioi bat. Gero, beste bat. Alan, negoziñoa geroago ta aundiagoa zan. Gero ifini gendun zerreria. Bastante martxa aundia gendun. Ni nintzan ugazaba egiten nebana.

Famelia Gasteizera joan zanean, ni posadaz nen-goan Dimen. Astean bitan joaten nintzan Gastei-

zera. An amabi urte eginda, famelia Galdakaora etorri zan. Galdakaoti Dimera nik be ondo neukan.

Urte batzuk orrelan eginda, laster urteak aurrera joiazan niretzat; eta seme-alaba danak irabazten da ezkondata jarri ziranean, ni be jubilatatu nintzan, bizimodu ohea artzeko. Emaztea ta biok bakarrik bizi gara Galdakaon. Agur.



*Faustinoren andrearen jaiotetxea,
Dimako Bargondia auzoan.*

Gure fameliari

Bost seme-alaba guk
izan duz etxean,
eureri begitu ta
gagoz poz utsean;
barreak urten dauste
biotza betean,
geure seme-alabak
olan ikustean.

Nire andreak barriz
badu poztasuna:
bederatzi bilobak
danak osasuna;
amamak emoten dau
beren maitasuna,
fameli danak artu
deien batasuna.

Alabarik zarrenak
mutil azitxoak,
beren lanak eiteko
bera da naikoa;
estudioan ondo,
era onekoa,
salduteko ez dago
gure mutikoa.

Urrengo seme zarrak
mutiko bi ditu,
ze majo dagozan aik
eureri begitu;
amamaren aurrean
begiak argitu,
ain onak izateak
badauka meritu.

Urrengo gure seme
Juan, irugarrena,
alaba politxo bi
onak daukazena;
Juana ta Aiora
ifini izena,
aita ta ama eurekaz
pozetan dauzena.

Ta Jesus laugarrenak
mutil da neskea,
amamantzako ona
areik ikustea;
Itziar neska eta
Iñigo bestea,
arekaz pozez dago
nire emaztea.

Marisa da alaba
gure gazteena,
bi mutileti bata
txikerra daukena;
amamantzat bera da
danetan onena,
beti ez ikusteak
emateutso pena.

Bederatzi bilobok
ditut aitatuak,
ganeti emonagaz
guztien kontuak;
amamak ditu danak
beragan artuak,
izan daitezana beti
alkarraz batuak.

Seme-alabak, suin eta erreñak

Seme-alaba, suin eta erren
danak diraz fameliko,
bizimodua eroateko
danak eiten dabe naiko;
amak ez ditu erreñ da suin be
gutziz atzean itxiko,
da alegindu alkarraz pozik
izan daitezana betiko.

Alaba zaarraren senarra,
Anjel da beren izena,
etxezalea eta ganera
lan egiteko zuzena;
andrearentzat ezin ohea,
semearentzat ait ona,
da etxerako lan egiteko
nekerik bako gizona.

Gero urrengo Jose zarrena,
Maribel da emazia,
ez neuke gure nire bertsu
aitatu barik ixtia;
pozigarria da andra-gizonak
olan pozez ikustia,
eingo dau senar da umeentzat
berak al dauan guztia.

Urrengo, Juanen emaztea da
Maria Jesus izena,
alaba eta gizonarentzat
maitasun asko daukena;
andereño da eskola baten,
beren arduraz zuzena,
alaba biak eta gizona
danak pozez daukazena.

Oin Jose Leon agertuten da
gure Marisan gizona,
seme birekin dagoz gaur eurek,
bata danen txikerrena;
ta senar ori maitalea da,
fameliantzako ona,
emazteantzat emongo leuke
berak eskuan daukena.

Jesus daukagu orain urrengo,
emaztea Ana Mari,
esker aundiak emon leuzkio
geure etxeak berari;
seme-alabak maiteak ditu,
lana badauka ugari,
nok ez dautso ba esker emongo
olan portatzen danari?

Seme-alabak ifinita dauz
euren lekuan guztiak,
osasunagaz bost fameliak,
aundiak eta txikiak;
ikusten doguz euren artian
alaitasunez betiak,
gurasoari poza emon lai
oik orrelan ikustiak.


Famelietan bear dana da
borondatez batasuna,
aita ta seme, alaba eta
amarekin osasuna;
artu ein daigun bear dan legez
Jaunak bialdu daiguna,
dirua bere ez da munduan
sarri danen ontasuna.

Arkibidea

Itzaurrea.....	7
Argigarria	11
Jaiotetxea	13
Ume aldia.....	15
Nire aur denporari.....	25
Pastore.....	31
Nire pastoretzari.....	43
Kantuak eta kontuak	47
Antxineko oiturak	59
Basoko lanak	63
Ikazkintza	65
Gerra aurreti.....	70
Txinorreta	72
Lezartzu eta Atxaldapa	75
Sorgin-basoak	78
Basoko bizimoduari.....	84
Erromeriak	89
Festarik festa	91

Santa Ageda.....	93
Geure auzoan.....	99
Urkiola.....	101
Indusi.....	103
Gorbaie mendia.....	105
San Blas.....	108
Kanpora-martxo.....	111
San Kristobal.....	117
Perretxikoak.....	121
Bilbo.....	124
Arrankariak eta keskalluak.....	128
Santa Ageda.....	131
Ostera be Urkiolan.....	135
San Lorentzo.....	139
Errebatibak.....	142
San Roke.....	145
San Frantzisko.....	148
Santiago.....	151
San Pedro.....	155
Oraingo neska-mutilari.....	158
Anai arteko gerra.....	165
Etxean.....	167
Erriz erri.....	169
“Eusko Indarra”.....	172
Prisionero.....	176
Donostiako Loiola.....	179
Jaka.....	182
Teruel.....	185
Zaragoza.....	188

Vinaroz	191
Gandesa.....	194
Ebro.....	196
Benicasim	202
Valdealgorfa	204
Burriana	207
Kastellon.....	210
Etxera	213
Ostera be	216
Nondi eta zertarako?	219
Gerrari buruz.....	221
Fameli bizitza	225
Gerra ostea	227
Gure ezkontzari.....	229
Gora-berak.....	235
Gure fameliari	239
Seme-alaba, suin eta erreñak	242



Dimako Faustino Etxebarria bertsolariak, orain urte batzuk *Nor garan azaldu* bertso-liburua plazaratu ondoren, gaur *Nire gazte denpora* itz-lauzko idazlana eskeintzen digu.

Liburu onek, egillearen aurtzaroa, eskola, artzai-bi-zitza, basoko lanak, Arratia aldeko erromeriak, gerra-ibillerak eta abar pelikula batean bezela agertzen diz-kigu.

Ala, Bizkaiko baserritarren bizitza orain irurogei edo irurogei ta amar urte zer zan, ispillu garbi batean bezela ikusten degu.

Ori dana, gaiak eskatzen zuanetz, bizkaiera errikoi, bizi, mamitsu eta jatorrez moldatua.

ISBN 84-89080-37-2



9 788489 080379